


SENEZ

1998

ITZULPEN ALDIZKARIA

20 ZBK



SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

Zuzendaria:
Koldo Biguri

Helbidea:
Zurriola hiribidea, 14
20002 DONOSTIA
Tel.: 943 27 71 11
Fax: 943 27 72 88
e-mail: eizie@eusnet.org

EIZIE



Elkarrizketa Jose Moralesi	
KOLDO BIGURI	7
"Alda gaitezen jadanik, jarrai dezagun oraindik"	
KARLOS CID	21
Itzultzailea, ugazaba biren morroia	
KARLOS DEL OLMO	33
Alemaniera, euskararentzat eredu?	
ELENA MARTÍNEZ RUBIO	47
Aposizioak	
JOSE MORALES BELDA	51
Medikuntzako testuetako zenbait okerbide eta balizko aje	
ROBERTO MANJON	67
Itzulpenaren teoria ludologiko baten oinarriak	
WILHELM NEINZIG, MARTIN KREUTZER (ITZ.: PELLO ZABALETA)	85
Lafontaine eukaraz	
JUAN GARZIA	93
Laurence Sterneren bidaia sentimentala	
JOSU BARAMBONES	105

Barkatuko du irakurleak zenbaki berri honen aurkezpena ikuspuntu pertsonaletik hasten bada, baina, aldizkariaren zuzendaritza karguari uztera noan honetan, ezin gal dezaket aukera hau aldizkari honen ardura hori neure gain hartu nuenetik igaro diren bederatzi urteei atzerabegirada egiteko, datorren zenbakitik aurrera zuzendari berria izango den Gotzon Egiaren eskuetan utzi aurretik.

Bederatzi urte nahikoa epe luzea da halako ibilbideazterketa bati ekiteko, igarotako denbora horretako gazi-gozoak gogoetagai harturik. Zorionez, errepasso azkar batean, gozo gehiago ageri da gazi baino, bai aldizkariaren beraren barrura begiratzuz, bai euskal itzulpenaren esparru zabalera so eginez. Aldizkariari dagokiolarik, zalantzarik ez dago Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearentzat harrotzeko modukoa dela, elkarte profesional txiki bat izanda, era honetako aldizkari bat argitaratzen jarraitzea hamalau urtez segidan, batez ere bertan idatzi dutenen kemenari eskerrak; harrotzekoa, diot, Elkarte hau ez delako ikerketa-erakunde bat, ikerketak egiten dituen arren, ez delako orobat itzultzaile-ikastegia, ikaspenak eta irakaspenak ematen dituen arren, eta ez delako kultur elkarte, kultur lan handia egiten duen arren. Gizon-emakume saiatu eta gogotsu apur batzuen fruitua dugu hori dena, bai eta aldizkari hau ere.

Gozoarekin segituz, euskal itzulpengintzak oro har, eta esparru guztietan, urteotan izan duen zabalkundea eta loraldia ezin aipatzeke utzi, arrazoirik ez delarik falta etorkizunari itxaropentsu begiratzeko; hori dena, gainera, neurri handi batean Elkartearen proiektuan bildu garen lanaren eta elkarlanaren emaitza eder dela jakinik.

Gazirik ere bada, noski, denok dakigunez. Aurrerapauso handiak egin dituen arren, euskal itzulpengintzari oraindik ere falta zaio gizarte normalizatueta duen funtzio eta onarpen maila berbera erdiestea, oraindik ere sektore batzuentzat alboraturik edo behar bezain

baliotsi gabe jarraitzen duen jarduera baita; ildo horretatik jarraitu behar da lanean, bistan denez. Baina hori ez da itzulzaileon ardura bakarrik.

Bestalde, bederatzi urteotan, itzulpen ikasketa ofizialetan sartuz, EHUren Itzulpengintza Masterra baino ez da geratzen, eta, unibertsitate ikasketa bihurtu arteko pausoa eman gabe jarraitzen du, nahiz eta pauso hori hurbil dagoela dirudien. Horrek berekin dakar, besteak beste, gure Unibertsitatean ez dela egiten euskal itzulpengintzari buruzko ikerlanik, horien beharrea egongo ez bagina bezala; eta, hain zuzen ere, aldizkari honetan argitaratzen diren artikulak eta EIZIEk antolatzen dituen azter-mintegiak —EHUK Elkartearen bidez noizean behin antolatzen dituen udako jardunaldiekin eta EIZIEko kideek UEUren barruan ematen dituzten ikastaroekin batera— dira hutsune hori nolabait betetzen duten ahalegin xume bakarrak, ahalegin derrigorrez apalak halako egiteko erraldoiaren aurrean. Euskal itzulpengintzak, behin eta berriro esango dugu, unibertsitate ikasketak behar ditu, unibertsitate mailako prestakuntza duten profesionalak behar ditu, zientzia oinarri sendoko azterlari eta azterketak behar ditu, orain arte egindako aurreakadaren sustriak indartuko eta zabalduko badira. Aldizkari honen beronen etorkizuna ere zelai horretan joka daiteke.

Bien bitartean, ordea, gure bidetik jarraitzen dugu, baita zenbaki honetan ere. Bertan, joan den urteko Euskadi itzulpen-saridunarekiko elkarrizketa bat, EIZIEk antolatzen dituen mintegietako emaitza diren artikulak batzuk, elkarteko kideek bidalitako kolaborazio zenbait eta *Vasos Comunicantes* aldizkariak translatoiaren kontura egindako testu zirtolari bat ere irakurri ahalko dituzu.

Bukatu baino lehen, alderdi pertsonalera berriro etorri, eskerrak eman nahi dizkiet nire zuzendari-epaen neure eskari premiagarriek bultzaturik edo beren kasa aldizkarian idatzi duten guztiei; espero dut —ziur naiz, egia esanda— zuzendari berriarekin ere nirekin bezain ulerbera eta lankide on izaten jarraituko dutela.

Adiorik ez.

Koldo Biguri, 1998ko uztaila

Jose Morales
Itzulpen alorreko 1997ko Euskadi Sariduna

Elkarrizketa

KOLDO BIGURI

Jose Morales 1960an jaio zen, Bilbon, familia erdaldun batean. Hemezortzi urte zituela hasi zen euskara ikasten. Kazetaritzan lizentziatua da baina sekula ez da kazetari-lanetan aritu. Hamar bat urtez AEKn irakasle lanetan jardun zen, eta garai hartantxe izan zituen lehen harremanak itzulpengintzarekin, denboralditxo bat eman baitzuen AEKren itzulpen-zerbitzuan. Harrezkerotik, buru-belarri sartu zen itzulpengintzaren munduan, eta gaur egun horixe du ogibide, bere konturako itzultzaile gisa. Literaturaren arloan, honako liburu hauek itzuli ditu orain arte, errusieratik denak: Maxim Gorkiren Ama (Ibaizabal. Literatura Unibertsala. 1995), Mikhail Jurievitx Lermontoven Gure garaiko heroia (Ibaizabal. Literatura Unibertsala. 1996), Euskadi Saria jasotakoa, hain zuzen ere; Aleksandr Pushkinen Salta erregea (Desclée de Brouwer. 1996) eta Kapitainaren alaba (Ibaizabal. Literatura Unibertsala. 1996). Orain, Nikolai Gogolen Arima hilak euskaratzen ari da, Literatura Unibertsala bildumarako, eta seguru aski urte honen amaiera aldera argitaratuko da.

— Hitz egin saritua izan den zure itzulpenaz eta lortu duzun sariaz.

Lehenik eta behin, kontuan izan beharra dago Literatura Unibertsala bildumarako itzuli nuela Lermontoven *Gure garaiko heroia*. Jakina denez, EIZIEk eta Eusko Jaurlaritzak, elkar harturik, hamar bat liburuz osaturiko zerrenda bat plazaratzen dute urtero, eta edonorentzat zabalik dagoen lehiaketa baten bidez adjudikatzen dute liburu horien

itzulpena. Beraz, lehiaketara aurkezten diren itzultzaileek zerrenda horretako liburuen artean aukeratu behar dute ezinbestean. EIZIE-ren literatura batzordeak egiten du itzulgaien zerrenda, baina, aldez aurretik, norberak gogoko dituen liburuak proposatzeko aukera izaten dute elkarteko bazkide guztiek. Eta ni, hain zuzen ere, egokiera horretaz baliatu nintzen Mikhail Lermontoven *Gure garaiko heroia* eleberria proposatzeko. Literatura ba-

tzordeak ontzat hartu, eta zerrendan sartu zuen. Lehiaketara aurkeztu nintzen, bada, eta epaimahaiak oniritzia eman zion nik bidalitako laginari.

Lermontov Errusiako idazlerik onenetarikoa da, baina, hala ere, gure artean inor gutxik zekien haren obraren berri. Berak idatziriko libururen bat euskaratzea bide ezin hobea zen gure artean ospe pittin bat emateko hain idazle handiari. Bidenabar esanik, hori da itzultzaileari bere lanak ematen dion saririk atseginenetako bat: aspaldiko idazleak berpiztea, ahanzturaren zulo goibelean lizunduriko idazleei arnas berria ematea. Liluraturik irakurri nuen nik, aspalditxo, *Gure garaiko heroia*, eta pentsatu nuen merezi zuela euskaratzea, merezi zutela euskal irakurleek euskaraz irakurri ahal izatea. Horregatik proposatu nuen.

Lermontovek poesia idatzi zuen batez ere, baina, bere bizialdi laburraren amaiera trajikora iritsi aurretik, narratibari ere ekin zion. *Gure garaiko heroia* da, hain zuzen ere, haren prosaren emaitzarik ederrena. Berebiziko eragina izan zuen Errusiako literaturan. Lermontovek, errealitatea besterik gabe kontaktu beharrean, zorrotz aztertu zituen pertsonaien sentimenduak eta jokaerak. Errusian, ordura arte, inork ez zuen nobela psikologikorik idatzi, baina, harrezkero, bide horretatik jo zuten idazle gehienek. Ohore eta atsegin handia izan zen niretzat maisulan hori euskaratzea, baita erantzukizun handia ere, Lermontovek idatzi zuenaren mailako testu bat sortu behar baitzen euskaraz. *Gure garaiko heroia*, laburra izanik ere, oso liburu aberatsa eta bizia da: askotariko giroak, egoerak, pertsonaiak eta erregistroak biltzen ditu. Horixe izan nuen zailtasunik handiena (zailtasun bakarra, egia esan, Lermontoven

idazkerak berak ez baitzidan buruhauste handirik eman). Lexikoak eta atzerriko hizkuntzen sintaxi euskararenaren hain bestelakoak itzultzaileoi sortzen dizkiguten ohiko arazoez gain, ez nuen oztopo larriarik aurkitu. Oso erronka polita izan zen narratiba-maila eta giro horiek guztiak euskaraz behar bezala emateko bidea aurkitzea. Besteak beste, aha-lerin berezia egin behar izan nuen paisajeen deskripzioak itzultzeko. Hain zuzen ere, Kaukasoko ikusmirak deskribatzean Lermontovek erakutsi zuen maisutasuna goraiatu ohi da liburu horretaz hitz egitean. Oso deskribapen luzeak, zehatzak eta ederrak egiten ditu, halako ukitu liriko batez beti, zeren eta Lermontov, oroz gaindi, poeta baitzen. Kaukason barrena ibili zen sarritan, eta, inguru haiek sortu zioten lilura agertzeko orduan, hitz lauz aritu arren, ezin erabat baztertu poesiaren bidea. Barrenak agintzen zion hori. Paisajeen deskripzioetan bezain nabarmena ez bada ere, ukitu liriko hori atzematen da liburu osoan zehar; halako batean, Lermontovek berak aitortzen du ezin diola entzungor egin barne-muinetatik deika ari zaion ahots horri (pasarte batean, pertsonaie-tako batek abesturiko kanta bat aldatzen du liburuaren orrietara, hitz neurtuz aldatu ere, eta ohar hau idatzi zuen orriaren behealdean: “Barkamena eskatu behar diot irakurleari Kazbitxen abestia bertsotan aldatu dudalako hona, nahiz eta niri, jakina, hitz lauz eman zidaten. Baina badakizue: ohikoa lege bihurtzen da”). Buruhausteak buruhauste, urtebetez gozatu nintzen hain liburu ederra itzultzearen plazerraz, urtebete eman baitzidaten itzulpena egiteko (arrazoizko epea, bestalde, liburuaren tamaina kontuan izanik). Paisajeekin batera, bikainak dira pertsonaien deskribapen fisiko-psikologikoak ere, zeren Ler-

montovek, kanpoko ezaugarriak pintatzeaz batera, eta haietan oinarriturik askotan, pertsonaien nortasuna eta aiurria arakatzan baititu bere luma zorrotz eta ironikoaz.


Itzultzailearen ardura nagusia jatorrizko testuaren aldaera baliokide bat sortzea denez, sariak sari, ondo saritutzat joko nuke neure burua liburu eder hori errusieraz bezain atsegina handiz irakurriko balitz euskaraz. Ni, behintzat, hori lortzen saiatu nintzen.

— *Kontaiguzu nolako bidea egin duzun literatura itzultzaile bihurtu arte eta horrek zure lanetan izandako eragina.*

Laburbildurik, arrazoi kultural eta ideologikoengatik ikasi nuen errusiera. Batetik, oso gogoko izan dut beti Errusiako literatura. Gogoan dut nola, eskola-garaian, literatura irakasleak agindurik, Dostoievskiren *Krimena eta zigorra* irakurri nuen. Izugarri gustatu zitzaidan, eta gogotik ekin nion herrialde urrun eta zabal hartako beste idazle batzuen lanak irakurtzeari. Goi-mailako literatura zen, eta, gainera, erabat liluratu ninduen orri haietan erakutsitako munduak. Oso narratzaile onak izateaz gain, ereduak intelektualtzat neuzkan XIX. mendeko idazle oparo eta sutsu haiek guztiak: gizarte-arazoez kezkatutik, garai hartako agintarien burugabetasunaren eta despotismoaren salatzaile gupidagabeak, boterearen jazarpenak ezin kikilduzkoak... Beraz, gazte-gaztetatik ari zitzaidan gogoan hozkaka Errusiako literaturak sorturiko liluraren harra. Baina, Errusia miresteaz gain, Sobiet Batasuna ere miresten nuen, "prosobietikoa" nintzen, garai hartan esaten zen bezala. Hain zuzen ere, Sovietar Batasunarekin Adiskidetasun Elkargoa Euskadin izeneko elkarte bateko bazkide nintzen.

Elkartean, besteak beste, errusierazko klaseak ematen zituzten, eta, lanik gabe eta astitsu nenbilen bolada batean (duela hamar bat urte), errusiera ikasteari ekin nion. Egia esan, oso asmo apalak nituen: hizkuntza nola edo hala menperatu nahi nuen, hain gogoko nituen idazle haien obrak jatorrizko hizkuntzan irakurri ahal izateko eta, egunen batean Errusiara joanez gero, hango jendearekin hitz egiteko aukera izateko. Errusiera ikasten hasi nintzenean, ez nekien gerora itzultzaile izango nintzela. Dena dela, gero eta serioagotan hartu nituen ikasketak eta, azkenean, Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialeko bost urteak egin nituen. Bosgarren mailan nengoela, Errusiara joan nintzen dantza-talde batekin, interpretari. Handik gutxira, lagun batek esanda jakin nuen Literatura Unibertsala bildumaren berri eta errusierazko liburu bat zegoela zerrendan: Gorkiren *Ama*, hain zuzen ere. Eta horrela hasi nintzen errusierazko literatura itzultzen. Ordurako, sartu-irten apal batzuk eginak nituen itzulpengintzaren munduan, eta nola —Literatura Unibertsaleko lanak ondo ordainduta egon arren— literatura soilik itzultzeak ez duen bizitzeko adina ematen, itzulpen pragmatikoak egiten hasi nintzen, osagarri gisa, eta, horrenbestez, itzulpengintza hartu nuen ogibidetzat (duela hiru bat urte), eta horretan nabil orain, neure kontura. Gauzak horrela gertatzeak, zalantzarik gabe, eragina izan du nire lanean, zeren eta, ondo itzultzeko, besteak beste, ezinbesteko baldintza baita itzultzaileak atsegina izatea egiten duen lana, itzultzen duen hizkuntza eta, oro har, hizkuntza horren kultura eta mundua.

Prestakuntzari dagokionez, erabat autodidakta naiz. Itzultzen hasi nintzenean, lehenengo eta behin, itzulpengintzari buruzko



liburu mordoxka bat irakurri nuen (Newmark, García Yerba, Mendiguren...), hasieratik konturatu bainintzen ezinbestekoa zela (beste edozein ogibidetan bezala) nolabaiteko oinarri teorikoa izatea eta itzultzeko teknikak ondo menderatzea. Oso lagungarri izan zaizkit, halaber, EIZIEn bidez beste itzultzaile batzuekin izandako harremanak eta, bereziki, elkarteak urtero antolatzen dituen mintegi eta ikastaroetan parte hartzea.

— Errusieratik itzultzeak nolako berezitasunak ditu?

Jende askok uste duenaz bestera, errusieratik euskarara itzultzea ez da, berez, beste edozein hizkuntzatatik itzultzea baino zailagoa. Errusieratik euskarara esan dut, hortxe baitago gakoa. Jakina denez, munduko hizkuntza gehienek familiak osatzen dituzte; familia bakoitzeko hizkuntzek antz handia dute elkarren artean eta, hortaz, ez da oso zaila izaten familia bereko hizkuntzen arteko itzulpenak egitea (esaterako, txekieratik errusierara edo italieratik gaztelaniara). Zailagoa da elkarren antz handirik ez duten hiz-

kuntzen arteko itzulpenak egitea. Eta, familiak familia, kontua da gure euskarak ez daukala aitarik, ez amarik, ez neba-arrebarririk: bakarrik eta zurtz dago hizkuntzen mundu zabalean. Euskarari neurri berean zaizkio arrotz eta bestelako ingelesa, errusiera, gaztelania eta japoniera. Gure hizkuntza frantsesetik bezain urrun dago errusieratik, eta, horrenbestez, antzeko nekeak ematen dizkigu batetik zein bestetik itzultzeak.

Bestetik —eta literatura itzultzeaz ari naiz soilik—, gehienetan, liburu bat edo beste itzultzeko zailtasuna ez datza, nire ustez, jatorrizko hizkuntzan bertan, itzuli nahi den autorearen idazkeran edo liburu jakin baten ezauzgarrietan baizik. Esaterako, lepoa egingo nuke askoz ere zailagoak direla euskaratzen García Márquezen *Cien años de soledad* edo Joyceren *Ulises* (oraindik euskaratu barik dauzkagun bi liburu aipatzearen) Gorkiren *Ama* baino. *Ama*, izan ere, oso estilo erraz, lau eta koxka handirik gabean idatzirik dago, herri xehearentzako propaganda-lan gisa idatzi baitzuen Gorkik, garai hartako langileek eta nekazariak aise ulertzeko moduan. Gure inguruan inolako presentziarik ez daukanez, errusiera oso hizkuntza urruna eta ezezaguna da euskaldunontzat. Baina, objektiboki, errusiera dakien euskaldunarentzat, ez da berez eta besterik gabe zailagoa errusieratik itzultzea beste hizkuntza batetik itzultzea baino. Jakina, hizkuntza bakoitzak bere ezauzgarri bereziak ditu, baina Europako hizkuntza gehienak, oro har eta euskararekin aldeaturik, antzeko samarrak dira, morfologiari eta sintaxiari dagokionez behinik behin (bestelako kontuak dira semantika, estilistika, lexikoa, baliabide narratiboak, etab.), edo, hobeto esanik, bide berbera jorratu dute prosagintzaren molde nagusiari dagokionez.

Alde horretatik, antzeko eragözpenak aurkitzen ditugu errusieratik zein ingelesetik euskaratzeko orduan. Adibide bat jarriko dut, adierazi nahi nukeenaren argigarri: Europako hizkuntza gehienetan erlatiboa eta aposizioak dira oinarri nagusietako bat esaldi luzeak josteko. Baina, jakina denez, gainerako hizkuntzetan hain ondo funtzionatzen duten erlatibo arrunt horiek euskaraz ez dira "molde egokia narraziorako". Antzeko zerbait gertatzen da nominalizazioarekin, adjektibazioarekin, esaldiak antolatzeke moduarekin, galdegaiarekin, etab. Horren aurrean, euskarak bere bidea urratu behar du, geure estrategia narratiboak garatu behar ditugu, euskararen berezko ezaugarriak eta baliabideak baliatuz eta, aldi berean, gure inguruko hizkuntzek hartu duten bideari jarraiki eta gure tradizio idatzian oinarriturik. Eta kontua da noraezean gabiltzala oraindik. Batetik, inguruko hizkuntzen aldean gure literatur tradizioa hutsaren hurrena delako, proportzionalki benetako literatura gutxi egin dugulako eta oraindik ez dugulako ia ezer itzuli; eta, jakina denez, ibiliz egiten da bidea. Gure kulturaren balioari buruzko eztabaida berriro piztu den honetan, ez legoke txarto gogorra ekartzea —literaturaren eremura mugaturik— Mitxelenaen hitz hauek:

"Nahiz eta euskaraz idatzi den guztia (eta esan edo kantatu den franko) euskal literaturan sartzen dugun (...), ezin uka lezake gauzen berri dakien edozein guretarrek maizago topatzen dugula behe-aldeetan narrazka gaindegietan hegaka baino. Urria dugu, arras berankorra izateaz gainera; exkax xamarra ere bai, hitz lotsagarri honetaz balia banaiteke. (...) Urria, berankorra, ñaño-antzekoa izateaz landa, badu beste makur nabarmena: txit mugatua izan dela, erlijio edo hobeki eliz-arazoetara iraulia gehienbat luzaroko mendeetan. (...) Gure egunotan ber-

tan, lanak izango genituzke obra mordoska (hitz lañoz nahiz neurtuz ondua) biltzen, dozenatxo bat bederen, geure munduko inguruko eta urrutiegoko literaturetan sortuen aldamenean pareka dezakegunik: gai direnek ere, huts ematen dute neurrian eta tamainan".

Hala da, hala denez, eta gure hutsak baxterre konplexurik gabe ezagutzen dituen ez da, inondik inora, "antiapologeta", errealista baizik. Ez baititugu nahasi behar "autokonfiantza" eta "autokonplazentzia". Bestetik, berriz, ez dugulako —gure urrian— eredu garbirik: oraindik ez dago finkaturik euskara batu estandar orokorra bera, eta are gutxiago literatur hizkuntza estandarra, eta mutur batetik bestera gabiltza aldaroka, aurrekoek eginikoa arbiatuz hainbatek, oraingoek egiten dutena gaitzetsiz beste hainbatek. Villasante argi eta zuhur mintzo da horretaz Euskararen auziaz liburu gogoangarian:

"Euskarak behar du prosa egiteko moldea ondo finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkarhezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena".

Idatz hizkera nola eratzen den eta euskarazko prosak nolakoa izan beharko lukeen azaltzen du horren ostean:

"Idatz hizkerak literatur tradizioz eratzen, osatzen eta sendotzen dira, hots, idazleek bata besteari jarraiki. (...) Euskararen kasuan esan behar da, gainera, euskarak baduela tradizio hori. Kuestioa da gaizki ezagutzen dugula geure tradizioa. Joan den mende-hondarrean eta oraingoaren hastean eten bat gertatu zen, haustura bat. Txartzat jo zen lehengo dena. Hutsetik dena berriro egiten hasi nahi zen, eta tradizioari gibelak eman zitzaion. (...) Euskara guztiz berezia eta bestelakoa delako aitzakiaz, denera eramán

nahi da 'euskal usai' dontsu hori. Euskararentzat gauza denetan bakarbidea nahi da: itzetan, sintaxian, orotan. Ordura arteko idazleek erabilitako prosan kutsadura besterik ez zuten ikusten. Beraz, baztertu behar ziren. Etxe zeharo berria oinarrietatik egin behar zen. Beste hitzez esan: Lehengo tradizioa, nazio-arteko prosaz bat zetorrena, zokoratua, madarikatua eta ahantzia izan da”.

Eta, aurrerago:

“Mendebaldeko prosagintza onartzen ez badugu, nola egin behar ditugu itzulpenok? Oso neke eta gaitz da. Maiz-sarri, ezina. (...) Egia da, bestalde, itzulpen literarioa egin nahi denean, arazo guztia ez dagoela prosagintzan. Kasu eman behar zaie hizkuntza hartzailearen esamolde eta itzulika berezici. (...) Baina hori esan eta, beste hau ere gaineratu behar da. Prosa egiteko tankera orokor hori –geure tradizioan etxekoturik duguna, gainera– onartzen ez badugu, nekez normalduko da gure artean itzulpen-lana”.

Eta, bukatzeko:

“Ez dugu eskatzen zeharo hilik den zerbaiti loturik egotea. Baina hau da kontua: hizkuntza landuak behar du egitura bat iraunkorra, sendo finkatua, eta hori da mendez-mende eta tradizioz heldu zaigun idatz hizkera. Hartan oinarriturik eta mendeko eta tokiko hizkera bizitik ere gaiak hartuz, mirari hau lortzen da, hots, beti bat eta beti berri izatea”.

Horra hor, bada, ezin argiago adierazirik, nondik nora jo behar dugun. Barkatuko didazue aipuen luzea, baina inon gutxitan ikusi dut hain argi eta zehatz azalduarik zein den gaur egun ditugun arazoan jatorria eta non dagoen irtenbidea. Neurri handi batean, gure hizkuntzaren egoeran bertan dituzte erroak literatura unibertuala euskaratzeko izaten ditugun eragozpen orokorrek. Horrek guztiak ez du esan nahi euskara elbarri denik literaturarako, edo beste hizkuntzek dituzten ahal-

menak ez dituenik. Kontua da orain –oraindik– altxatzen ari garela euskarazko literatur hizkuntzaren eraikina. Gure klasikoek jarri zituzten oinarriak, baina koloka samar daude oraindik, bateko eta besteko haizeteek astindurik noizean behin eta eraistear batzuetan, eta egungo zein geroko idazleen eta itzul-tzaileon zeregin eta erantzukizun da oinarri horiek sendotzea eta, apurka apurka, eraikina bere horma, solairu eta gela guztiez hornitzea.

Zailtasunez ari garenez, aipamen berezia merezi du lexikoak. Niri, behintzat, lexikoak ematen dizkit buruhausterik larrienak. Errusierak oso hiztegi aberatsa eta oparoa dauka (beste hizkuntza askok ere bai, inondik ere, baina orain errusierari buruz hitz egingo dut bakarrik, zuhur beharrez). Kontuan izan behar da, hasteko, errusiera 143 milioi lagunena ama-hizkuntza dela eta 270 milioi hiztun dituela guztira, eta hiztun horiek eremu ikaragarri zabal eta askotariko batean hedaturik daudela. Bestetik, orain arte itzuli ditudan liburu gehienak XIX. mendean daude idatzirik eta giroturik. Hitzetako askok lotura estu-estua dute garai hartako ohiturekin, ogibideekin, gizarte-antolamenduekin eta horrelakoekin, eta ez dute ordainik euskaraz. Aipatzekoak dira, besteak beste, lanabesak, janzkiak (berokiak, txanoak eta oinetakoak bereziki), zalgurdiak, jakiak, eraikuntzak, ontziak. Euskarazko testua oharrez gehiegi ez zamatzearen, perifrasira jo behar izaten dut askotan, edo ahalik eta ordainik hurbilena bilatu eta, aurkitu ezean, “asmatu”.


Nolanahi ere, uste dut lexikoa itzultzaile guztion gurutzebidea dela, zeren eta, egia esan, itzultzeaz gain –edo itzultzearekin batera–, nork bere hiztegia egin behar baitu. Hiztegiarik gabe itzultzen ari gara alemanie-

ratik, txekieratik, italieratik eta ingelesetik. Beste edozein hizkuntzatarata itzultzen dutenek dagoeneko eginik aurkitu dutena, arian-arian eta ahal dugun moduan egin behar izaten dugu euskal itzultzaileok. Sintaxiak berak baino askoz ere buruhauste handiagoak ematen dizkit lexikoak niri. Askotan, joan-etorri ugari egin behar izaten ditut, hiztegi hiztegi, lexikoaren bide bihurrietan barna, errusierazko hitz arrunt baten euskal ordain egokiaren bila. Errusiera-euskara hiztegi gabe ere, lantegi hori askoz ere samurragoa litzateke euskara batuaren hiztegi arauemailerik balego (gutxienez hori). Euskal hiztegi askorik ez daukagu, eta, ajeak direla, garbizaletasuna dela, jatorrismoa dela, mordoilokeria dela edo aditu baten edo besteren usteak direla, koloka jartzen ditugu; behin eta berriro, dauzkagun apurrak. Askotan, itsaso zakarraren erdian zeri heldurik ez daukala itotzear dagoen naufragoa bakartiaren antza hartzen diot euskal itzultzaileari.

— *Nola ikusten duzu euskal literatur itzulpen-gintzaren oraingo egoera?*

Euskal literatur itzulpengintza sasoi onean dagoela esan ohi da, eta ni bat nator diagnostiko orokor horrekin. Aurrerapauso handiak eman ditugu, batez ere hamarkada honetan. Baina hobetze hori ez da berez eta goizetik gauera gertatu. Hamaikatxo itzultzaile on badira gaur egun Euskal Herrian; ez dira, ordea, hutsetik sortu halako indar zerutiar baten poderioz. Batetik, hizkuntzaren egoerak edo estatusak berak izan duen sendotzeari zor zaio hori. Euskara batua sortzea eta finkatzea, euskara hizkuntza koofiziala izatea euskal probintzia batzuetan, hiztegi gintza, Euskaltzaindiaren araugintza,


Martuteneko Itzultzaile Eskola, EIZIE, Literatura Unibertsala eta Pentsamenduaren Klasikoak, argitaletxeek itzulpenei eskaintako leku zabalagoa: hori guztia eta gehiago kontuan izan gabe, ezin azal genezake egungo egoera onaren zergatikoa. Aipamen berezia merezi dute, zerrendatxo horretan, Literatura Unibertsala eta Pentsamenduaren Klasikoak bildumek. Haiei esker, hainbat itzultzailek lan-baldintza duinetan ekin ahal izan diogu munduko literatura eta pentsamendua euskaratzeari. Profesionalizatzeke



joera nabaria atzematen da azken urteotan, eta hori, jakina, itzulpenaren kalitatearen mesederako izan da. Egungo literatur itzultzaileek, oro har eta salbuespenak salbuespen, prestakuntza ona dute, itzulpengintzaren teoria eta teknikak menperatzen dituzte; hitz batean, badakite zertan ari diren. Hori frogatzeko, hamarkada honetan atzerriko hizkuntzetatik gurera bihurtu ditugun maisulanen euskarazko ordainen kalitatea ikusi besterik ez dago. Bidenabar esanik, jatorrizkoarekin alderatu ezean, ez dago jakiterik

itzulpena ona edo txarra den, nahiz eta askotan ahazten zaigun hori. Uste dut garrantzizkoa dela ñabardura hori egitea: itzulitako liburu bat irakurrita, lasai asko esan dezakegu euskarazko testu gisa ona, oso ona edo bikaina dela, baina nola ausartu esatera bikain itzulita dagoela jatorrizko liburuarekin alderatu gabe? Ildo horretatik, oso zuhur mintzatu zen Anjel Lertxundi Euskaldunon Egukariakoek *Gure garaiko heroia* liburuaz galdetu ziotenean: “nik ezin dut epaitu errusieratik nola jasota dagoen, baina euskaraz dagoen emaitza jario erraz eta aberatsekoa da”. Literatur itzulpen asko, gaur egun, atsegin handiz irakurtzen dira euskaraz, ez zaie nabaritzen itzulpena direnik, beste hizkuntzetako testu horiek euskarara bide egokitik ekartzen asmatu dutelako itzultzaileek, besteak beste.

Nolanahi ere, “egiak izan ohi du larrosaren antza, ederra bada ere, berarekin arantz”. Eta makinatxo bat arantza baditu gure arrosa apain horrek. Itzulpengintza da hizkuntzari eusten dioten euskarrietako bat,



hizkuntza berritzen du, arnasa ematen dio, eta bide berriak urratzen dizkio, etengabe garatzen jarrai dezan. Munduko hizkuntza guztietan gertatu da hori, baita gurean ere, nola ez. Baina liburuak ez dira itzultzen norberaren hizkuntza aberasteko edo biziberitzeko bakarrik, baizik eta –nagusiki– jendeak irakur ditzan. Eta horixe da, hain zuzen ere, euskal literatur itzulpengintzaren egungo ahulune nagusietako bat: batez beste oso itzulpen onak argitaratzen dira, baina inor gutxi irakurtzen ditu. Eta, halatan, alferrikakoa eta eskergabea izan daiteke itzultzaileek eginiko ahalegina. Tamalez, ez da erraza izango gaitz hori sendatzea. Nire iritziz, oso zabaldurik dago oraindik halako uste oker edo susmo gaizto bat, zeinaren arabera itzulitako liburuak zurrinak, irakurgaitzak eta oinaze-iturri baitira literatura ona gogoko duenarentzat. Aski frogaturik dago erabat ustela dela uste oker eta gaizto hori. Kontua da, oro har, itzulpen horien irakurle potentzialak ez daudela ohituta euskaraz irakurtzen, eta erosoagoa zaiela, beraz, gaztelaniaren iturrian asetzea literatur egarria. Horrelako gaitzespenei aitzakia merkearen usaina hartzen diet nik. Irudi luke euskaraz idatziriko testuak “jatorragoak” direla, berez direla samurrak, gozoak, irakurtzen errazak eta atsegin-iturri. Bada, nik uste dut itzulpengintzak merezimendu nahikoak erakutsi dituela jadanik berari ere hain abegi ona egiteko. Ekinaren ekinaz, berdindu egin ditugu sorkuntzaren eta itzulpengintzaren arteko koxkarik zorrotzenak, itxi egin dugu biak bereizten zituen amildegia. Itzulpengintzarekiko mesfidantza hori errotik erauzi beharra dago jendearen baitatik, itzulpenak behar bezala sustatuz eta zabalduz eta itzulpengintzari bere izen ona bihurtuz. Zorionez,

Gerardo Markuleta lankideak behin esan zuenez "itzulpengintzan egin ditugun aurre-
rapenei esker, badator belaualdi bat *Altxor
uhartea, Ali Baba eta zazpi lapurrak* edo *Ali-
zia* euskaraz jatorrizko bertsoia balitz bezala
irakurtzen duena eta hori da irtenbide baka-
rra".

Aurrera goaz, beraz, baina bide luze eta
malkartsua daukagu aurrean. Kontuan izan
behar da hainbat hutsune daudela oraindik
euskal literatur itzulpengintzan. Gehienbat,
obra klasikoak itzultzen ari gara, joan den
mendean idatzitakoak eta narratibazkoak
gehienak. Bada garaia bestelakoak ere itzul-
tzen hasteko: poesia, antzerkia, biografiak,
saiakera, dibulgazio-liburuak. Batez beste,
liburua idatzi eta handik mende batera eus-
karatzen dugu. Salbuespenak salbuespen,
gaztelaniara aspalditxo eta behin baino ge-
hiagotan itzuli diren liburuak bihurtzen di-
tugu gurera (batez beste, liburu klasiko ge-
hienen lauzpabost itzulpen aurki daitezke
gaztelaniaz). Bada liburu bat edo beste eus-
karara itzuli dena gaztelaniara baino lehen,
eta ahalegin handiagoa egin beharko genuke
bide horretatik. Izan ere, klasikoez gain gaur-
gaurko literatura gogoko duenak ez du ezer
aurkituko euskaraz. Gauza bera gertatzen zaio
munduan milioika ale saltzen dituzten best-
seller mardul horiek irakurtzeko egarritza-
goenari.

Azkenik, uste dut oso garrantzitsua dela
profesionalizazioaren bidean urrats handia-
goak egitea. Asko dago oraindik itzultzeko.
Egungo literatura alde batera utzirik (esan
bezala, dena dago itzultzeko oraindik), batez
beste, idazle klasiko batzuen liburu bat edo
beste euskaratu ditugu bakarrik, baina beste
asko hor daude oraindik, noiz euskaratuko
zain. Eta, hutsune erraldoi hori betetzeko,

itzultzaile onak behar dira, eta, batez ere,
itzultzaile profesionalak, itzultzetik bizi (ahal)
diren itzultzaile saiatuak. Urliari, esaterako,
biziki gustatuko litzaioke Dostoievskiren
Krimena eta zigorra edo Tolstoiren *Ana Ka-
renina* itzultzea, eta, egunen batean, *Kara-
mazov anaia* eta *Gerra eta bakea* ere euska-
ratu beharko ditugu. *Krimena eta zigorra* ele-
berri mardula da (500 orri inguru ditu), eta
(edergarririk gabe esango dut), lan hori ondo
ordainduta egon ezean, itzultzaileak (abera-
tsa ez bada edo dirurik gabe bizitzeko mo-
dua asmatu ez badu behintzat) txolartetan,
asteburuetan edo gaueko ordu txikietan jar-
dun beharko luke horretan, bizibidea beste
nonbaitetik atera beharko luke eta. Behar-
bada, bost urte (edo hamar, edo gehiago)
beharko lituzke liburu hori itzultzeko. Bai,
badakit luze joko digula literatura unibert-
saleko liburu guztiak (!) euskaratzeak eta,
ezinezkoa izateaz gain, ez dagoela zertan itzu-
lirik dena hamarkada batean. Ezinbestean,
apurka-apurka, ahal bezala eta behar adina
denbora harturik euskaratuko ditugu. Bai-
na, horrekin batera, uste dut ezin dela oso
denbora luzea eman liburu bat itzultzen, ze-
ren eta, denbora-bitarte horretan, hainbat
gauza aldatuko baitira gure hizkuntzan (arau
berriak, joera berriak, molde berriak), eta li-
tekeena da, liburuak itzultzen amaitzen de-
nean, euskal testu hori zaharkiturik egotea
argitaratu baino lehen ere, eta itzultzaileak,
halaberharrez, garaiko euskarara moldatu be-
harko luke bere itzulpena. Jakin badakit ar-
gitaletxeek ezin dutela ordaintzen dutena
baino gehiago ordaindu eta, beraz, haiek ezin
dutela arazoa konpondu. Orain, Literatura
Unibertsala eta Pentsamenduaren Klasikoak
bezalako proiektu subentzionauei esker,
baldintza egokietan lan egiteko aukera izan

dugu hainbat itzultzailek, eta nabaria da zenbaterainoko eragin ona izan duen horrek. Zer gertatuko da, ordea, bilduma horiek amaïtzen direnean? Uste dut ezinbestekoa dela irtenbideren bat bilatzea. Halako "ente" (ez baitakit nola deitu) egonkor eta sendo bat sortu beharko litzateke, luzerakoa, itzulpengintzaren etorkizuna bermatzeko. Askotxo egin dugu dauzkagun bitarteko apurrekin. Baliabide gehiago edukiz gero, askoz ere gehiago egiteko moduan gaude. Eta euskarak badu horren premia, larria gainera.

— *Nolako dohainak eduki behar ditu literatur itzultzaileak?*

Itzultzaileak, esan gabe doa, ondo jakin behar ditu hala sorburu-hizkuntza nola xede-hizkuntza. Eta, Pernandoren egia hori esandakoan, ñabardura batzuk egin nahi nituzke. Jakina denez, zailagoa da —askoz zailagoa— hizkuntza kodetzea deskodetzea baino. Hortaz, ondo jakin behar da sorburu-hizkuntza eta ondo baino hobeto xede-hizkuntza. Sorburu-hizkuntzari dagokionez, berebiziko garrantzia du hizkuntza horren jabe den herriaren historia, kultura, ohiturak, literatura eta horrelakoak ezagutzeak, zeren eta itzultzaileak euskaratu behar dituen hitz, esaldi, esamolde, atsoitiz eta pasarteetako asko kultur konnotazioz beterik baitaude, eta itzultzaileak jakin behar du hitzen azpian dagoen ezkutuko mundu hori modu egokian jasotzen. Xede-hizkuntzari dagokionez, berriz, hurbil-hurbiletik jarraitu behar dio hizkuntzaren garapenari eta, bereziki, literatur hizkeraren nondik norakoari. Euskal itzultzaileak ondo jakin behar du euskal literatura zertan den, atzoko eta gaurko idazleek nondik jo duten, nolako eztabaidak eta arazoak

dauden gramatika arloan, eta abar. Itzultzaileak hizkuntza du lanbide eta lanabes, eta, horrenbestez, ondo jakin behar du tresna horretaz baliatzen, ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, euskararen barne-indarrak eta berezko ahalmenak modu egokian erabiltzeko. Horretarako, batetik, ezinbestekoa du ahal beste irakurtzea, ereduzko idazleen zein itzultzaileen lanak bereziki, arkatza eskuan beti, eta bere glosarioak edo esaldi-bildumatxoak osatzea. Elkarri begiratu ezean, besteen ekarpenak aintzat hartu ezean, antzu samarra izan daiteke idazle eta itzultzaileon lana. Orojakitunak ez garenez, hiztegi, entziklopedia eta esamolde-bildumaz inguraturik lan egin behar dugu, eta etengabe jo haietara, orriak gupidarik gabe irauli zeharo higiturik utzi arte. Nolanahi ere, argi ibili beharra dago, hiztegiak oso baitira maltzurak, eta, zuzen eta zuhur erabiltzen ez baditugu, okerbide erabatekora eraman ahal gaituzte. Izan ere, gehienetan, kontua ez baita hitz baten ordaina zein den jakitea, ordain hori gure hizkuntzan nola erabiltzen den jakitea baizik: nolako tradizioa duen, nola erabili den garai bakoitzean, zein erregistrori dagokion, zein hitzekin josi ahal den, zein berba duen etsai eta zein adiskide. Horregatik, oso arriskutsuak dira adibiderik gabeko hiztegiak, eta oso lagungarriak, ordea, hitz bakoitzaren erabilera adibide-sorta ederren bidez erakusten dutenak. Zorionez, gero eta urriagoak dira lehenak eta gero eta ugariagoak bigarrenak. Besteak beste, badira hiru lan nik ezinbestekotzat eta paregabeko lagungarritzat dauzkadanak: *Orotariko Euskal Hiztegia*, Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia* eta Justo Mocoaroren *Repertorio de locuciones del habla popular vasca*. Aurreneko biek esaldi-sorta potoloak eransten dizkiotelako hitz

bakoitzari (OEhk batez ere); Mocoeroarena, berriz, altxor paregabea delako, nahiz eta, zoritxarrez, bi alde txar dituen: batetik, erabiltzen zaila da eta askotan ez dago jakiterik nondik hasi esamolde jakin bat bilatzen; bestetik, hor jasoriko esamoldeetako asko, aukeran, zaharkituxe daude edo erregistro arrunt edo behekoetarako soilik balio dute, baina, guztiarekin ere, nondik jo erakusten digute, eta, aurkiturikoa gustuko ez badugu, ukitu batzuk eman ahal dizkiogu behar dugun hizkera-mailara edo egungo euskara batu estandarreara egokitzeko.

Prestakuntzari dagokionez, itzulpengintzaren teknikak menperatu behar ditu horretan aritu nahi duenak. Ezinbestekoa da, beraz, oinarri teoriko sendoa edukitzea. Itzultzaile orok jakin behar luke, esaterako, nolako aholkuak eman zizkion Maimonides judu kordobatarrek bere obraren itzultzaileari, edo nolako printzipio zuhurrak ezarri zituen Doletak *La Manière de bien traduire d'une langue en autre* tratatuan (Xabier Mendigurenen *Euskal itzulpenaren historia laburra* liburu txit interesgarrian aurkituko duzue hori guztia eta gehiago). Hain zuzen ere, egungo itzulpenen kalitatea, oroz gaindi, itzulpenari buruzko filosofia egoki batean eta itzulpen-teknika egokiak erabiltzean datza. *Elizen arteko Bibliaren* egileek, esaterako, itzulpengintzari buruzko mintegi bat egin zuten lanari ekin aurretik, eta, Biblia norentzat euskaratu nahi zuten erabakitakoan, itzultzeko modu jakin bat aukeratu zuten. Hona zer dioten liburuaren aurkezpen-orrietan:

“Asmoa ez da izan Biblia euskal elite baten-tzat ematea. Xedea, Biblia euskera-maila nahiz bibli ezagutza berezirik ez duen jende arrunt eta xehearren eskura jartzea izan da, adituagoak ahaztu gabe noski. Helburu komunikatiboa, alegia.

Hain zuzen ere, helburu zehatz horrek eragin dio itzultzaile-taldeari, traduktologiaren aldetik, joera jakin bat hartzera, Bibliaren itzulpengintzan, munduan zehar, jadanik aski errotua dagoen joera hartzera: baliokidetasun dinamikoa, funtzionala”.

Baina nola itzulpengintza zientzia eta artea den aldi berean, ez da aski teorian oso jantzita egotea, ikastaroak eta masterrak egitea edo filologian lizentziatua izatea, hala nola ipuinak idazteko ez baita aski ipuingintzaren teknikak ezin hobeto menperatzea. Itzultzailearen dohain nagusietako bat, beraz, teknika horiek guztiak praktikan jartzen asmatazea da. Eta, horretarako, hizkuntzari bizi-indarra eta bere jite berezia ematen dion sako-neko muin ezin ukituzko hori bereganatu behar du. Itzultzaileak birsortu egin behar du jatorrizko testua. Berrito idatzi behar du, esaterako, *Apulei Metamorphoseon* (II. mendean Luzio Apuleiok idatzirikoa liburu ospetsua), berrito idatzi behar du bere garaiko irakurleentzat, bere garaiko hizkeran, bere hizkuntzaren berezko moldean.

Testu baliokide bat sortzeko, itzultzaileak erabateko fideltasuna zor dio jatorrizko testuari. García Yebrak dioenez, “jatorrizkoak dioen guztia jaso behar du eta ezin du erantsi jatorrizkoak ez dioen ezer”. Nik, zuen baimenarekin, zintzotasuna deituko nioke horri. Itzultzaileak zintzo jokatu behar du, ezin dio irakurleari ziririk sartu, ezta liburua idatzi zuenari saldukeriarik egin ere. Zintzotasuna diot, zeren itzultzaileak badaki irakurleak ez duela itzulpena jatorrizko testuarekin alderatuko eta, horrenbestez, ez diela akatsei edo hutsei antzik emango. Itzultzaileak erantzukizun handia du, oso argi eduki behar du bitartekari hutsa dela eta, zabarke-riaz edo arinkeriaz jokatzu gero, zeharo hon-

da dezakeela munduko literaturako maisulan bat. Itzultzean, batzuetan, zalantzak sortzen zaizkidanean edo pasarteren bat ondo ulertzen ez dudanean, gaztelaniazko itzulpenak miratzen ditut (bat baino gehiago beti), beste itzultzaileek nola jokatu duten ikusteko. Eta, zinez diotsuet, harrigarria eta lotsagarria da hainbat itzulpen ustez egokitan zenbat akats dauden eta zenbaterainoko arduragabekeriak jokatu duen itzultzaileak. Batzuetan, itzultzailearen ezgaitasunaren ondorioa izaten da hori; beste batzuetan, berriz, presaka lan egiteak dakarren zorrotasunik ezaren emaitza. Izan ere, itzultzaileak lasai eta astiro lan egin behar du. Ez dut ukatuko itzulpen guztietan zerbait galtzen dela, ezinezkoa baita jatorrizkoa bere osotasunean jasotzea, bere konnotazio guztiekin, jatorrizkoaren irakurlearentzat esanahi berezia duten ñabardura guztiak beste kultura bateko irakurleari neurri bere-berean helaraztea. Hori jakinda ere, itzultzaileak berebiziko ahaleginak egin behar ditu dena itzultzeko, lana laster bukatzeagatik eragozpenen aurrean aise etsi gabe. Beharbada, gehiegizkoa irudituko zaizue, baina nik, batez beste, hiru edo lau ordu ematen ditut orri bat itzultzen. Bi ordutan egin nezake, baina emaitza ez litzateke nahi bezain ona izango. Nolanahi ere, emaitza ona lortzeko behar den denbora norberaren gaitasunaren araberkoa da eta, inondik ere, badaude itzultzaileak arin itzulita ere emaitza bikainak lortzen dituztenak.

Horrenbestez, hona, laburbildurik, ondo itzultzeko bete behar diren gutxieneko baldintzetako batzuk: xede-hizkuntza ezin hobeto jakitea, sorburu-hizkuntzaren bizi-inguruaren ezaugarriak ezagutzea, hiztegiak zuhur eta etengabe erabiltzea, jatorrizkoaren ñabardura eta xehetasun guztiez jabetu arte

amore ez ematea, zintzotasun-fideltasunez jokatzeko eta presarik gabe lan egitea.

— *Irakurlea idazlearengana hurbildu ala alde-rantziz? Zure lanetan, zeren aldekoa zara?*

Nik uste dut elkarrengana hurbildu beharra dagoela. Itzulpengintza hizkuntzaren zutabe nagusietako bat da, baina sorkuntza da euskarri nagusia. Kontua da hizkuntzen bizitzan, garai eta egoera jakin batzuetan, itzulpengintzak hartzen duela bere gain garapenaren zama, itzulpengintzak tiratzen duela gurditik. Errusiera modernoa, esaterako, XVIII. mendearen bigarren erdian sortu zen. Garai hartan, Pedro I.a Handiak mendealderantz zabaldu zituen Errusiako inperioaren ate ordura arte tinko itxiak, zientzia eta teknika arloko liburu ugari itzuli zituzten, eta horrek berebiziko garrantzia izan zuen hizkuntzaren berritzean eta eguneratzean.


Gure idazle klasiko askoren lanik garrantzitsuenak itzulpenak dira, esplizituak batzuk eta implizituak beste batzuk. Idazletzat dauzkagu, baina, funtsean, itzultzaileak ziren. Euskarazko bigarren liburua Leizarragaren *Testamentu Berria* izan zen. *Gero* bera (euskal obra nagusia) itzulpen implizitua da neurri handi batean, eta itzulpen esplizituko pasarteak ere baditu; Sarako eskolako beste hainbat idazleren emaitza nagusia ere itzulpenak dira (Haraneder, Etxeberrri Ziburukoa...). Eta nola ez aipatu Duvoisin! Gaur egun ere baditugu geure artean hainbat lagun, idazle emankorrak izateaz gain itzulpengintzan ere aritzen direnak. Argi dago, beraz, sorkuntza eta itzulpengintza elkarri ondo heldurik joan direla beti. Gaur egun, ordea, badirudi halako amildegi bat dagoela bien artean. Oso zabaldurik dago azken urteotan

itzulpengintzan sorkuntzan baino aurrerapauso handiagoak egin ditugulako irudipena. Eta nik uste dut ez dela irudipen hutsa. Hainbat idazle ere horretan daude; hona, adibidez, zer esan zuen Anjel Lertxundik orain dela lau urte Donostiako Udako Ikastaroetan, euskal literaturaren orduko egoeraz ari zelarik:

“Itzulpengintza bultzatetik eta indartzetik ikusten dut bidea: azken bolada luzean argitara diren obretatik itzulpen gehiago salbatuko nuke lan originalak baino, gehiago gozatu dut euskara, orohar eta salbuespenak salbuespen, itzulpenetan originaletan baino”.

Eta hori esan zuena dugu, hain zuzen ere, egungo euskal idazlerik onenetariko bat. Nik behintzat izugarri gozaten dut euskara haren prosa eder eta zainduan; itzultzaileok

badugu zer ikasi asko Lertxundiren azken liburuetan eta, atrebentzia handiegia ez baltz, ausartuko nintzateke esatera nahitaez irakurri beharko lituzkeela itzultzaile orok *Otto Pette*, *Piztiaren izena*, *Azkenaz beste*, *Letrak kalekantoitik*, eta, nola ez!, *Urrezko Astoa* liburu benetan zoragarria (zeinean Lertxundik adina meritu baititu Juan Kruz Igerabidek). Ez da ona itzulpengintza eta sorkuntza elkarrengandik bereizirik egotea, horrek kalte baino ez baitio egiten gure literaturari. Ezinbestekoa da, beraz, biak elkarrengana hurbiltzea eta elkarrekin uztartzea, idiek alde banatara tira ez dezaten gurditik. Nik arretaz irakurtzen ditut euskal idazleen lanak (ez guztienak, niretzat ereduizkoak direnenak baizik) eta saiatzen naiz haien ekarpenak jasotzen, nire itzulpen-lanei mesedegarri zaizkielakoan.



Alda gaitezen jadanik, jarrai dezagun oraindik*

KARLOS CID ABASOLO

I. TEORIA PIXKA BAT

Anitz dira euskaraz "aldaketa" adierazten duten adberbioak: *jadanik*, *dagoeneko* (*dabor-duko*), *ordurako*, *gaurgero*, *engoitik*, *honezkero*.

Bestalde, "jarraipena" adierazten duten adberbioak ere baditugu, ondoko azpimotetan banatuak:

- a) Esaldi osoaren modifikatzaileak:
oraindik, *artean*.
- b) Galdegaiaren modifikatzaileak:
are, *oraindik*.

1.1. Aldaketa-adberbioak

Sei-edo dira, nik dakidala, euskaraz dauzkagun aldaketa-adberbioak: *jadanik* (*jada*), *dagoeneko*, *ordurako*, *gaurgero*, *engoitik* eta *honezkero*. Testuinguru bakoitzean lauetako zein erabili erabakitzeak, teoriar,

kontu xumea badirudi ere, praktikan, ordea, gauzak korapilatsu xamarrek direla iruditzen zait. Nik, behintzat, buruhauste bat baino gehiago izan dut neure itzulpenetan gai honi dagokionez. Eta artikulu honek buruhausteok talde-terapia eginez sendatzea du helburu.

Arakatu ditudan hiztegi eta gramatikan ondoko bereizketa egiten da:

• *jadanik* (*jada*): gaur arte Iparraldean bakarrik erabilia. Orain eta lehenaldian ager daitekeenez, aldaketa-adberbio "unibertsala" dela esan genezake. Adibideak:

Jadanik etorria da?

Jadanik bere azken egunetara ailegatua zelarrik.

Jadanik ez da hemen bizi.

Hori ez da jada erabiltzen.

* Artikulu hau iazko Literatur Itzultzaileen Mintegian aurkeztu nuen txostenaren bertsio hobetua-edo da. Esan beharrik ez da hobetze horretan zerikusi handia izan dutela txostenaren aurkezpenera azaldu ziren lagunek (mila esker, bene-benetan!). Euren iradokizunak artikuluan zehar barreiatuak aurkituko ditu irakurleak.

Mendebaleko idazleek, ordea, *ja* nahiago izan dute. Bestalde, gero eta indar handiagoa hartzen ari da, *Euskaldunon Egunkarian* batez ere, bien arteko erdibideko forma: *jada*.

- *dagoeneko*: mendebalean erabilia. Orainaldiko esaldietan agertzen da. Sarasolaren esanetan, “hitz egiten den mementurako aditzak adierazten duena gertatu dela jakinarazten du”.

Lasai, dagoeneko etxean da eta.

Askotan, zerbait espero edo uste zen baino lehenago gertatu dela adierazteko erabiltzen da.

Dagoeneko jaikita?

- *ordurako*: Lehenaldiko esaldietan agertzen da. Beraz, *Dagoeneko*-rekin distribuzio osagarrian dago.

Aireportura hiruretan iritsi nintzen, baina ordurako hegazkina aireratu zen.

- *gaurgero*: nafarrerazko hitza da, Leizarragaren adibide honetan ikusten den bezala.

Lo egizue gaurgero

Dena dela, *gaurgero*-k bestelako esanahiak ere baditu: “oraintxerako”, “berehala” eta “aurrerantzean”.

- *engoitik*: Nafarroa Beherean eta Zuberoan erabiltzen da. “Jada” edo “oraintxerako” esan nahi du.

- *honezkero*: Sarasolaren ustez, “hitz egiten den mementurako, dagokion aditzak adierazten duena gertatu bide edo uste dela jakinarazten du”. Euskaltzaindiaren iritiz ere supositiboa da edo inork, frogarik gabe, uste duenaren agergarria.

Hiltzeaz zegoen eta honezkero hil da(teke).

Dena dela, *honezkero*-k beste esanahi bat ere badu, *behin hontara ezker*-k duenaren parekoa.

Honezkero bota ezak.

1.2. Jarraipen-adberbioak

Hemen bi azpimota bereizi behar dira: ingelesez *scope modifiers* deritzenak (hau da, esaldi osoari eragiten diotenak), eta *focus modifiers* direlakoak (galdegaiari baino eragiten ez diotenak, alegia).


1.2.1. Esaldi osoaren modifikatzaileak:

- *oraindik*: orainaldiko esaldietan erabiltzen da.

Bazkaria oraindik ez dago prest.

- *artean*: lehenaldiko esaldietan.

Robertek, artean ume txikia zela, familia judu on baten semetxoaren fisionomia arras galdu zuen. (Mundu mingotsa, 55)



1.2.2. Galdegaiaren modifikatzaileak:

- Galdegaiaren konparazio-gradudun adjetiboa denean: *are, oraindik*.

Zu Mikel baino are gizenagoa zara.

Irlandarrak gu baino oraindik ere egoskorragoak dira.

- Galdegaiaren izena denean: *oraindik*.

Bai, behar zituen begiak erne atxiki, gogoan ase eta batatzeko laster areago ikusiko ez zuen irudi maitagarriaz. Oraindik lauzpabost aldiz, eztei-eguna heldu artean, eta gero gehiago ez noski. (Haur besoetakoa, 14-15)

Ohar gaitezen *oraindik*-en azken funtzio hau alemanezko eta txekierazko baliokideek ere betetzen dutela (*noch* eta *jest* adberbioek, hurrenez hurren). Euskaraz, ordea, *beste bat* nahiago izaten da horrelakoetan, *oraindik* aurrean ager dakiokelarik.

Hona oraindik beste bi adibide.

Beste-ren orde, konparatiboa erabil daiteke.

Hona oraindik bi adibide gehiago.

II. ZALANTZAK ETA BURUHAUSTEAK

Teoriak teoria, galdera asko datozkit burura:

- Lehenengo galdera: Egia da *dagoeneko* eta *oraindik* orainaldian baino ezin direla erabili? Aurkitu ditudan zenbait adibide aintzat harturik, behintzat, ez dirudi hala denik.

Atenaik galdua zuen lehentasuna dagoeneko, eta Alexanderik etzuen oraindik bere lehengo maila atzeman. (Zait Plat, 16)

oraindik ere besteek haren baitan jarritako itxaropenari amore ematera gertu zen. (Haur Besoetakoa, 6)

Hango mintzairaren nagusitasunak, ahultzen zihoalarik, iraun zuela oraindik.

eta botikari jaunak zerbait esan nahi izan zuen, gero esango zuenaz bestelako gauza bat, zeren esan baitzuen aste hartan ez zuela oraindik jaso. (Mundu mingotsa, 52)

Laugarren adibidean nik aurrena *artean* jarri eta zuzentzaileak aldatu egin zidan.

Zein da, beraz, irizpide zuzena?

Oraindik adberbioari dagokionez, badi-rudi idazleek eta itzultzaileek lehenaldiko perpausetan ere nahiago izaten dutela, efektu literarioaren mesedean.

- Bigarren galdera: *Jadanik*-en erabilera. Nik bezainbestetan erabiltzen al dute beste itzultzaileek? Noiz nahiago izaten da *dagoeneko* eta noiz *jadanik*? Esan ote liteke zenbaitek, *jadanik*-ek adierazitakoa adierazteko, absolutibo-marka eransten diotela partizipioari, aditza iraganaldi burutuan dagoenean? (Hala balitz, berdintsuak lirarteke *jadanik irakurri dut* eta *irakurria dut*, edota *irakurria daukat*).

Ikus dezagun Javi Cilleroren adibide bat:

Alabaina, jadanik beranduegi zen. (Psikosia, 10)

Adibide honetan, kasu, itzultzaileak *jadanik* hautatu badu ere, berdinean erabil al zitzakeen *ordurako*, *honezkeroko*, *dagoeneko*, edo, aukeran, "alabaina, beranduegi zen" besterik gabe jarri?

Jadanik aldaketa-adberbio "unibertsala" izanda ere, batzuetan ezin da erabili, hala nola zenbait aditzek orainaldiko forma trinkoa dutenean.

* *Jadanik dator autobusa.*

Honelakoetan, aditzari *ba* klitikoaren erantsi behar zaio.

Badator autobusa.

Hala eta guztiz ere, ez dirudi lege hori aditz trinko guztietarako eraginkorra denik, zeren ondoko perpausa guztiz onargarria baita:

Jadanik eserita gaude.

• Hirugarren galdera: *Honezkero* erabiltzen denean, zein denboratan jarri behar da aditza? (*honezkero jaikita dago / egongo da; honezkero heldu da / helduko zen*). *Egongo da / helduko zen* aditzen bidez ez al dugu adierazten *honezkero*-k duen suposizio-fiabardura hori? Ez ote da erredundantea bi estrategia horiek batera erabiltzea? Antza denez, eta tradizioari begiratuz gero, badirudi ezetz, *Kresala*-tik ateratako bi adibideok lekuko.

Ja, jaii... Tira, tira, goazen arin, onezkero estropadia asiko zan da.

Berrogetamar urte inguru eukiko dozuz onezkero.

• Laugarren galdera: Baliokideak dira *artean* eta *artean ere*?

Artian ere uste zun orrek/bere buruban zeukala. (JanEdII, 88)

Badira zenbait itzultzaile *artean ere* erabiltzeko joera ia sistematikoa dutenak.

Ile beltza eta betiko hazpegiak artean ere ezagunak zituen, baina irribarrea itzalita zeukan. (Psikosia, 28)

Dirua eskularruen gordailuan zegoen, artean ere goma lodiaz lotutako kartazal handian. (Psikosia, 32)

Honenbestez, argitu beharra dago *artean* eta *artean ere*-ren artean alderik ote dagoen, hau da, testuinguru berberetan bata zein bestea erabil daitezkeen.

Hitz batez esanda, premiazkoa iruditzen zait adberbio hauen guztien distribuzioa zehaztea, euskal itzultzaileon hobe beharrez. Hasieran esan bezala, erabaki behar da testuinguru bakoitzean beste hizkuntzen aldaketa- edo jarraipen-adberbioak nola euskaratu, eta itxuraz behintzat, baliteke batzuetan itzuli gabe utzi behar izatea. Esaterako, perpaus menperatuaren aditzak *-nerako* erantsita daukanean, perpaus nagusiaren aldaketa-adberbioa euskaratu gabe utzi ohi dugu, eta aski da partizipioari absolutibo-marka atxikitzea.

Aireportura iritsi nintzenerako, hegazkina aireratua zen.

Zilegi da aurreko adibidean aldaketa-adberbiorik jartzea? Zilegi ezezik, egoki ere?

III. JOSEF SKVORECKYREN MUNDU MINGOTSA: ESTADISTIKA TTIKI BAT.

Nire azken itzulpena aztertu, eta hona hemen topatutako adberbioen maiztasuna:

- *jadanik*: 15 aldiz.
- *dagoeneko*: 2 aldiz.
- *ordurako*: 5 aldiz.
- *honezkero*: behin ere ez.
- *oraindik*: 9 aldiz.
- *artean*: 17 aldiz.

Estatistika honi begira, hauexek dira atera ditudan ondorioak:

a) *jadanik* eta *artean* dira gehien agertzen direnak: *jadanik*, "unibertsala" izateagatik (zailagoa da horrela huts egitea), eta *artean*, kontakizunak lehenaldian daudelako.



b) *jadanik* eta *dagoeneko* guzti-guztiak errespetatu dizkit zuzentzaileak. Ezin, ordea, gauza bera esan *artean*-i buruz: nik 24 aldiz erabili dut; zuzentzaileak 17 aldiz utzi du bere hartan, eta gainerakoetan, edo besterik gabe kendu (5 aldiz) edo ordezkatu egin du, *oraindik* edo *ordurako* jarritz. Beraz, dudarik ez dago *artean* dela gaizkien erabiltzen dudan adberbioa.

Adibideak aztertu ondoren, esango nuke zuzentzaileak irizpide finko bat darabilela *artean* kentzeko: aurrean denborazko osagarri bat egotea, dela nominala, dela orazionala. Izan ere, trakets gertatzen da euskaraz sintagma gehiegi pilatzea, batez ere lekuzkoak badira¹. Beraz, *artean* hori axalekoa edo erredundantea denean, hobe dugu kentzea.

Bestalde, badirudi *artean*, "adina" aipatzen den esaldietan erabiltzen dela gehien bat (adina bainoago, haurtzaro edo gaztaroa). Eta askotan, denborazko perpaus batean kokaturik.

Lehen, artean neskatxa txikia nintzela, ez zitzaidaan hain gogorra iruditzen. (Mundu mingotsa, 128)

c) *honezker*o deserrira bidaltzen dut nire itzulpen gehienetan. Psikoanalistarengana jo beharko dut *honezkerofobia* hau senda diezadan.

IV. ERANSKINA (ADIBIDEAK)

4.1. Hauta-lanerarko euskal hiztegia

Jadanik (613. or.)

noiz. *adlag.* (1617). *Gaur arte ipar.* Dagoeneko (orainaldian); ordurako (lehenaldian). *Jadanik etorria da? Ez ezazula galde jadanik eman duzuna...*

Oraindik (883. or.)

adlag. Aipaturiko unean egintza edo egoera batek bere hartan dirauela adierazten duen adizlaguna. *Hasieran gaude oraindik. Hango mintzairaren nagusitasunak, ahultzen ziholarik, irauin zuela oraindik.*

4.2. Orotariko hiztegia

Dagoeneko:

ya, para ahora; para entonces. Documentado en Larramendi y en textos meridionales a partir de fines del s. XIX. *Dagoeneko jan ditu hiru oilazko. Dagoeneko egin du ori. Dagoeneko etorri zera. Ama-seeak izerditan zeuden dabaneko* (Ugalde, Iltz 33). *Artean gaiztakeriarik egin gabea, eta dagoeneko zigo-*

1. Halako zerbait gertatzen da aposizio kontuetan ere.

rra buru-gaiñean? Vill Jaink 99. *Atenaik galdua zuen lehentasuna dagoeneko, eta Alexanderik etzuen oraindik bere lehengo maila atzeman.* (Zait Plat 16)

Artean (738-745. or.)

4. Mientras tanto; hasta entonces; todavía. Cf. Ond Bac: "Artian, entonces, aún. *Artian sekuria zon*, entonces había (aún) sequía". *Artean gaztetxo zala, bere aitarekin joan zan batzarre artara. Artean illun zegoalako. Bi santuak etzuten artian alkar ezagutzen. Ni artian umetxoa nintzan ta*

4.3. Elhuyar hiztegia

Dagoeneko (139. or.)

Artean gaiztakeria egin gabea eta dagoeneko zigorra buruan du

Jadanik (347. or.)

jadanik bere azken egunetara ailegatua zelarrik

jadanik etorri al da?

Ordurako (484. or.)

Ordurako, gainera, atzerakorik ez duen pausoa emana zegoen

Ya (693. or.)

· Ba-
zure ahizpa badator (ya viene tu hermana)

etorri da (ya ha venido)

damutuko zaizu! (ya te arrepentirás!)

· Jadanik, jada, ja

Jadanik ez da hemen bizi (ya no vive aquí)

Jadanik mintzatu naiz gai horretaz (ya he hablado anteriormente de este tema)

Hori ez da jada erabiltzen (eso ya no se usa)

· dagoeneko (daborduko):

dagoeneko jaikita?

Lasai!, dagoeneko etxean da eta.

· honezkero (suposizioetan erabiltzeko):

honezkero zure anaia etxean izango da (etxean da/etxean dateke)

honezkero iritsiko zen (iritsi da/iritsia izan behar du) Parisa

honezkero irakurriko zenituen egunkariak, ezta?

honezkero ez da etorriko (ya no vendrá)

· ordurako

hamabiak ziren eta ordurako iritsia izango zela pentsatu nuen (eran las doce y pensé que ya habría llegado)

Atea zabaltzen saiatu nintzen, baina hark ordurako sarraila itxia zuen. ordurako (lehenaldian erabiltzeko)

daborduko (B) (139. or.)

para ahora, para entonces; tan pronto; ya (más pronto de los que era de prever):

Hasi zaigu daborduko tentelkeriaren ezau-garriak ematen (ya ha empezado a darnos muestras de su insustancialidad)

oraindik (ere) (482. or.)

oraindik ez da etorri

badira abereak oraindik gutxiago bizi direnak

hona oraindik beste adibide bat

oraindik gehiago.

oraindino (B) (482. or.)

todavía, aún. Oraino (ipar.); todavía, aún
artean (53. or.):

1/ hasta 2/ todavía; mientras tanto; hasta entonces

artean lehortean zen (todavía duraba la sequía)

orain 20 urte, artean ez zinen jaió, Pariserara joan ginen (hace 20 años, cuando todavía no habías nacido, fuimos a París).

4.4. Euskaldunon Egunkaria

Badira jadanik pare bat hilabete ligan jokatu ez duela. 97-1-17 (23. or.)

Nahiko ohituta gaude dagoeneko. (J. Murguruza) 97-1-16 (3. or.)

** ETBn hasi ziren, gero TVEn... Jada zazpi urte telebistan eta bi mila programa. (I. Basterretxea) 97-1-17 (17. or.)*

** Jada 9 programa egin ditugu. (K. Argiñano)*

4.5. Haur Besoetakoa

Jadanik:

Bat zekusan jadanik, begiak barruko aldeira inguratzen zituen aldika. (5. or.)

kontsolaturik zegoen jadanik. (44. or.)

eta hau lo-gelan sartzen zeneko, ohean zegoen jadanik. (62. or.)

Oraindik:

oraindik ere besteek haren baitan jarritako itxaropenari amore ematera gertu zen. (6. or.)

oraindik ez zekien ordea zer nahi zuen haren bihotzak. (7. or.)

Bai, behar zituen begiak erne atxiki, gogo ase eta batatzeko laster areago ikusiko ez zuen irudi maitagarriaz. Oraindik lauzpabost aldiz, eztei-eguna heldu artean, eta gero gehiago ez noski. (14.-15. or.)

Dagoeneko:

Hura lo zegoen noski dagoeneko. (24. or.)

Lotua zegoen dagoeneko. Ez! beranduegi zen oraindik. (34. or.)

egun bat eta erdi ba ziren dagoeneko alaba besoetakoari gauazko ikustaldirik ez ziola egin. (49. or.)

4.6. Psikosia

Alabaina, jadanik beranduegi zen. (10. or.)

Ile beltza eta betiko hazpegiak artean ere ezagunak zituen, baina irribarrea itzalita zeukan. (28. or.)

Dirua eskularruen gordailuan zegoen, artean ere goma lodiaz lotutako kartazal handian. (32. or.)


4.7. Mundu Mingotsa

Jadanik:

Aita eta biok haren enkontrura joaten ginen, eta gehienetan hiritik aski urruti aur-

kitzen genuen, jadanik iluna zenean, eta berak erreflektoreen argitan aise ezagutzen gintuen beti. (11. or.)

—Hori ezberdina duk. Lanbide zintzoa duk hori —eta barre egin zidan, eta barrez txapaka egin zion izebari bizkarrean, eta izebak ere barre txiki bat egin zuen, eta ni jadanik ez nintzen beldur, jaun hura barrez ari zela ikusita. (19. or.)



Mediku jauna luzaro izan zen ezteibidaian, eta itzuli zenean ez zen jadanik lancia zaharrean ibiltzen, buick beltz batean baizik. (31. or.)

bazekien jadanik ez zuela eskubiderik nire osasun egoeraz galdetzeko. (34. or.)

Behin, plazako izkinan, Vladyka jauna topatu nuen: gure banketxeko enplegatua aurrena, aita kontzentrazio-esparrura bidali zutenean goi kargu batera iritsi zen, eta jadanik garai hartan treuhänder gisa egiten zuen lan Ohrenzug jaunaren errentako etxeetan. (50.-51. or.)

Udaberriko egun batean Robert Pixalöbl anaiaren txaletera aldatu zen, zeren bere etxaldea jadanik ez baitzuen bere etxalde (69. or.)

Baina hemen jadanik baliteke kondaira soila hastea, mitoa. (78. or.)

Memoriak huts egiten ez badit, jadanik ez zegoen adiskidantzarik Tilda eta Alizia Abelesen artean. (84. or.)

Horrenbestez, Sararen mendekutik giza malko hutsak gelditu ziren, agian Auschwitzeko amek inoiz isuri zituzten malkorik gizatiarrenak. Ez ziren jadanik ama-senaren malkoak, baizik eta giza gupidarrenak. (97. or.)

Eta nik banekian han hilgo nindutela. Agian ez han, baina hara iristean, jadanik neureak egin balu bezala zuan. (107. or.)

Ibilbidea luzatzearen, burdindegitik igarozen: erakusleihoan birringailu txikiak eta oregailuak zeuden, jendeak oraindik behar izan zitzakeen gauzak, jendeak agian, baina berak jadanik ez. (107. or.)

Neskak hamabost urte zituen, eta jadanik barre eragiten zion Antonín Xinták-ek era guztietako iturgintza lanak egiteak. (108. or.)

baina nik ez nian haiengandik ezer nahi, sarrailginarengandik eta jostunarengandik jadanik ezer ez. (128. or.)

Ahamen txikiak eginez jan ninan, gero eta ahamen txikiagoak, ahamen ezin ñimiñoagoak, eta purea ez zunan gutxitzen, denak jadanik prest zeudenan eta Quido Pickek, ni amorratzearen, danga-danga edaten

zinan te hotza mahai gaineko kristalezko pitxarretik. (144. or.)

—*Hura Terezinen utzi ere ez zuten egin. Beste norabait eraman zuten berehala, Auschwitzena. Jadanik oso zaharra zen.* (156. or.)

Dagoeneko

Nor zen Rebeka? Hiri handietan dauden neska horietakoa zen. ("zen"? Dagoeneko ez "da"?). (86. or.)

—*Historia teologikoa dun —esan nuen—. Eta gaur egun dagoeneko erlijioak behera egin din eta jende askok ez din Jainkoa sinesten.* (133. or.)

Artean:

a) zuzentzaileak errespetatutakoak:

Gero Strass mediku jaunak hitz egin zuen, eta nik banekien larri nengoela zioela, eta gurasoei baimena eskatzen ziela azken erre-medio bat, artean frogatu gabea, erabili ahal izateko. (29. or.)

Eguzkiak tabernako leihoa argitzen zuenez gero, sudurra beiraren kontra estutu behar izan nuen, artean txikia nintzela plazako kafetxean egin ohiko nuen bezala. (32.-33. or.)

Muinoan zegoen jauregiko dorrearen gainean, zeru urdin ilunean, oskorri argitsuak distira egiten zuen malko baten antzo, eta, artean zorabiatuak nengoela, plazan barrera etxeratzen nintzen. (43.-44. or.)

Robertek, artean ume txikia zela, familia judu on baten semetxoaren fisionomia arras galdu zuen, (55. or.)

"Ach, die Tilde" fidatu zion behin, artean gerra hasi gabea zela, Rittenbach andre zaharrak nire amari (79.-80. or.)

Garai hartan emakumeak ez ziren artean eritexetean erditzen. (94. or.)

Ez dakit nola sentitzen zen Sara, nola imaginatu zuen kontua, nola sinestarazi zion bere buruari hobeto sentituko zela, poza ere sentituko zuela, mendekuaren plazerra, inon, garai hartan artean ezezagunak ziren izuaren lurraldeetan, umea hartuko ziotenean. (94.-95. or.)

Baina aitak larunbat goiz hartan artean ez zekien. (107. or.)

Aringarri bakarra zera nian, neure artean egitea ez zizkidatela urrezko hortzak kenduko, artean ez neukalako bat ere. (107. or.)

»*Eta honenbestez afera guztia hutsean gelditu zunan. Ni artean Labsky sendagilearengana joan nindunan arratsalde hartarako aitzakia baten bila* (122. or.)

Hik, motel, ez dakik zer den udaberrian Prahako kale batean barrena ibiltzea, udaberriko egun batean, artean inork lan egin ez eta denek auskalo zer pentsatzen zutenean. (127. or.)

Lehen, artean neskatxa txikia nintzela, ez zitzaidan hain gogorra iruditzen. (128. or.)

—*Ez haserretu —esan zuen, artean atean zegoela—* (155. or.)

Orduan ohartu nintzen muturretik agertzen zen buztana, motel baina, artean bere indarrez mugitzen ari zela. (162. or.)

Baina ni artean begira nengoen. (163. or.)

Artean ere lehian ari ziren katuarrainak
(163. or.)

b) zuzentzaileak besterik gabe kendutakoak:

Denbora batez artean temati segitu zuen aitonak, eta gero bat-batean ezkontza izan zen. (16. or.: Denbora batez temati segitu zuen aitonak...)

beroak urtu ninduen mediku jauna zuka ari zitzaidala konturatu nintzenean, nahiz harekin azkenengoz mintzatu nintzenean artean hika egiten zidan (34. or.: ... mintzatu nintzenean hika egin zidan)

Gure neskame zaharrak eraman ninduen etxera, aje izugarria nuela. Eta artean gaua zela, ohean erdi-lo nengoela, damatxo haren barre ozena eta Txakurremelöblek, barraren orde, eragiten zituen soinu kirrinkariak entzun nituen neure baitan. (61. or.: Eta gauean, ohean...)


Nik garai hartan artean ongi ere ez nekian; artean oso neskatxa tentela ninduan horretarako, (129. or.: Nik garai hartan ongi...)

Ni gizonito memela, zeharo tontolapikoa nintzenean, eta artean edonon zegoenean... Kontatuko dinat? Nahi dun?" (132.-133. or.: eta edonon...)

c) zuzentzaileak aldatutakoak:

eta botikari jaunak zerbait esan nahi izan zuen, gero esango zuenaz bestelako gauza bat, zeren esan baitzuen aste hartan ez zuela artean jaso (52. or.: ez zuela oraindik jaso).

Eta hara non Quido atzealdean gelditzen den, nirekin; ez ordea, nik susmatzen nuen bezala, kristau-fede estuaren gurutzeta eramaten laguntzeko, baizik eta bere judu-lo-sintxaz galdetzeko ea artean ondoezik ote nengoen. (147. or.: ea ordurako ondoezik ote nengoen)



V. BIBLIOGRAFIA

a) bibliografia berezitua:

Elhuyar. *Elhuyar hiztegia*, Usurbil, 1996.

Euskaltzaindia. *Euskal gramatika: Lehen urratsak-1*, 1985.

MITXELENA, Koldo. *Orotariko hiztegia*.

SARASOLA, Ibon. *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, CAP, Donostia.

b) adibideen bibliografia:

AGIRRE, Txomin. *Kresala*

BLOCH, Robert. *Psikosia* (itzult: Javi Cillero), Elkar, Donostia, 1996.

MIRANDE, Jon. *Haur besoetakoa*, Hordago, Donostia, 1983.

SKVORECKY, Josef. *Mundu mingotsa*, Alberdania, Irun, 1996.

Euskaldunon Egunkaria

Itzultzailea, ugazaba biren morroia

K. DEL OLMO

Segituan doazen aipuak Dámaso López Garcíaek editore gisa paraturiko “Teorías de la Traducción. Antología de textos”¹ liburutik jaso eta itzuli dira. Zertan esanik ez dago, jakina, aipu horietako batzuk, itzulpenen itzulpenak baino ez dira. Guztiagaz ere, aipu sorta xume bat baino osatu gura izan ez denez gero, badoaz irakurleak lar berdetuko ez direlakoan.

“Historialariak nola dakarren gaurko egun beti iheskorrera inoiz bizirik egondako hura, horrelaxe ateratzen die itzultzaileak *hizkuntza hilei* bizi lekukotasuna, hizkuntza horiek, adituen ingurutik kanpo, neurri batean, itzulpenerako baino *ez direla bizi* adierazten duen lekukotasuna” Dámaso López García *Itzulpengintzaren teoriak. Testu antologia*

“Itzultzailea, Itun Berriak dioenez, ahalmen berezien dohaina duen laguna da eta, horrelakoxea izateagatik, halako ezinegon moduko bat sortzen du, lagun bakan batzuenak baino ez diren isilpeko gauza gordeen jabetzak sortu ohi duen ezinegona” Dámaso López García *Itzulpengintzaren teoriak. Testu antologia*

1. Teorías de la Traducción. Antología de textos. Dámaso López García. Escuela de Traductores de Toledo. Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha. 1996. Cuenca.

“Haien esaldiak espero legez itzultzea lortzen badut, hau da, horien ederrak, esanak eta irudiak agerian jarrita, eta gauzen hurrenkerari ez ezik, hitzenei ere eusten badiet, gure esateko modutik urruntzen ez diren neurrian, (grekotik zehazki itzulita egon ez arren, saiatuko naiz, ordea, baliokideak aurkitzen) izango dituzte arau eta eredu estilo atikoa imitatu nahi dutenek” **Marko Tulio Zizeron** *Hizlari motarik bikaienaren gainean*

“Ez nion egoki iritzi hitzez hitz itzultzeari, hitz guztien egokia eta indarra gordetzeari baino. Eta horrela, ez nuen neure burua behartu irakurleari eleak banan-banan konstatzera, baizik eta, zelan edo alan esatearren, berba horiek ondo neurtuta ematera” **Marko Tulio Zizeron** *Hizlari motarik bikanienaren gainean*

“Honaino berba egin dut zorioneko gutunean zer edo zer aldatu izan banu eta itzulpen horrek hutsak balitu legez, eta horrelakorik izanda ere, hutsa baino ez bailitzateke, ezen ez delitua” **San Jeronimo** *Pammaquiori gutuna, itzultzeko modurik onenaren gainean*

“Grekoak itzultzean ez dut ematen berba berbaren truke, esangura esanguraren ordainean baino” **San Jeronimo** *Pammaquiori gutuna, itzultzeko modurik onenaren gainean*

“Ez hadi saia ordaintzen, interpretari peto hori, hitzaz hitzari” **Horazio** *Ars poetica*

“Denon ahotan dabil: Poesia ezin da itzuli eta ezin liteke itzulpenik izan. Itzultzerakoan forma poetikoa hautsien da eta metroa ezeztatu; edertasuna desagertzen da eta sentipenarekikoa galdu. Prosaz ez da beste horrenbeste jazotzen” *al-Yahiz Animalien liburua*

“Itzuli nahi duen egilea bera bezain adierazkorra izan behar du itzultzaileak eta hark beste jakin. Komeni da sorburu hizkuntza eta xede hizkuntza ondo baino hobeto ezagutzea, bietan berdin eman ahal izateko (...) Hala ere, nekez aurkituko da itzultzailearik halako jakintsuen parean egongo denik” *al-Yahiz Animalien liburua*

“Itzultzaileek bi itzul jokabide dituzte: (Bigarrena) Esaldia irakurri eta ulertzean datza. Gero esaldi baliokideaz itzultzen da, hitzak baliokideak ala desberdinak izan daitezkeela. Jokabide hori bikaina da” **Slah al-Din al-Safadi**. *al-Gayt al-musayyam fisarh lamiyat al-`agam*

“Ondo baino hobeto dakit zelako tre-bezia, neke, sen eta adimena eskatzen dituen ondo itzultzeak” **Lutero** *Itzultzeko artearen gaineko gutuna*

“Ez diet eragotziko nahi duten moduan itzultzea, baina nik ez dut itzuli gura euren modura, neurera baino. Eta nire itzulpenarekin bat ez datorrenak, itzulpena utz dezala niretzat eta berarentzat gorde gaitziritziok, inondik inora ez diet-eta ezelako jaramonik egingo” **Lutero** *Itzultzeko artearen gaineko gutuna*

“Esangurari baino begiratzen ez dioten bertsioetan, interpretazioak libroa behar du. (...) Hizkuntza baten irudi eta eskema guztiak ez dira beste hizkuntzan adierazi behar eta, are gutxiago, hizkuntza horrek bere-bere duen hori. Alferrik saiatu naiz ulertzen zertan datorren barbarismoa edo solezismoa onartzea jatorrizkoaren esangura beste horrenbeste berbez eman gura hutsaren hurrengo hori dela bitarte” **Juan Luis Vives** *Bertsioak eta interpretazioak*

“Ahal izanez gero, jatorrizkoarekin borroka zaitetz eta bihur iezazioz jaso zenuen baino berbakune hobea” **Juan Luis Vives** *Bertsioak eta interpretazioak*

“Poesia interpretatu behar da prosa baino askeago, erritmoaren mugakizunak direla kausa. Poesian zilegi da eranstea eta kentzea eta aldatzea, eta ezelako oztopo barik, pentsamendu poetikoaren osotasuna bera kaltetu ezik” **Juan Luis Vives** *Bertsioak eta interpretazioak*

“Baina, zer esango dut harako batzuen gainean, egokiago daukate-eta traidore izena traduktorea baino?, ikusirik traizioa egiten dietela ezagutzera eman gura omen dituztenei, gloria osten dietenetik, eta modu berean liluratzen dituztela irakurle jakinezak, zuria beltz erakutsita: zelan edo alan eta jakintsu deitura lortzearren itzultzen dituzte osagairik txikerrenetan ere menperatzen ez dituzten hizkuntzak” **Joachim du Bellay** *Hizkuntza frantsesaren defentsa eta ilustrazioa*

“Nork ere nahi duen lan baliotsua sortu bere hizkuntza bulgarrean, utz diezaiela itzulpengintza batez ere poetei, hauek ondo merezituta pagutzat eroango dute-eta osparean orde z nekea jardun nekagarri eta probetxu urriko –gauzaez eta kaltegarrian ere esango nuke– horretan, beren berbeta ospetsu egitearren” **Joachim du Bellay** *Hizkuntza frantsesaren defentsa eta ilustrazioa*

“Zuei, itzultzen baino besterik ez diharduzuenoi, itaunduko dizuet: egile itsaltsu-itsaltu horiek itzultzen jardun balute, eroango ete zuketzen beren berbakunea egun egiazta ditzakegun bikaintasun eta gorentasuneraino? Ez ezazue pentsa, beraz, gura beste presu eta antzatsu jarduntzen baduzue ere zere-

ginean, inondik inora lortuko duzuenik gure berbeta, lurrean datzala, burua jaso eta zutunik jartzetik ere” **Joachim du Bellay** *Hizkuntza frantsesaren defentsa eta ilustrazioa*

“(…) eta lortu nahi izan nuen interpretazio hori bat etortzea jatorrizkoarekin, esakune eta berbetan ez ezik, horien joskuran eta airean ere, irudiak eta esateko moduak ahalik eta gehien gure berbakuntzari hurbiltzearren (…). Hortik baliteke bateon batzuk halako pozik ez egotea eta iruditzea hainbat zatitan arrazioia labur gelditzen dela eta oso euskaldunen erara esanda dagoela eta modu zaharkituan eta esanaren hariak ez duela korritzen” **Fray Luis de León** *Salomonen kanten liburuaren hitzez hitzeko itzulpen eta adierazpena*

“Itzultzaileak fidela eta zentzuzkoa behar du eta, ahal dela, berbak neurtu beste horrenbeste emateko, eta ez gehiago edo gutxiago, eta jatorrizkoek dituzten kualitate eta nolakotasun eta esangura aniztasun berberekoak, norberaren ulkerera eta iritzietara mugatu barik, itzulpenaren irakurleek jatorrizkoa irakurrita bereganatuko luketen esangura sorta oso bera uler dezaten, horrela, aske izanik, eurek eurenez ondoen iritzitakoa aukeratzeko” **Fray Luis de León** *Salomonen kanten liburuaren hitzez hitzeko itzulpen eta adierazpena*

“(…); kendu ziola bere jatorrizko balioetik asko, eta berdin egingo dute ahapaldiz paraturiko liburuak beste hizkuntzaren batera itzuli nahi dutenek, ahal besteko kontu eta trebezia handiak jarri eta erakutsiatik ere, inoiz ez dute-eta helduko ahapaldiok jaiotzerakoan zuten puntua” **Cervantes** *On Kixote*

“Baina horregaz guztiagaz baderitzat berbetatik berbetara itzultzea, ez bada hizkuntzen erreginetatik, grekeratik eta latinetik, badela flamenkoen tapizak iruntzetara begiratzearen pare, irudiak ikusten diren arren, iluntzen dituzten hariz beterik baino ez dela izaten, eta ez dira ikusten aurrealdearen leuntasunez eta itxuraz horniturik; eta berbakuntza errazetatik itzultzeak ez du erakusten ez sormenik ez jariorik, erakusten paperetik paperera itzultzen eta kopiatzen duenak ere erakusten ez duen moduan” **Cervantes** *On Kixote*

“Eta hori dela bitarte ez dut ondorioztatu gura ez dela goratzekoa itzulpengintza, zeregin txarragoetan eta onura txikiagokotan ere jardun bailezake gizakiak” **Cervantes** *On Kixote*

“Zereginari (itzultzeari) ekin nion denbora pasatzearen, (...) eta ase nago ondo igaroagaz. Baina zerbitzua ere egin gura izan dut, horrela, ordain gisa eskerrak ematen dizkidatenean, hutsak barka diezazkidaten” **João Franco Barreto** *Eneida portugesa, “Atarikoak”*

“(.): prosan bertan ere ezin da hitzez hitz itzuli. Horri baino begira ez dagoenak dena hondatuko du (...)” **João Franco Barreto** *Eneida portugesa, “Atarikoak”*

“Idazle bat imitatzeak aukera ezin hobekak ematen ditu itzulzailearen trebezia dirdira dadin, baina hildakoen oroimenari eta itzalari egin dakiekeen irainik larriena da” **John Dryden** *Ovidioren “Epistolak” liburuaren itzulpenaren “Atarikoak”*

“Inork ez dauka poesia itzultzerik arte horretan jeinua ez ezik, egilearen hizkuntzan eta berean maisu trebatua ere izan ezik” **John**

Dryden *Ovidioren “Epistolak” liburuaren itzulpenaren “Atarikoak”*

“Egilearen zentzua, oro har, sakratutzat eta bortxazinekotzat jo behar da (...) Bi egokieratan baino ezin dira gogoeta horiek zalantzan jarri: iritziak nabarmenki ezdeus edo zuzengabeak izatekotan; erantzun bakarrak balioko luke bietarako: ez lirateke itzuli beharko” **John Dryden** *Ovidioren “Epistolak” liburuaren itzulpenaren “Atarikoak”*

“Poesia hain da espiritu antzemangaitza, non hizkuntza batetik bestera isurtzean lurrintzen baita eta espiritu berririk eransten ez bazaio bihurtetan, ez da *caput mortuum* besterik geratuko” **John Denham** *“Eneida”ren bigarren liburuaren itzulpenaren “Atarikoak”*

“Itzulpena areago dagokio gogoeten mui-nari, arduratsua da pentsamenduok hizkuntza berriari egokien den moduan aurkezteaz eta esamoldeetan menperatuago daukate hizkuntza horretako esaunda eta esarek” **Alenbert & Diderot** *Entziklopedia edo zientzia, arte eta ofizioen hiztegi arrazoitua*

“Izan ere, ez dago gauza zailagorik eta bakanagorik ‘itzulpen’ bikaina baino, ezer ez da eta zailagoa eta bakanagoa iruzkinaren lizentziaren eta letrarekiko morrontzaren arteko erdigune orekatua aurkitzea baino” **Alenbert & Diderot** *Entziklopedia edo zientzia, arte eta zereginen hiztegi arrazoitua*

“Itzulzaile ona jatorrizkoarekin lehiatzekotan balebil eta horren aurrean porrot egin da geratu barik eta bere herrikideen aurrean ilun eta arrotz agertu nahi ez balu, derrigor-tuta egongo da, zelan edo alatan, bere hizkuntza bortxatuzera, horrek jakin dezan bere indarrak zenbaterainokoak diren, seduzitu egin

beharko du zorrozki aurreiritzirik irrazionalen aurka borrokatzeko, berbeta hori atzerriko hizkuntzetara gertura dadin eta, horrela, elkar hartu eta adosteko modu batzuk asma ditzan, eta itzultzaileak aberastu beharko du esamolde eta esaldiz desitxuratu edo kalterik emateke” Melchioro Cesarotti *Hizkuntzaren filosofiaren gaineko entsegua*

“Itzultzailearen hizkera ezein gimnasia ariketa egiteko trebaturiko atleta da, gorputz atal guztiei etekina ateratzen baitaki, hain dagoelarik prestu higidurarik bitxienerako ere, non berezkoena ez ezik, egin daitekeen higidura bakarra dela ematea ere lortzen baitu” Melchioro Cesarotti *Hizkuntzaren filosofiaren gaineko entsegua*

“Itzultzaileek eta atzerritarren imitatzaileek zapaldu dute gehien arbasoen hizkuntza. Ama hizkuntza ez dakitenez gero, ez dutelako ondo ikasteko nekerik hartu, jatorrizkoan edertasunen bat aurkitzerakoan, atzerriko esamoldeak metatuko dituzte” José Cadalso *Gutun marokiarrak*

“Itzulpenetan harmonia desitxuratzen da (...) Hiztegiak bizitzarik gabeko eleak baino ez dituzte erakusten. Beraz, esangurari lotzearren, nire hitzei bizia emateko lanari eusten diot, jatorrizkoaren gogoeta osagarriak eta harmonia lagun” Ugo Foscolo *Itzultzailearen asmoa*

“Ez da itzulpena terminoak baino esangura zehaztu behar handiagorik izan duen barbarik” Giovanni Carmignani *Itzulpenaren gainean*

“Letren errepublikan hitzez hitzeko bertsioa eta itzulpen askea ama beraren alabatzat jo zitezkeen, ahizpa onen antzera jokatzen dutela, aurpegiz desberdinak direla onar-



tuta, baina ez elkar sasikotzat jotzeraino. Hala ere, jaiotzeaz bateratsu ekin zioten elkarren aurkako borroka basati bati. Hitzez hitzeko bertsioak legezko jaiotzaren eskubideak eskatu zituen itzulpen askearen aurka, jaiotza horretaz desjabetu nahi zuela arerioa” Giovanni Carmignani *Itzulpenaren gainean*

“Zein arauk lagun diezaguke zehazten non amaitzen den hitzez hitzeko bertsioa, non hasten itzulpen-itzulpena eta non uzten dion honek bere tokia imitazioari? Giovanni Carmignani *Itzulpenaren gainean*

“Prosaren itzultzailea esklabua da; bertsoaren itzultzailea arerioa” V. A. Yukovski *Fableari eta Krylov-en fableei buruz*

“Fablea deuseztatzen da hitzez hitzeko tradukzioez” V. A. Yukovski *Fableari eta Krylov-en fableei buruz*

“Eta ez badauzka ez sentimenduak, ezta imitatu nahi duen poetaren asmamena ere,

zer izango da bere itzulpena? Jatorrizko preziatu baten karikatura ezaina” V. A. **Yukovski** *Fableari eta Krylov-en fableei buruz*

“Eragin nahi diren aldren iritziz, itzulpenik errazena beti izango da onena. Jatorrizkoarekin berarekin lehiatzen diren itzulpen kritikoak, azken buruan, jakintsuen denborapasa baino ez dira” **Johann Wolfgang von Goethe** *Poesia eta egia*

“Badira bi maxima itzulpengintzan: batetik lortu nahi du egile arrotza gugana erakartzea, gutar hartzeraino; besteak, aldiz, eskatuko digu arrotzera joan eta hango baldintzetara, hizkuntzaren moduetara eta berezitasunetara moldatzeko” **Johann Wolfgang von Goethe** *Wielanden gaineko anaiaitar gogorapena*

“Sentitzen dugunean hitz berek, geuk esanda, esangura erabat desberdina izango luketela edo, behintzat, zentzu trinkoago bat eta, bestetuzetan, besteren ahoan baino delikatuagoren bat, eta bestek esan nahi duena adierazteko bestelako hitz eta esamoldeak erabiliko genituzkeela, orduan badirudi ezen gu geu, sentipen hori zertan den zehazterakoan eta geure gogoeta bihurtzerakoan, itzultzen ari garela” **Friedrich Schleiermacher** *Itzulbide diferenteen gainean*

“Haboro ere, noizean behin, nork bere buruaren hitzak ere itzuli behar ditugu benetan geure-geure bihurtu nahi izanez gero berriro” **Friedrich Schleiermacher** *Itzulbide diferenteen gainean*

“Parafraasia gehiagotan erabiltzen da zientzien alorrean; imitazioa areago artean; eta denok onartzen dugun arren artelanak, parafraaseratzerakoan, tonua, dirdira eta arte edukia galtzen dituela, oraindikarrenean

segur aski inor ez da halako zozoa izan zientzi maisulan bat edukia nahierara landuta imitatzen saiatzerainokoa” **Friedrich Schleiermacher** *Itzulbide diferenteen gainean*

“Nire iritziz bi bide baino ez daude: edo itzultzaileak idazlea ahalik eta lasaien uzten du eta irakurlea horrengana hurbilazten; edo ahalik eta askeen uzten irakurlea, idazlea honengana hurbilazten duela” **Friedrich Schleiermacher** *Itzulbide diferenteen gainean*

“Esan ere liteke itzulpenak zenbat eta fidelago izan nahi duen, orduan eta zehazgabeagoa izango dela” **Wilhelm von Humboldt** *Eskiloren Agamenonen itzulpen metrikoaren sarrera*

“Itzulpena, eta bereziki poetena, ezin literaturaren zereginik ezinbestekoenetariko bat da, (...) batez ere norberaren hizkuntzaren garrantzia eta adierazkortasuna gehitzeko” **Wilhelm von Humboldt** *Eskiloren Agamenonen itzulpen metrikoaren sarrera*

“Harrimena barik arrotzasuna sentitzen denean, itzulpenak bere helbururik nobleenak lortuko ditu; hala ere, harridura baino agertzen ez denean, are arrotza ilunduta ere, hor itzultzaileak agerian uzten du ez dagoela jatorrizkoaren parean. Irakurle inpartzialaren sena ez da gai horretan erraz okertzen benetako mugaz” **Wilhelm von Humboldt** *Eskiloren Agamenonen itzulpen metrikoaren sarrera*

“Literaturari ezin zaio zerbitzu hoberik eskaini giza izpirituaren maisu lanak hizkuntzatik hizkuntzara itzultzea baino” **Madame la Baronne de Staël** *Itzulpenen izpirituaz*

“Atzerriko hizkuntzak ondo ulertu arren, gozamen hurbilago eta hurkoagoa ere dasta liteke norberaren hizkuntzara ondo itzuliz

gero” **Madame la Baronne de Staël** *Itzulpenen izpirituz*

“Italariako benetan baliagarri eta ohargarri diren ikasketen artean jarri behar al ditugu Alpeez bestaldeko poema eta nobelen itzulpenak? Benetan aberastuko al da gure literatura iparraldeko asmamenek sortutako lanak bereganatuta?” **Pietro Giordani** *Madame de Staël en esanen gainean*

“*Ezagutzeak ez dakar berez imitatu beharrik: aldiz, zenbat eta indar handiagoa hartu gogoak ikasteko, orduan eta gaitasun handiagoa izango du jatorrizko lan iraukorrak sortzeko*” **Madame de Staël** *Erantzuna Pietro Giordaniri*

“(…) baina mailutzarraz edo sorbaldaz itzultzen ez denez gero, pena da Altzide edo Atlante bat itzultzaile onak izatera heldu ezina” **Giacomo Leopardi** *Erantzuna Madame de Staëli*

“Hizkuntza bakoitzak bere esamoldeak, irudi erretorikoak, esaerak dauzka eta ezin dira beste hizkuntza batera hitzez hitz itzuli” **A. S. Pushkin** *Miltoni eta Chateaubrianden Paradisu galduaren itzulpenari buruz*

“Itzulpenik fidelenean idazlearen espiritua senti daiteke” **I. S. Turgenev** *Guillermo Tell*. Schillerren idazlanak

“Are prosa xehean ere, itzulpenik onena, jatorrizkoren parean, ezin liteke izan halako musika lan jakin bateko tonalitate aldaketa jatorrizkoaren aldean dena baino gehiago” **Arthur Schopenhauer** *Hizkuntzaz eta hitzez*

“Horregatik itzulpen oro, beraz, itzulpen hila izango da eta estilo bortxatu, formal edo artifiziala izango du ala, aldiz, itzulpen askea, hau da, *à peu près* hutsa izatera muga-

tuko da eta, beraz, faltsua” **Arthur Schopenhauer** *Hizkuntzaz eta hitzez*

“Poemak ezin dira itzuli, birrosatu baikizik, eta hori beti izango da gogaikarria” **Arthur Schopenhauer** *Hizkuntzaz eta hitzez*

“Itzultzaileak jakin behar du ezen berba edo jazoeraren batean aldaketa txikerren bat egitean datzala adituen onespina edo gaitzespena jasotzea” **Matthew Arnold** *Home-oren lanen izulpenen gainean*

“Bertsoz egindako itzulpenaren mamia honakoa litzateke: poema ona txar ez bihurtzea” **Dante Gabriel Rossetti** *Lehengo poeta italiarrak liburuko sarrera*

“Poesia zientzia zehatza ez denetik, bertsoaren literaltasuna bigarren mailakoa da xede nagusiarekiko (edertasuna). Eta *literal-tasuna* diot, ez fideltasuna, ez dira-eta, ezelan ere, gauza bera” **Dante Gabriel Rossetti** *Lehengo poeta italiarrak liburuko sarrera*

“Itzultzailearen lana (apal-apal diot) bere burua ukatzean datza” **Dante Gabriel Rossetti** *Lehengo poeta italiarrak liburuko sarrera*

“Obeditzea, ahor non dirdiratzten den itzultzailearen gaitasuna” **Victor Hugo** *Itzultzaileak*

“Benetako itzultzaileak, erabateko eta kalitatezko itzultzaileak, adimentsua bada, jatorrizkoari egingo dio men, baita aginpi-dez egin ere. Men egite subirano horretan agertzen da gailentasuna. Itzultzaile bikainak men egiten dio poetari mirailak argiari men egiten dion moduan, haren dirdira bihurtzen du eta. Ispilu bizia izatea” **Victor Hugo** *Itzultzaileak*

“Zentzuz eta tentuz, eta zelan edo alan, itzulpen guztien alde gaude, erlijio guztien

alde gauden modu-moduan” Victor Hugo
Itzultzaileak

“Itzultzaileek ez dute infinitoa lantzen, erlijio sortzailearen antzera, baina beren lana horrenaren parekoa da” Victor Hugo
Itzultzaileak

“Gure eskuzabaltasunak ez du itzultzaile bat ere baztertzen, ezta ia inozo-inozo parodian dihardutenak ere” Victor Hugo
Itzultzaileak

“Itzultzaileek eginbide zibilizatzailea dute. Herrien arteko zubiarena jokatzen dute.”
Victor Hugo
Itzultzaileak

“Poema bat itzultzea, oroz gain, estiloa itzultzea da” Antero de Quental
Kritikariak

“Jatorrizko lanaz baliatu da (harako egileak) modurik duingabeenean, itzulpena lohituta, jatorrizkoa eskuragaitza baitzen (...) eta behar ez zuela egin du, jatorrizkoak baimentzen ez zuelako eta itzulpenak eskatzen ez zuelako” Joaquim de Vasconcelos
Hizkuntzaren eta estiloaren gainean

“Saso baten histori sena zelán itzultzen duen ikusita epai daiteke” Friedrich Nietzsche
Gaia jakintza

“(Erromatarren sasoiak) garaitzen zen itzuli ahala, historikoa isildu ez ezik, gainera, unean unekoaz ia ezari-ezariko iradokizunak egiten ere zirelako; batez ere poetaren izena ezabatzen zen, itzultzailearena bestearen tokian jartzeko, ez lapurretan zihardute-lakoan, baizik eta *imperium Romanum* kontzietziarik garbienaz” Friedrich Nietzsche
Gaia jakintza

“Berbetatik berbetara itzultzearen zeregirik zailena estiloaren *tempo*a ematean datza,

azken hori leinuaren izaeran oinarritzen da eta, edo berba fisiologikoagoak erabiltzearen, askaziaren *metabolismo*aren batez besteko *tempo*an” Friedrich Nietzsche
Ongiaz eta gaitziaz haraindi

“Eta itzultzen dutenean, honela diote: itzuli egin dugu; aske jokatzen dutenean, honela diote: nahierara jokatu dugu halakoa eta halakoagatik; zerbait tartekatzen dutenean, honela diote: zer edo zer tartekatu dugu halakoa eta halakoagatik; eta traizioa egiten dutenean, honela diote: traizioa egin dugu halakoa eta halakoagatik” Sulayman ibn Jatta al-Bustani
Homeroren Iliadako sarrera

“Hiru zailtasun ditu itzulpenak: itzulgaieretikiko fideltasuna eta zehaztasuna, estilo adierazkor eta argia, eta dotoretasuna” Yen Fu
Evolution and Ethics and other essaysen txinerazko itzulpenaren sarrera

“Itzultzerakoan ezin diegu antzeko estiloa erantsi idazle guztiei” Futabatei Shimei
Nire itzultzeko modua



“Itzulpen txarra garrantzia txikiko edukia lauso interpretatzean datza” **Walter Benjamin** *Itzultzailearen zeregina*

“Itzulpena forma da. Horrela ulertu ahal izateko, noraezekoa da jatorrizkora itzultzea. Itzulpenaren legea horren barnean dago-eta itzulgarritasun gisa” **Walter Benjamin** *Itzultzailearen zeregina*

“Itzulpen oro hizkuntzen arteko tartearen arazoa planteatzeko modu behin-behingo samar bat baino ez da” **Walter Benjamin** *Itzultzailearen zeregina*

“Itzulpena, aldiz, ez dago, poesiaren antzera, hizkuntzaren baso zarratuan, zelan edo alan esatearren, kanpoan baino, hizkuntzaren aurkez aurk, barneratu bagarik, jatorrizkoa gonbidatzen du sartzera, sartzera leku bakarrera non norberaren hizkuntzaren oihartzunak jatorrizko lanaren durundioa eman dezakeen beste hizkuntza batean” **Walter Benjamin** *Itzultzailearen zeregina*

“Egia esan, antigoaleko poetak, bertsoek beti ere bizirik irauten baitiote, etengabe jarri behar du bere espiritua beste itzultzailearen baten eskuetan, itzulpenak hilkorak eta are iraupen laburrekoak dira eta” **Ulrich von Wilamowitz-Moellendorf** *Itzultzearen artea*

“Testua ulertzeko baino ez bada ere, estudioa ez da inoiz asko izango eta itzultzea, zelangura, ahapaldiak sortzearen parekoa baldin bada, nork bere alosiei deitu baino ez dago” **Ulrich von Wilamowitz-Moellendorf** *Itzultzearen artea*

“(Poeren *Annabel Lee* eta *Ulalume*) itzuli nituen ez beren balio berezkoenengatik, itzultzaileari etengabe erronka botatzen diotelako baino” **Fernando Pessoa** *Poesia itzultzearen artea*

“Itzulpena egilearen izena erabilita egitiko plagioa baino ez da” **Fernando Pessoa** *Itzulpen teoria baterako*

“Itzulpena beste hizkuntza batera eginiko parodia serioa besterik ez da” **Fernando Pessoa** *Itzulpen teoria baterako*

“Itzultzea interesgarria izango da itzulgaia zaila izanez gero” **Fernando Pessoa** *Itzulpen teoria baterako*

“Itzulpen oro egiten da hizkuntz gizalde baten autokontserbazio senak aginduta” **Karl Vossler** *Hizkuntz gizaldea gogo gizalde gisa*

“Itzulpengintza ukatuz gero (...), hizkuntz gizaldearen kontzeptua bera ere ukatuko da” **Karl Vossler** *Hizkuntz gizaldea gogo gizalde gisa*

“Eta, gertatzez, hizkuntza bakoitzak bes-teen mehatxuari egin behar dio aurre eta arartekorik ezean, batek ere ezingo du bizirik iraun besteen alboan. Arartekotza horren itxura begi bistako eta kontzienteari itzulpengintza deritzote” **Karl Vossler** *Hizkuntz gizaldea gogo gizalde gisa*

“Itzultzaileak zerbitzu egin nahi dio bes-teri eta, bigarrenik baino ez, bere buruari” **Karl Vossler** *Hizkuntz gizaldea gogo gizalde gisa*

“Itzulpenak arartekotzan ditu erabilgarritasuna eta ekonomi balioa” **Karl Vossler** *Hizkuntz gizaldea gogo gizalde gisa*

“Nire herrikide eta garaikidearen berbak entzun eta aditze hutsek bere gogoia nireara itzultzea dakarte. Itzulpena egon badago bes-teren hitzak edo norberak aspaldian botatakoak ulertzen diren noizgura eta nongura” **Karl Vossler** *Hizkuntz gizaldea gogo gizalde gisa*

“Itzulpenaz hitz egin ahal izateko, lehenik eta behin ondo kontuan izan behar da ezen itzulpena artea dela” **Lin Yutang** *Itzulpenaren gainean*

“Itzultzaileak bere gain hartu beharreko erantzukizunei dagokienez, honako hauek izan behar dira begi aurrean: lehenik, itzultzaileak egilearekiko duena; bigarrenik, itzultzaileak irakurlearekiko duena; hirugarrenik, itzultzaileak artearekiko duena. Erantzukizun horiekiko duen eginbeharrak jabetzen denean, orduantxe esan daiteke benetakoa itzultzailea dela” **Lin Yutang** *Itzulpenaren gainean*

“Hiztegiari begiratu eta berehala hitzen esangurak sinesten dutenak gehiegi fido dira definizioekin eta zurrun atxikitzen diote esanguraren aditu erratuari” **Lin Yutang** *Itzulpenaren gainean*

“Itzultzaileak berba guztiak ulertu behar ditu, baina ez du zertan den-denak itzuli” **Lin Yutang** *Itzulpenaren gainean*

“Erabateko fidelitasuna ezinezkoa da. Itzultzaileak heldu nahi duen fidelitasuna gutxi gorabeherakoa da eta ez erabatekoa” **Lin Yutang** *Itzulpenaren gainean*

“Artelanak ezin itzul daitezke” **Benedetto Croce** *Ästhetik*

“Literatur lanak itzulezinak diren arren, ezinean ahala bilatu beharrean gaude” **Lin Yutang** *Itzulpenaren gainean*

“Banakoaren askatasunaren esparruan egin behar ditu ahaleginak itzultzaileak. Ahor zergatik den artea itzulpengintza” **Lin Yutang** *Itzulpenaren gainean*

“Arrotz deabru horietako bat den arren, janzkera baino ezin dakioke alda ikusten ero-

soagoa izan dadin; baina nire iritzien aurka egonik ere, ez da zertan egongo sudurra moztu edo begiak errotik atera... Beraz, itzulpen deserosoa gurago dut” **Lin Yutang** *Itzulpenaren gainean*

“Azkenik, itzultzaileak sentituko bide du irakurle hizkuntzaz alferrari lana guztiz erraztearen ezintasuna” **Ezra Pound** *Guidoren hartu-emanak*

“Oro har, esatea daukagu Mardrus-ek ez dituela berbak itzultzen, liburuak irudikatutakoa baino: ahalmen hori galazo dute itzultzaileok, baina zilegi irudigileek” **Jorge Luis Borges** 1001 *gauaken itzultzaileak hizpide*


“Bere (Mardrus itzultzailearen) infidelitasunak, bere infidelitasun sortzaile eta bete-beteko horrek, axola behar digu, hain zuzen ere” **Jorge Luis Borges** 1001 *gauaken itzultzaileak hizpide*

“Itzulpengintza ez ote da, ezinbestean, ahalegin utopikoa?” **José Ortega y Gasset** *Itzulpengintzaren miseria eta dirdira*

“Itzulpengintza literatur *flou* etengabea da eta, bestalde, lelokeria esan ohi diogun hori gogoetaren *floua* baino ez denez gero, ez dugu harrigarri izan behar egile itzuliari beti lelo samar irizten badiogu” **José Ortega y Gasset** *Itzulpengintzaren miseria eta dirdira*

“Itzulpengintza hil da! Biba itzulpengintza!” **José Ortega y Gasset** *Itzulpengintzaren miseria eta dirdira*

“Ahor itzulpengintzaren neke gaitza: zeregina horretan berbeta batez eman gura izaten dute hain zuzen ere berbeta horrek isiltzen daroana” **José Ortega y Gasset** *Itzulpengintzaren miseria eta dirdira*



“Itzulpenaren gainean dihardugula, bai-
pen orokorrak egiteko arriskua dugu. Dena
gustuaren orekan datza. Eta sormen osagai
hori, komunikagaitz eta arautzen zaila, jo-
koan ez balebil, itzulpengintzak ez zituen
inoiz idazle itzaltsuak tentatuko” **Alfonso
Reyes** *Itzulpengintzaren gainean*

“Kezkatzekoa da gure prosako maisuak
itzulpenei iruntzietara jarritako tapizak iriz-
tea” **Alfonso Reyes** *Itzulpengintzaren gainean*

“Itzultzaileen aitortenez apur-apurka es-
tilistikarako arazo sorta baliagarri-baliagarria
osa liteke” **Alfonso Reyes** *Itzulpengintzaren
gainean*

“Eta mintzagai dugula itzulpengintzaren
arazo ezina, nork ez du inoiz zer edo zer adi-
tu horrelako edo halako hizkuntzan besterik
esan ezin daitezkeen gauzez?” **Alfonso Reyes**
Itzulpengintzaren gainean

“Itzulpenaren eta jatorrizkoaren arteko
hartu-emanak oinarria eta deribatua, enbo-

rra eta adarraren hartu-emanaren antzekoa
behar du. Itzulpenak sorburu izan behar du
jatorrizkoagaz beharrea hasi aurretik horren
adierazia berriro bizi duen egilea” **Boris Pas-
ternak** *Itzultazile baten oharrak*

“Itzulpenak irudika daitezke gu baino
arinago, menderik mende, hainbat literatu-
ra osok elkar itzultzen zutelako, eta itzulpe-
nak ez dira idazlan batzuk ezagutzeko bidea,
kulturek eta herriek elkarrekin komunika-
tzeko erabilitako bidea baino” **Boris Paster-
nak** *Itzultzaile baten oharrak*

“*Zergura idaztea*, idazketak gogoeta es-
katzen duen aldetik eta guztiz berezko ez den
barne berba jasotze makinal eta etengabea ez
denez gero, testu bat berbetaz berbeta bihurt-
zen duenaren adinako itzulpengintza da”
Paul Valery *Bukolikoaken aldakiak*

“Poeta itzultzaile mota berezi-berezia da,
berbaldi arrunta, sentipena bitarte, ‘jaun-
goikoen berbeta’ bihurtzen duela” **Paul Va-
lery** *Bukolikoaken aldakiak*

“Itzulpengintzak, formara hurbiltzeko
halako borondate jakin batek bultzatzen
duenean, zelangura behartzen gaitu urratsak
egilearen aztarnen atzetik jartzen” **Paul Va-
lery** *Bukolikoaken aldakiak*

“Xede hizkuntzatik jatorrizko hizkuntza-
rako tarte labur liteke, hau da, itzulia one-
gia izan ez dadin, lana ona izanez gero; eta
txarregia izan ez dadin, txarra balitz” **Fu Lei
Sarrera: Itzulpengintza eta margolanen kopia**

“Itzulpenari huts asko zuzendu dizkiot
eta, halaz ere, ez dut asebetetzeko emaitzarik
lortu. Artearen mundua infinitua da, baia
giza ahala mugatua; bestela esanda, alferre-
koa da bihotzaren ahalegina, gogotik saiatu

arren; eta horrelakoetan, pintzela bota eta aieneka hasi baino ez dago” **Fu Lei Sarrera:** *Itzulpengintza eta margolanen kopia*

“Itzultzailea izaki apal eta zorigaiztokoa da: isilik dihardu beharrean, jo eta ke, egilearen itzalean eta, gainera, badaki zer jazoko zaion: oso ondo joanda ere, beti esango diote zoro utopiazale” **Benvenuto Terracini** *“Itzulpengintzaren arazoa”*

“Hara, zailtasun hori (gurea eta bestere-na bereiztea berbaldi arruntean) ez da jazo-tzen itzultzaileagaz, definizioz, gurata, bere nortasuna ezereztera jotzen du-eta egilearen pentzuan, edo, gutxienez, zailtasuna murriz-tuta egoten da itzultzailea adi-adi egoten delako saihesteko asmoz” **Benvenuto Terra-cini** *“Itzulpengintzaren arazoa”*

“Itzulpena kultur tarte batetik jaio da, tarte den txikerra izanda ere” **Benvenuto Terracini** *“Itzulpengintzaren arazoa”*

“Itzultzaile izatea erreaktibo ezin bikai-nagoa da eta bere bitartez guztiz argiro isola eta ia kolorezta daitezke giza hizkuntza be-zain eme eta garden den substantzia bateko osagai eta forma batzuk” **Benvenuto Terra-cini** *“Itzulpengintzaren arazoa”*

“Hasierara itzuliko gara, beraz, ondo itzultzeko baldintza ganorazko bakarra izan-go da itzultzailea idazlea ere izatea, eta ez inprobisatzaile ausarta edo txoriburua” **Francisco Ayala** *“Itzulpengintzaren arazoak”*

“Hizkuntzak errotik dira desberdinak komunikatu behar dutenaren aldetik eta ez komunika dezaketenenaren aldetik” **Roman Jakobson** *“Itzulpenaren osagai linguistikoak”*

“Honako galdera hauek erantzun behar lirateke: itzultzailea, zein mezurena?; traido-

rea, zein baloreri?” **Roman Jakobson** *“Itzul-penaren osagai linguistikoak”*

“Adostasuna dagoen lekuan ez da itzul-tzen, berba egiten baizik” **Hans-Georg Ga-damer** *Hizkuntza esperientzia herme-neutikoaren bitarteko*

“Itzultzailea maiz oso mingarri sentitzen du ezinbestean bera eta jatorrizko testua urruntzen dituen tarte” **Hans-Georg Ga-damer** *Hizkuntza esperientzia herme-neutikoaren bitarteko*

“Itzulpenaren muina lengoaiaren erdian izatean datza” **Hans-Georg Gadamer** *Hiz-kuntza esperientzia hermeneutikoaren bitarte-ko*

“Hizketan ikastea itzultzen ikastea da; umeak amari halako edo bestelako berbaren esangura itauntzen dionean, benetan termi-no desezaguna bere berbetara itzultzeko bai-no ez du eskatzen” **Octavio Paz** *Itzulpena: Literatura eta literaritate*

“Testu oro bakana da eta, halaber, beste testu baten itzulpena. (...) Itzulpen bakoi-tza, zelan edo alan, asmakizuna da eta, on-dorioz, testu bakana eratzen du” **Octavio Paz** *Itzulpena: Literatura eta literaritate*

“Itzultzea lar gaitza da –sormenezkoa edo den ezein testu idaztea bezain zaila–, baina ez ezinezkoa” **Octavio Paz** *Itzulpena: Litera-tura eta literaritate*

“Ez, ez da eta ez da izango itzulpenaren zientzia bat, itzulpena zientziaren aldetik aztertu ahal eta behar den arren” **Octavio Paz** *Itzulpena: Literatura eta literaritate*

“Itzultzea eta sortzea eragiketa bikiak dira” **Octavio Paz** *Itzulpena: Literatura eta litera-ritatea*

“Ikusi dugu-eta, inondik inora, ideien mundua itzulpengintza *dela bitarte* sortzen dela, batasunari aniztasunean eusteko beharrian praktikoaren presiopean” Agustín García Calvo *Itzulpengintzaren historia baterako oharra*

“Eta horrela hitzun desberdinen komunikazioak (itzuli ahal izatea) unibertsal egi-ten du falsifikazio orokorra” Agustín García Calvo *Itzulpengintzaren historia baterako oharra*

“(…) Babelgo seme-alabek elkarri ulertu behar izateak itzulpena errealitate izatea inposatu du” Agustín García Calvo *Itzulpengintzaren historia baterako oharra*

“Eskertuko ete diete ekialdetarrek idazle horiei literatura, arte eta filosofi maisulan bikainak itzuli izana?, eta aitortu nik aitortzen diedan onura gizaki handi horien sorteri izan diren herrialdeei, beren burua atzenduta, beren nortasuna ezereztan dutelako eta itzultzailearen jarreraz asebetetzen, itzultzailea ez izanik ez irakurle patxadatsua ezta sortzaile ospetsua ere, bion batasuna baino: ez dauka lehenengoak bezala, hats egiteko parada, ezta bigarrenaren ospearen poza, zerbitzari fidel, eskudun eta leial delarik, irakurle artearen ederra eta handia dastatzera eramanda? Tasa Husayn *Liburu eta egileak*

“Jendeak zeregin erraztat jotzen du (itzulpengintza), baina nik ikaragarria, garrantzitsua eta arriskutsua deriztat, asko duzu jakitea sendo lotzen dituela belaunaldi eta herriak, haien arteko desberdintasunak ezabatzen dituelako; elkarrengana biltzen ditu, eta zentzua, morala, sentipenak, ontasunarekiko maitasuna eta leialtasuna bakea eskatuta sustatzean oinarrituriko asmo horretara hurbil-

du. Gutxienik egin hori aitortu diezaiogun ezin badizkiegu ordaindu gizakiari eta gizarteari egiten dizkieten zerbitzuak eta ekin gogoangarria” Tasa Husayn *Liburu eta egileak*

“Azken buruan, itzulpenaren arazoa itzultzailearen gogo eta idazketaren arteko harremanean datza, hau da hizkuntzan eta psikologian” Yen Fu *Itzulpenaren gainean*

“Itzulgaiarekiko fideltasuna itzultzaileak berak eta itzulpen kritikariak besterik ez dute ezagutzen, atzerriko hizkuntzak ez dakizkiten irakurleek ezingo dute epaitu” Liu Jingzhi *Espirituzkoa eta ez formazkoa den antzekotasuna haztatzea: Yen Fu osteko itzulpen teorien ikuspegi orokorra*

“Itzulpenak goi maila izanez gero, irakurle gustura egongo da irakurritakoan” Liu Jingzhi *Espirituzkoa eta ez formazkoa den antzekotasuna haztatzea: Yen Fu osteko itzulpen teorien ikuspegi orokorra*

“Inoiz ezingo dira batera itzuli zentzua, espiritualitatea, adierazpen indarra, egitura eta musika edertasuna” Liu Jingzhi *Espirituzkoa eta ez formazkoa den antzekotasuna haztatzea: Yen Fu osteko itzulpen teorien ikuspegi orokorra*

“Nor edo nor ausart ete liteke esaten testuaren ehuneko ehun itzul dezakeela? Antza denez, oraindik ez da topatu halako *lagun akatsgabea* itzulpenaren esparruan” Liu Jingzhi *Espirituzkoa eta ez formazkoa den antzekotasuna haztatzea: Yen Fu osteko itzulpen teorien ikuspegi orokorra*

“Literatur itzulpenaren eskakizunik nagusia berritzea da eta hori itzulpenak jatorrizkoaren zaporea gorde eta hizkuntzatik hizkuntzara pasatzean desitxuratzen ez denean

bestarik ez da lortzen” **Qian Zhongshu** *Aspaldiko lau artikulu*

“Nire aburuz, maisulan bera behin baino gehiagotan itzultzea bultzatu behar da” **Mao Dun** *Mao Dunen itzulpenen antologia: Hitzaurrea*

“Itzulpengintzaren historia aporiaz eta barne tentsio handiz beterik dago” **Gianfranco Folena** *Herri xehearentzat moldatzea eta itzultzea: “Oharra”*

“Pentsatzea ere bada gure mundu babeltarrean, gero eta gehiago planeta osoa hart-

zen duten semantika erreferentetara biltzen delarik, kultura batasunera heltzeko bultzadak, segur aski oinarri hizkuntzanitz batean bermatzekoa, nahiz eta egun hizkuntza bakarraren inguruan polarizatu, askoz ere aurrerandu hobea izango duela ekanduaren gainean, hau da, sinkronian eta ez diakronian, itzulpenak elikatzen duen hizkuntz eta gogoeta laboratoiro handi horretan” **Gianfranco Folena** *Herri xehearentzat moldatzea eta itzultzea: “Oharra”*

“Itzultzailea ugazaba biren morroia da” **Franz Rosenzweig**



Alemaniera euskararentzat eredu?

ELENA MARTÍNEZ RUBIO

Euskararen arazo lexikalak direla eta, alemaniera aipatzen da maiz, euskararentzat eredu baliagarria dela defendatuz, alemaniera europar hizkuntz ez-erromaniko garrantzitsu bat denez gero. Gehienbat, latinetiko nahiz grekotiko maileguez hitz egiten da, alemanierak honetan daukan jokaera jarraibidetzat ipini nahian. Zoritxarrez, ezjakintasun harrigarri bat antzematen da gai honen inguruan, alemaniera aztertzeke proposamena berez interesgarria den arren. Bestela esanda, alemaniera adibidetzat hartzearen aldeko argumentuak, alemaniera hizkuntza eta beronen bilakaera historian zehar ongi ezagutu gabe erabiltzen dira, hau da, egiazko datuak eduki gabe.

Gaia eztabaida zahar bati lotzen zaio, hitz berrien sorrerari buruzko eztabaidari hain zuzen. Galdera edo arazoa, oro har, hauxe da: zer egin behar da hiztegitintzan, ordain egokirik ez dagoenean? Hizkuntzak bere baitatik sortu behar al du hitz berria beti? Edo, sortu ordez, beste hizkuntza batera jo behar

al du mailegu bila? Etab. Ezaguna da, hitz kultu edota teknikoaren kasuan, latinak eta grekoak tradizioz jokatu duten paper nagusia mendebaleko hizkuntzetan. Testuinguru honetan hala ere, errazago azaltzen da gaztelera, frantsesa, eta ingelesaren jokabidea alemanierarena baino. Esan denez, euskarak—edo euskaldungoak—greko edo latinetik datozen hitzak bereganatzeko lotsa duen birtartean, alemanierak ez du inoiz horrelako problemarik izan. Egia oso bestelakoa da alabaina. Hortaz, komeni da alemanierak batzeko egindako bidea ezagutzea, oso laburtuta bada ere.

Hasteko, alemaniera batuaren, edo *Hochdeutsch* deitutakoaren premiaren kontzientzia argia XVII. mendearen hasieran hasi zen zabaltzen eta nagusitzen. Baina Lutero ere, hizkuntza berari hurbildu eta dialektoen sakabanatzeari uko egiteko beharraz ohartu zen aurreko mendean. Biblia itzuli zuenean horixe izan zuen helburu: hiztun guztiak ulertua izatea. Zalantzarik gabe, eragin handia

eduki zuen Erreformak alemanierari, erlijioaren arloan, latina, hebraiera, eta grekoaren ondoan leku bat egiteko.

Hitz berriak alemanieratik bertatik sortzeko ahaleginek ordea XVII. ean zehar hartu zuten indarra. Izan ere, garai hartan frantsesa zen nobleen arteko harremanetarako hizkuntza eta latina berriz, zientzietan nagusi. Egoera horri aurre egiteko, hizkuntza nazional eta arautu baten aldeko korrante zabal bat hedatu zen idazle eta pentsalarien artean. Hala zioen Leibnizek: "Menpeko gara adimenarekin zer ikusirik duten gauzetan, eta gure itsukeriak behartzen gaitu borondate arrotz bati jarraitzera, bai bizitzeko, hitz egiteko, idazteko, eta bai pentsatzeko orduan ere... Egoera honek ezin du hobera egin, zientzia eta gai nagusietan gure hizkuntza erabiltzen ez badugu." (*Ermahnung an die Deutschen...* 1683)

Ordukoak dira jakintza-eremu guztietako neologismo asko eta asko, maileguak saihesteko eginak, gaurko hizkuntzan arruntak direnak. Hala nola, hemen adibide gutxi batzuk ematearren, *Moment* esateko, *Augenblick* hitz elkartua. Hitzez hitz: (begietako) begirada. *Moment* baino erabilera handiagokoa, anbigua eta ez-zehatza bada ere, askok berehala salatuko luketen bezala, euskaraz asmatua balitz behintzat. *Augenblick* hitzari denbora-kutsua ematea arbitrario samar dirudien arren, inork ez du gaur egun minutu bat galtzen hitza ondo asmatua den jakiteko, filologoak salbu. Berdin *Nachruf*, *Nekrolog*-en ordez, *Fernglas*, *Teleskop*-en ordez, *Briefwechsel*, *Korrespondenz*-en ordez, eta abar. Greko edo latinetik maileguak ere agertzen dira hiztegieta noski, baina esanguratsua da, ikusiko dugunez, hauek hitz

arrotz edo *Fremdwörterbuch* izeneko hiztegieta jasota egotea ere.

Halaber, interesgarria da jakitea XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera hizkuntza batzeko prozesuak bat egin zuela dialektotokiko jakinmin nazional eta hizkuntzaren aberastasun lexikala zaintzeko ardurarekin. Hizkuntzaren ikerlariek ikuspegi horretatik ikertu zituzten dialekto desberdinak.

Batua edo *Hochdeutsch* delakoaren inguruko eztabaidak aurrera jarraitu zuen mende horretan ere: zein dialekto hartu eredu, zein arau ortografiko bilatu hizkuntza idatziarentzat, nongo ahoskerari lehentasuna eman, nola aurkitu estandar orokor bat, talde sozial guztietan, bai eta lurralde desberdinetan ere, lokarri izango zena... hizkuntzak batzeko prozesuetan ohizko izaten den eztabaida beraz.

Bestalde, eta Ilustrazioaren pentsamenduen ondorioz, alemaniera Unibertsitate-ra sartzan hasi zen. Orain ere, filosofia eta zientzietako diziplinen zabalkunde nahia zela eta, hitz arrotzen ordezkatzeari lotu zitzaion. Jarrera honen erakusle on bat Wolff filosofoa dugu, lexiko arruntetik hitz asko eta asko hartu eta hizkera kulturako irabazi zituena: *Begriff* (kontzeptua), *Wissenschaft* (zientzia), etab. Idazleñ ekarpena ere garrantzitsua izan zen mende horren bukaeran, herriaren hizkuntzan oinarritu eta literatura nazional berria finkatzeari ekin baitzioten (Herder, Goethe, Schiller...).

Gorabehera politikokoak eta Alemaniako batasuna zela medio, purismoaren aldeko jarrera berriro ere piztu zen XIX. mendean. Industrializazioaz batera, hizkera teknikoak hedatu ziren. Jendea alfabetatzen hasi zen eta prentsa ugaritzen. Horrek ondorioak izan

zituen hizkera moderno eta arina gauzatze-ko nahiz zientziaren dibulgaziorako. Maileguak itzuli egin ziren, jendeak hobeto ulertu ahal izateko.

1871tik aurrera hizkuntza batzearen azken fasea burutu zen. Oraingoan, jatorri alemanierakoak ez ziren hitzak erakunde ofizialek zokoratu zituzten. Makina bat hitz berri sortu ziren. Pare bat aipatzeagatik: *Fahrgast*, *Passagier*-en ordezt, *Fahrrad*, *Veloziped*-en ordezt, etab. Alemanieraz ez dakienak berdin topatuko ditu biak hiztegiatan, baina erabileraren maiztasunaz eta testuinguruaz ez badaki ezer, egiazkoak ez diren ondorioak atera ditzake.

Bigarren Munduko gerraz gerostik, ostera, ingelesaren bidez sartu dira maileguak: *Interview*, *lynchen*, *Boycott*... Hala ere, gure mendean ezinbesteko den "tresna" hori, sistema bera kolokan jarriko lukeena egun batean ibiliko ez balitz, Marcusek esan bezala, hots, telebista *Fernsehen* dugu alemanieraz...

Ikus dezagun amaitzeko zer den aleman hiztunentzat hitz arrotzen hiztegia. Holako baten hitzaurrean irakurri ahal denez, hiztegiaren helburua hauxe da: eguneroko bizitzan nahiz diziplina espezifikotetan erabiltzen diren hizkuntza arrotzen terminoak ulergarri egin eta azaltzea. Horrek erakusten du, batetik, asko direla hitz arrotzak, baina bestetik, azalpenaren beharra dagoela oraindik, terminoak egunerokoak izanda ere. Argi dago, hizkuntza erromanikoetan, latinarekin duten harreman zuzenagoarengatik, hitz arrotzen hiztegia ez dela hain ezaguna edo beharrezkoa.

Hitz kultu baten adibidea azter dezagun, bada, ingelesez, frantsesez eta gaztelerez da: "intervención" (*intervention/interven-*

tion), esaterako. Gaztelera/alemanierako er-
taineko hiztegi batean begiratuz gero, bost edo sei adiera eta beste horrenbesteko ordain desberdin aurkituko ditugu (*Eingriff*, *Vermittlung*, *Einmischung*, *Einschreiten*, *Beschlagnahme*, ...), hauetariko bat *Intervention* delarik. Kasu honetan, parentesien bidez adierazten da zuzenbide edota politikako termino espezifikoko dela <Pol > <Jur >. Hitz arrotzen hiztegi batera jotzen badugu aldiz, *Intervention* sarrera aurkituko dugu, ondoan zuzenbide eta politika alorreko bere esanahi mugatua dakarrela, aleman jatorrizko ordain batez adierazia.

Zer esan nahi da guzti honekin? Haste-ko, alemanierak ez duela inoiz maileguak hartzeko joera handirik izan. Aitzitik, tradizioaz eta berezko bidez baliatuz sortzaile eta berritzaile ausarta izan da beti. Horren adibide ugari aurkitzen dira gaurko alemanieraren hitz-altxorrean. Alemanierak oso gaitasun handia erakutsi du, eta horretan behar luke eredu izan, hitz elkartuen bidez, besteak beste, hitz berriak sortu, inposatu eta maileguak saihesteko ere, nahiz eta azken hauek oso ondo zedarritutako arloetatik erabat baztertu gabe.

Baina honetaz gain, gogoan hartu behar da, euskara eta alemaniera hizkuntza ez-erromanikoak izanda ere, hizkuntza bien hiztunak oso egoera desberdinetan bizi direla: gaur egun, euskaldun gehienak elebidunak direnez, gaztelera nahiz frantsesaren bidezko mailegu kultuak erabiltzea bide erraza dute, errazegia alegia. Hizkuntzalariei beraz, hizkuntzaren ezagutzatik bertatik abiatuta, zailago dena eskaintzea egokitzen zaie halabarrez.

Askotan entzuten da gure artean euskal ordain bat ematen denean, erdaraz daukan

esanahi guztiz berdina ez daukala. Zenbait-tek nahasmenaz edo definizio- ezaz edo mail-eguak hartzeko konplexuaz hitz egiten dute orduan. Ez dakite, antza, hizkuntza finkatu, garatu eta batuen artean ere berdin gertatzen denik. Kontzeptu batzuk beti daude hizkuntza batean hobeto adierazita bestean baino. Herrien esperientzia eta metafora desberdi-

nak daudelako azpian. Hizkuntza, bizitza bezala, ez da logika hutsa, ez eta perfektua ere. Itzultzea saiatze amaigabe bat da. Hannah Arendtek positibisten kontra esan zuenez: eskerrak gizakia gai den behin betiko erantzunik ez duten galderak bere buruari etengabe egiteko, horri esker delako gai erantzuna dutenentzat erantzun egokia bilatzeko.

BIBLIOGRAFIA

Geschichte der deutschen Sprache, Wilhelm Schmidt. Wissenschaftliche Verlagsgesellschaft Stuttgart. 1996.

Ethymologisches Wörterbuch, Friedrich Kluge. Walter de Gruyter Verlag. Berlin. 1975.



Aposizioak

JOSE MORALES BELDA

Aposizioek itzultzaileoi ematen dizkiguten buruhausteez jardungo dut orriotan. Filologo-garmatikalari-hizkuntzalari ez izaki, ezin azalpen teoriko ganorazkorik eman, eta, besterik ezean, itzultzaile gisa dudan eskarmentuan oinarriturik ekingo diot gaiari. Aposizioen eremu hain zabal eta sasitsu hori zeharkatzeko aukeratu dudan bidezidorra nondik nora doan erakusten saiatuko naiz, adibideak erabiliz eta hor-hemen aposizioei buruz irakurritakoak aztertuz. Batzuetan, "gramatika"ren bide niretzat labainera lerratuko naiz ezinbestean: barkatuko ahal dizkidazue okerrak kontu horietan ni baino adituagoak zaretenok! Tira, kontuak kontu eta okerrak oker, gatozen, behingoz, harira.

Batzuetan, izen bati buruzko informazioa emateko, beste izen bat ipintzen dugu haren ondoan. Hori da aposizioa. Aposizio batzuek

izen bat zehaztu edo mugatu egiten dute, beste batzuetatik bereizteko. Gramatika-liburu gehienetan "murrizgarria" esaten diote aposizio horri, baina badirudi egokiagoa litzatekeela, esaterako, "zehaztailea" deitzea, ez baitu izena murrizten, zehazten baizik. Beste aposizio batzuek, aldiz, izen bati buruzko informazio osagarria ematen dute, ezaugarri berezi edo aipagarriren bat nabarmenduz. "Ez-murrizgarria" deitzen diote aposizio horri, baina zuzenagoa litzateke, beharbada, "ez-zehaztailea", "azaltzailea" edo horrelako zerbait dela esatea. Nolanahi ere, hainbatetan, zaila izaten da bi aposizio-mota horiek bereiztea edo, bestela esanda, aposizioaren zeregina zein den zehaztea, eta, zuhur eta zuzen jokatu ezean, esaldi nahasgarriak edo erabat ilunak egiteko arriskua dago.

1. Aposizio zehaztaileak ("murrizgarriak")

1.1. Izen propioen bidez zehaztea

Aposizio zehaztaileetan, izen propio bat eta izen arrunt bat elkartu ohi dira. Izen propioak izen arrunta zehazten du.

Euskaltzaindiaren LEF batzordeak hainbat multzotan sailkatu ditu aposizio zehaztaileak (Ikusi *Hitz-elkarketa/3* eta *Hitz-elkarketa/4* liburuak). Hona hemen, laburbildurik:

a) Izen propioa + izen arrunt bizigabea

a.1) *Ebro ibaia* moduko ezker-hedapen biluziak.

Aralar mendia, Bidasoa ibaia, Dato kalea, Arriaga antzokia, Xalbador ikastegia, Arrarte irratia, Gerediaga elkarte...

a.2) *Garaziko herria* moduko ezker-hedapen jantziak.

Bilboko hiria, Iratiko basoa, Oizko mendia, Ziateko gaina, Nafarroako erresuma, Gasteizko udala, Bizkaiko jaureria, Zumalakarregiren etorbidea, Foruen plaza, San Bizenteko eliza, Kursaalako zubia...

"Aurrekoa baino gutxiago erabili ohi bada ere, aski ezaguna da izenlagunezko aposizio-hedapen hau". (*Hitz-elkarketa/4*. 90. or.).

Batek baino gehiagok gaitzesten dituzte horrelakoak, erdararen kalko gordinak edo "erdarakadak" direla leporaturik, eta, horrenbestez, *Garazi herria* edo *Bilbo hiria* moduko ezker-hedapen "biluziak" nagusitu dira, itsusiegizat baitauzkagu *-ko* edo *-ren* janzki zarpail horiek. Baina, *Orotariko Euskal Hiztegiak* frogatzen duenez, garai, eus-

kalki eta maila orotako idazleek ezker-hedapen jantziak erabili dituzte oraintsu arte:

"La expresión *-ko herria* (*Belengo herria, Gipuzkoako herria*, etc.), que algunos tratadistas han rechazado como calco (cf. p.ej. Gte *Erd* 152), se encuentra en autores de todas las épocas, dialectos y niveles. Su alternativa, *Belén herria, Gipuzkoa herria*, es muy minoritaria". (*Orotariko Euskal Hiztegia*. VII. lib. 206 or.).

Beraz, ez da bidezkoa orain, goizetik gaue-ra, ustezko jatoritasun ilun baten izenean, aposizio jantzi horiek legendunen leizezulo-ra egozte, erro sakonak egin baitituzte aspaldi gure letren erresuman. Aurreiritzirik gabe aztertu behar ditugu, beraz; bide bakoi-



tzaren alde onak eta txarrak ikusi, eta, horren arabera, egokiena aukeratu behar dugu, gure testuen argitasuna eta zehaztasuna beste jomugarik ez dugula. Nik, oro har, larrugorritan nahiago ditut leku-izenak, batere eranskinik gabe, alegia. Itzultzaileak, sarritan, irakurle aurruntarentzat guztiz ezezagunak diren leku-izenak aurkitzen ditu jatorrizko

testuan. *Borodinoko herria* idatziz gero, batek baino gehiagok uste izango du –arrazoiz, gainera– *Borodinoko* deritzon herri batez ari garela. *Borodino herria* idatziz gero, ordea, argi dago *Borodino* dela herriaren izena. Gainera, itsusi samar geratuko litzateke *Errusiako Borodinoko herria*. Beraz, bi formak zilegiak izaki, uste dut hobe dela “biluziak” erabiltzea, argiagoak dira eta. Nolanahi ere, ez dut inolako eragozpenik *Gasteizko udala*, *Nafarroako erresuma* edo *Bizkaiko jaureria* esateko: forma horiek guztiz finkaturik daude, eta bitxi samar geratuko lirateke beste era batera (*Gasteiz udala*, *Nafarroa erresuma*, *Bizkaia jaureria*). Batzuetan, gainera, aposizio jantziak dira aukera bakarra: ez dago esaterik *Erroma inperioa*, *Erromako inperioa* behar du, edo, aukeran, *erromatarren inperioa* (*inperio erromatarra* erabat zabaldurik dago, baina badirudi ez dela egokia jentilizioa horrela erabiltzea).

b) Izen propioa + izen arrunt biziduna

Uztapide bertsolaria moduko ezker-hedapen biluziak.

b.1) Kargua, lanbidea edo nortasuna adierazten dutenak.

Agirre lehendakaria, *Santa Kruz apaiza*, *Antso Abarka erregea*, *Isaias profeta*, *Job saindua*, *Agustin deuna*...

b.2) Begirunezko deiturak (jauna, andrea, laguna, adiskidea).

c) Izen arrunt biziduna + izen propioa

mais *Juan* moduko eskuin-hedapenak.

c.1) Kargua, lanbidea edo nortasuna adierazten dutenak.

Errege David, *profeta Isaias*, *Birjina Maria*, *apaiz Lorenzo Izagirre*...

c.2) Ahaide-izenak.

c.3) Begirunezko deiturak (jauna, andrea, laguna, adiskidea, Frai, San, Santa, Jondoni, On, Sor, musde, maisu...).

1.2. Izen arruntentzako bidez zehaztea

Ikusi dugunez, izen propio bat eta izen arrunt bat elkartzeko da ohikoena. Baina, batzuetan, izen arrunt bat erabiltzen dugu beste izen arrunt bat zehazteko.

“Si digo *El Profeta Rey*, quiero especificar el Profeta que fue rey, distinguiéndolo de los otros profetas –aposición restrictiva–. En vasco, *Errege Profeta*”. (Villasante. *Estudios de Sintaxis Vasca*. 139. or.).

“En el castellano moderno existe un tipo de aposición especificativa –o sea, restrictiva–, en el que el segundo elemento se toma con valor de adjetivo. (...) Hasta la fecha este estilo no se ha aclimatado al vasco”. (Villasante. *Estudios de sintaxis vasca*. 141. or.).

Honakook aipatzen ditu Villasantek: “lengua sierva”, “el hombre masa”, “un día perro”, “noticia bomba”, “obra cumbre”, “palabra clave”, “hombre luz”, “Niño Dios” eta “ciudad dormitorio”.

Villasanteren liburu hori argitaratu zenetik hogeitau urte igaro direlarik, ikus dezagun zer gertatu den bitarte horretan eta gaztelaniako aposizio zehaztaile horiek nola ekarri ditugun euskarara. Berrito ere, Euskaltzaindiaren LEF batzordearen lanak hartuko ditut oinarritzat. *Hitz-elkarketa*/3 eta *Hitz-elkarketa*/4 liburuetan ikus daitekeenez, bi bide erabiltzen ditugu nagusiki: aposizioa eta hitz-elkarketa.

a) Aposizioa

Euskaltzaindiak “aposizio-elkarte” deitzen dio horri, nik, atrebentzia handia ez bada, “aposizioa” deituko diot besterik gabe, nire iritzia emateko erosoagoa zait eta.

“Aposizio-elkarteetan bereizgarritzat jo dugun bakartzea ez da lortzen izen propioaren laguntzaz soilik, izen arrunta ere erabil daiteke hurrengo izen arruntaren deitura gisa”. (*Hitz-elkarketa*/3. 97. or.).

Hona hemen Euskaltzaindiak azalpentxo horren ostean bilduriko adibideetako batzuk:

analfabeto hitza, “apartheid” politika, “cuarta” gaitzizena, “ghetto” espiritua, katoliko izena, feed-back mekanismoa, solido zurrun kontzeptua, A puntua, X izpia, D bitamina...

Nabarmentzekoa da, batetik, aposizio horietan guztietan agertzen diren bi izenak bizigabeak direla, eta bestetik, berriz, lehen hitzak bigarrena mugatzen duela, horixe baita euskarazko aposizioen ezaugarri nagusia (“el río Deba” itzultzeko erabiltzen dugu prozedura berberaz baliatzen gara “la palabra analfabeto” euskaratzeko: *Deba ibaia, analfabeto hitza*).

b) Hitz-elkarketa

LEF batzordearen lanetan ikus daitekeenez, Villasantek aipatzen dituen gaztelaniazko aposizio zehaztaile horiek, gehienetan, hitz-elkarketaren bidez euskaratzen ditugu, ez aposizioen bidez. Nagusiki, bi elkarketa-mota erabiltzen dira: atributu-elkartera eta koordinazio-elkartera.

b.1) Atributu-elkartera

• *harri zilindro* modukoak: *emakume deabru, gizon asto, andre sendagile, neskatila zerbitza-*

ri, Jainko aita, artzipreste pintore, ume aingeru...

“Euskal hitz-elkarketaren mugatzaile / mugakizun segidaren aurka, lehen osagaia da hitz-elkarte hauetako sintagma-buru. Bigarren osagaiak, aldiz, adjektibo-lana egiten du”. (*Hitz-elkarketa*/4. 85. or.).

Bereiz idaztea gomendatzen du Euskaltzaindiak, eta, adibideak ikusirik, badirudi izen bizidunekin erabiltzen dela batez ere (ez dugu esaten *dekretu legea, etxe kuartela* edo *etxe eskola*).

• *baserri-etxe* modukoak: *bonba-kotxe, dorre-etxe, eskola-etxe, patruila-kotxe, lege-dekretu, afari-merienda, inude-abioi, kuartel-etxe, giltz-hitza, otso-zakur, zisterna-kamioi, garabikamioi...*

“Euskal hitz-elkarketaren mugatzaile / mugakizun segida bere horretan errespetatzen du eramolde honek: bigarren izena da, kasu honetan, sintagma-buru. Pentsatu ere egin daiteke, menpekotasunezko izen elkartuen azpimultzo bat ez ote den (cf. *eguzki-lore*)”. (*Hitz-elkarketa*/4. 85. or.).

Euskaltzaindiak ontzat jotzen du hala marraz nola bereizirik idaztea. Adibideak ikusirik, badirudi izen bizigabeekin erabiltzen dela nagusiki (ez dugu esaten *deabru-emakumea, pintore-artziprestea* edo *aita-Jainkoa*), hala ere, horrela osatu ohi dira landare eta animalien izenak (*ezpata-arraina, kriskitin-sugea, iturri-belarra*).

b.2) Koordinazio-elkartera

makina-erreminta modukoak: *bidazti-olerkari, errege-profeta, erretor-bikario, konde-duke, hargin-meatzari, alkate-idazkari, armario-biblioteca, irrati-iratzargailu...* Buru biko sintagmak dira.

Euskaltzaindiak berak aitortzen duenez, askotan zaila izaten da zein elkarte-mota erabili behar dugun erabakitzea edo, alderantziz, hainbat sintagmaren esanahi zehatza zein den jakitea. Barkatuko didazue aipu honen luzea, baina uste dut interesgarria dela “el profeta rey” nola euskaratu behar dugun argitzeko:

“Ez da askotan erraza izen elkartu jakin bat, Atributu elkarte edo Koordinaziozko elkarte den erabakitzea. *Alkate-idazkaria*, esaterako, Koordinazio elkarte delata esan dezakegu, pertsona berak bi eginkizunak, alkatearena eta idazkaria-rena, betetzen dituelako. Era berean, Atributu elkartearen artean sartu dugun *artzipreste-pintore* hemen (koordinazio elkartearen sailean) koka zitezkeen, pertsona beraren bi alderdi adierazten dituela esanez. Baina ‘artzipreste’az gainera ‘pintore’ ere badenaz ari garela ulertzen badugu, Atributu elkartearen artean utziko genuke. Halaber, *armario-biblioteca* zer da: ‘armarioa, biblioteca ere badena’ ala ‘bi eginkizunak aldi berean betetzen dituen haltzaria? Eta *kapitain pilotu ez ote* ‘norbait’ aldi berean kapitain eta pilotu, bi lanbideak bereganatzen dituen, eta horrenbestez, Koordinaziozko elkarte?”

Eta, alderantziz, *sack-bar*, ezin ote daiteke pentsa ‘bar’ denik, ‘snack’ ere badena, Atributu elkarte beraz? Beste horrenbeste esan daiteke *napar euskaldun*, *napar erdaldun* edo *prantses euskaldun* izenez.

Guzti honen ondorioa honakoa izan daiteke: Atributu elkarteak eta Koordinaziozkoak, teoriarik, definizio mailan, bereiztea ez da zaila. Adibide jakinak sailkatzerakoan, bi osagaien arteko erlazioa nolakoa den (biak maila bereko, ala bata nagusi) erabakitzean egon daitezke (eta egon ohi dira) ikuspuntu desberdinak. Eta horrik sortzen dira zalantzak”. (*Hitz-elkarketak* 3. 84. or.).

Eta, zalantzak zalantza, itzul gaitzen harira: nola esan euskaraz “el profeta rey”? Villasantek dio *errege profeta* behar duela. Hori

al da modurik egokiena eta, batez ere, argiena? Ahantz dezagun, une batez, Villasantek dioena eta saia gaitzen beste bi izen arrunt bizidunekin. Har ditzagun, esaterako, *errege* eta *idazle* hitzak, eta elkar ditzagun: *errege idazlea*. Hori irakurrita, zer datorkizue burura? Niri, “liburuak idazten dituen errege bat” edo “errege izateaz gain idazle ere baden errege bat”. Hala ere, *errege profeta* “el profeta rey” bada (aposizioa), *errege idazlea* “el escritor rey” da. Baina inor gutxik interpretatuko luke horrela. Aposizioaren bidetik baztertu eta hitz-elkatearena harturik, hiru aukera ditugu “el rey escritor” itzultzeko:

- *idazle-erregea* (*baserri-etxe* moduko atributu-elkatea, alegia). Baina badirudi elkarketa hori izen bizigabeekin erabiltzen dela batez ere. Bazter dezagun, beraz.

- *errege idazlea* (*harri zilindro* moduko atributu-elkatea). Horixe da ohikoena izen bizidunekin.

- *errege-idazlea* (*makina-erreminta* moduko koordinazio-elkatea).

Ñabardura kontua da azken bi horien arteko aldea. *Errege idazlea* esaten badugu, nagusitasuna ematen diogu errege izateari. *Errege-idazlea* esaten badugu, aldiz, maila berean jartzen ditugu biak.

Halatan, bide horri jarraiki, *idazle erregea* “el escritor rey” da. (Aposizioaren bidetik joz gero, ordea, “el rey escritor” litzateke).

Horrenbestez, gaztelaniatzko aposizio horiek itzultzeko orduan, gehienetan (batez ere bi izenak bizidunak badira) hobe da aposizioen bidetik baztertzea eta hitz-elkarketara jotzea. Eta, Villasantek dioenez bestera, “el profeta rey” *profeta erregea* esan beharko ge-

nuke, edo, aukeran, *profeta-erregea* (edo *errege-profeta*, biek pisu berbera izanik ez baitu garrantzirik aurrean bata edo bestea jartzeak).

2. Aposizio azaltzaileak ("ez-murrizgarriak")

Aposizio zehaztaileen kasuan "erreferente" askoren (edo, hobeto esanda, bat baino gehiagoren) arteko zeinez ari garen zehazten dugu. Erreferente bakarra ez dagoenez (bi egotea aski da), zehaztu beharra dago.

Nilo ibaiak 6.700 km ditu. Ibaia da erreferentea, baina, munduan ibai asko dagoenez, zein ibaiz ari garen zehaztu behar dugu. Nilo da zehaztailea.

Aposizio azaltzaileen kasuan, ordea, kontrako gertatzen da. Izen propio baten ondoan jarritako azalpenak izen propio horrek bakarrik daukan ezaugarri edo berezitasun bat jasotzen du.

Nilok, munduko ibairik luzeenak, 6.700 km ditu. Munduan ibai asko dago, baina bat bakarra da luzeena. Beraz, ez dago bat baino gehiagoren arteko zeinez ari garen zehaztu beharrik. Aposizio zehaztailean, *ibai* hitzari erantsi diogu *Nilo* izena; aposizio azaltzailean, aldiz, *Nilo* izenari itsatsi diogu *munduko ibairik luzeena*. Hori dugu, hain zuzen ere, aposizio azaltzaileen ezaugarri nagusia: azalpenak "bakartu" egiten du erreferentea.

Hona adibide batzuk:

Peru, Anaren senarra, Bilbon bizi da.

Moskuk, Errusiako hiruburuak, 9 milioi biztanle ditu.

Leopold Eiharts, lehen euskal astronauta, gaur abaituko da MIR estaziora. (Euskaldunon Egunkaria).

Lapita, Tesaliako leiendako herria, (...). (Luzio Apuleio. Urrezko astoa. Juan Kruz Igerabide eta Anjel Lertxundiren itzulpena. 103. or.).

Kontxan, Donostiako hondartzarik politean, jende asko biltzen da udan.

Etxeparek, gure lehen idazleak, ezin hobeto azaldu zuen hori.

Xaxana Gusmao, Fretilineko lider nagusia, (...). (Euskaldunon Egunkaria).

(...) esan zuen Akram Jurik, Jerusalemgo mufti eta hiriko aginte islamiko gorenak. (Euskaldunon Egunkaria).

Horregatik, jakin nuenean gazta berri gozozoa saltzen zutela Hipata-n, Tesaliako hiri nagusian, (...). (Urrezko astoa. 21. or.).

Koma artean jartzen dira gehienetan, baina marratxoak erabil daitezke komen dez.

Hortik lortu zuen Parisek Helena –Mene-laoren emaztea– eskuratu, eta berekin Troiara eramatea. (Urrezko astoa. 121. or.).

Aposizioen betekizunak eta kasuan kasuko jokabideak

Aposizio zehaztaileak izen bat zehazteko erabiltzen direla esan ohi da. "Si digo *Deba ibaia*, el nombre propio antepuesto especifica o distingue a un río determinado de todos los otros" (Villasante. *Estudios de sintaxis vasca*. 138. or.). Eta izan, hala da, baina, horrekin batera, beste zeregin batzuk ere betetzen dituelakoan nago.

Deba ibaia esaten badut, izen propioak ibai bat bereizten du gainerako ibai guztietara

tik (zein ibaiz ari naizen zehazten du, alegia). Baina, aldi berean, *Deba* delako hori zer den argitzen digu: ibaia. Idaztean, askotan, izen propioaz bakarrik aipatzen dira mendiak, ibaiak, pertsonak eta abar. Zergatik? Bada, inondik ere, idazleak uste duelako irakurleak badakiela haien berri eta aski duela izen propioa irakurtzea dena delako hori zer den asmatzeko. Euskarazko testu batean, esaterako, ez dugu *Gorbeia mendia* idatzi beharrik, *Gorbeia* aski ezaguna baita euskal irakurleentzat. Baina *Agirre* soilik esaten badut Euskadiko lehendakari izandakoa aipatzeko, gehienetan *lehendakari* hitza erantsi beharko diot

ezinbestean, zeren bestela, munduan *Agirre* asko dagoenez, irakurleak ez baitauka jतिक हलपलदल दलकलदल *Agirre* izeneko hori zer edo nor den. *Jose Antonio Agirre* idazten badut, ordea, ez dago besteren beharrik (are gutxiago *Jose Antonio Agirre Lekube* esaten badut). Testuinguru jakin batzuetan, gainera, aski da *Agirre* esatea Euskadiko lehendakari izandakoaz ari garela jakiteko (lehendakariari buruzko hitzaldi edo idazki batean, esaterako). Baina gerta liteke izen horiek erabat ezezagunak izatea beste kultura, herri edo hizkuntza bateko irakurleentzat. Horregatik, itzultzean, izen arrunt bat eransten diegu jatorrizkoan besterik gabe ageri diren izen propio batzuei, argibide gisa (*Gud mendia*, *Baidar ibaia*, *Ermolov jenerala*...). Argi dago gure helburua ez dela *Gud* delako hori beste men-

dietatik bereiztea, *Gud* delako hori mendia dela jakinaraztea baizik. Hau da, esan liteke *Gud* izena *mendi* hitzari erantsi beharrean (edo horrekin batera) *mendi* hitza erantsi diogula *Gud* izenari (aposizio azaltzaileetan egiten den bezala, baina, hori bai, komarrik gabe!). Gainera, sarri askotan, deklinatzean sortzen diren arazoak konpontzen dizkigu horrek (*Gudek*, *Gud-ek*. *Baidarrek*, *Baidar-ek*).

Eta, azkenik, bidenabar bada ere, izen bereko bi entitateren arteko zeinez ari garenera argitzen digu izen propio bati erantsitako izen arruntak. *Washington hiria* esaten badut, zein hiriz ari naizen argitu eta *Washington*

delako hori hiri bat dela argitzeaz gain, bide batez, izen berbera duen estatutik bereizten dut. Dena dela, ia nahi gabe egiten dugu hori, berez datorren kontua da. Gure helburu nagusia izen bereko beste batetik bereiztea balitz, beste era batera jokatu genuke, esaterako: *Washingtonen (hirian, ez estatuan) hau eta hau gertatu da*.

Horra, bada, nola nahasten diren azaltze-funtzioa eta zehazte-funtzioa aposiziorik arruntenetan ere. Gramatika-liburuetan aposizio zehaztaileei buruz ematen dituzten azalpenak gorabehera, ausartuko nintzateke esatera zehaztailetzat jotzen ditugun aposizioetan azaltze-funtzioak zehazte-funtzioak baino pisu handiagoa duela askotan.

Lehenago esan dugunez, aposizio zehaztaileen kasuan izen propio batez eta izen arrunt batez osaturik egon ohi da izen-sin-



tagma. Izen propio horri elementu bat baino gehiago eransten badizkiogu, bete-betean sartzen gara atribuzioaren eremuan. Aposizioa zentzu atributiboan erabiltzen dugu, ez zentzu zehaztailean. Izen propioa zenbat eta atributu gehiagoz hornitu, orduan eta gehiago urruntzen gara aposizio zehaztaileen eremutik eta, horrenbestez, gero eta gehiago barneratzen gara aposizio azaltzaileen edo atribuzioaren eremuan. Izen propioari, besteak beste, izen arrunt bat erantsi ahal diogu, edo beste izen propio bat, edo adjektibo bat, edo horiek guztiak, edo horietako batzuk bakarrik. Ikus dezagun, bada, nola jokatu behar/ahal den hori gertatzen denean (zoratzekoa litzateke gerta daitezkeen konbinazio guztien zerrenda egitea, eta, labur beharrez, ohikoenak bakarrik aztertuko ditugu).

a) Izen propioa + izen arrunta + adjektiboa.

Fernando I.a errege ausarta.

Gabriel Aresti idazle emankorra.

Novgorod hiri zaharra.

Nilo ibai luzea.

Zerrendatxo horretan bildu ditudan sintagma horiek guztiak argiak dira eta ondo funtzionatzen dute. Ondo antolatuz dard de horrela, ez dago beste aukerarik.

Idazle emankor, hiri zahar eta ibai luze asko dagoenez, ez da zuzena aposizio horiek koma artean jartzea (adibidez: *Gabriel Aresti, idazle emankorra, 1933an jaio zen*).

b) Izen propioa + izen propioa + izen arrunta (izen propioetako batek kasu-marka daramala).

Fernando I.a Aragoiko erregea.

Gaston IV.a Biarnoko bizkondea.

Boris Jeltsin Errusiako lehendakaria.

Gabriel Aresti Bilboko idazlea.

Horiek guztiak zuzenak dira, baina beste era batera ere antola ditzakegu. Areago esan-go dut: batzuetan, hobe dugu beste era batera antolatzea, argitasunaren mesedetan. Ikus dezagun nolako aukerak dauden kasu bakoi-tzean.

• Errege-erreginak

Errege-erreginen kasuan, sarri askotan, tituluaren barruan sartzen da nongo errege-erreginak diren.

“El rey Fernando I de Aragón”: *Fernando I.a Aragoikoa erregea.*

Batzuetan, ordea, nongo errege-erreginak diren ez da tituluaren barruan sartzen. Euskaraz ere badugu ñabardura hori jasotzea:

“El rey de Aragón Fernando I”: *Fernando I.a Aragoiko erregea.*

“Fernando I, rey de Aragón”: *Fernando I.a Aragoiko erregea.*

“Fernando I, el rey de Aragón”: *Fernando I.a Aragoiko erregea.*

(Azken adibide horretan, “el” artikulua narbarmendu du gartzelaniazkoan, eta koma, berriz, euskarazkoan. Izan ere, horixe baita, nire ustez, auziaren gakoa eta euskaraz aposizioekin egiten ditugun akats gehienek sorburu nagusia. Labur esanda: gartzelaniazko artikulua horrek koma eskatzen du, ezinbestean, euskaraz; eta gartzelaniazko artikulurik ezak, aldiz, komarik eza euskaraz).

Dena dela, nongo errege-erreginak diren tituluaren barruan sartzen bada, lasai asko ken daiteke *errege* edo *erregina* hitza.

Fernando I.a Aragoikoa.

Karlos I.a Espainiakoa eta V.a Alemaniakoa.

Hala ere, horrek ez du beti ondo funtzionatzen:

Alfontso I.a Borrokalaria Aragoikoa. (!?)

Honela beharko luke:

Alfontso I.a Borrokalaria Aragoiko erregea.

Era badago, azkenik, beste bide bat:

Aragoiko errege Fernando I.a. ("Fernando I, rey de Aragón". Ez du balio "El rey Fernando I de Aragón" esateko).

Aragoiko errege Alfontso I.a Borrokalaria.

Kretako errege Minosen alaba. (Urrezko astoa. 39. or.).

Dirze Tebasko errege Likoren emazte zen. (Urrezko astoa. 177. or.).

• Bestelako tituluak

Gaston IV.a Biarnoko bizkondea. ("Gastón IV, vizconde de Bearn").

Edo, bestela:

Biarnoko bizkonde Gaston IV.a.

1449an, Foixko bizkonde Gaston IV.aren laguntzaz Mauleko gaztelua hartu zuten frantsesek. (Euskal Hiztegi Entziklopedikoa. Harluxet. 1166 or.).

• Karguak

Boris Jeltsin Errusiako lehendakaria.

Errusiako lehendakari Boris Jeltsin.

Beste aukerarik ez dago.

Errusiako Boris Jeltsin lehendakaria. ("El presidente Boris Yeltsin de Rusia"). (!?)

Boris Jeltsin lehendakari errusiarra. Esaldi hori zuzena da, baina ez du adierazten non-go lehendakaria den, non jaio den baizik. Gaztelaniazko "el presidente ruso Boris Yeltsin" esaldiaren itzulpen egokia *Boris Jeltsin Errusiako lehendakaria* edo *Errusiako lehendakari Boris Jeltsin* da, ez *Boris Jeltsin lehendakari errusiarra*.

Euskaldunon Egunkarian gero eta maizago erabiltzen dituzte *Errusiako lehendakari Boris Jeltsin*-en tankerakoak:

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkari nagusi Josune Ariztondo.

Bill Clinton EEBBetako lehendakariak horren berri eman zion Australiako lehen ministro John Howardi.

Gipuzkoako batzorde eragileko kide Manuel Huertaren ustez...

Gipuzkoako Foru Aldundiko errepide diputatu Jose Julian Irizarrek azken egunotan prentsan egin dituen adierazpenak salatu zituen Huertasek.

• Lanbideak

Gabriel Aresti Bilboko idazlea.

Bilboko idazle Gabriel Aresti. (Zilegi da horrelakoetan ere hori egitea?)

Ahal izanez gero, jentilizioa erabiltzea dugu egokiena:

Gabriel Aresti idazle bilbotarra.

Beste aukerarik ez dago.

Bilboko Gabriel Aresti idazlea. ("El escritor Gabriel Aresti de Bilbao") (!?)

Fernando I.a Aragoiko erregea edo *Andolin Eguzkitza Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria* bezalakoak koloka daude aposizio zehaztaile eta azaltzailearen arteko muga lauso horretan. Aragoik hamaikatxo errege izan ditu historian zehar, eta Euskal Idazleen Elkarateak hainbat lehendakari. Baina ez dituzte aldi berean bi errege edo hiru lehendakari. "Bakarrak" diren kargu guztiekin gertatzen da hori (gubernuburuak, sailburuak, alkateak, zuzendariak, idazkari nagusiak...). Gehienetan, horrelakoak aipatzean, garai bakoitzean den edo izan den errege edo lehendakari bakarrak aritzen gara. Beraz, badirudi ez dagoela eragozpen handirik aposizio azaltzaileen arlora jotzeko eta, horrenbestez, koma artean jar ditzakegula.

Andolin Eguzkitzak, Euskal Idazleen Elkarteko lehendakariak, ...

Gainera, nahi izanez gero, aise argi dezakegu oraingo edo iraganeko batez ari garen:

Andolin Eguzkitzak, Euskal Idazleen Elkarteko oraingo lehendakariak, ...

Urlia, Euskal Idazleen Elkarteko lehen/bigarren/azken/laurreko lehendakariak, ...

Eta, hona iritsirik, zabal dezagun une batez *Euskaldunon Egunkariaren Estilo liburua*. Laburki bada ere, oso argi azaltzen du nola eta noiz erabili behar diren komak aposizioetan. Honakoa dio 56. idaztarauak:

"Izenak aposizioz lagunduta agertzen dira sarri. Aposizioa **laburra** bada, izenaren eskuinean doa, **tarteko komarik** gabe. Kasu honetan, aposizioak darama deklinabide marka, amaieran.

Robert Hue PCFko idazkari nagusiak dimisioa aurkeztu du.

Bestela, aposizioa koma artean jar daiteke, eta kasu horretan, deklinabide marka ezartzen zaio bai izenari bai aposizioari.

Robert Huek, PCFko idazkari nagusiak, dimisioa aurkeztu du.

Bigarren formula beharrezkoa da aposizioa luze samarra denean, edo nahasgarri gerta daitekeenean.

Politika utziko duela adierazi du Robert Hue PCFko idazkari nagusi dimititu berriak. (kaskarra)

Politika utziko duela adierazi du Robert Huek, PCFko idazkari nagusi dimititu berriak. (ondo)". (Euskaldunon Egunkaria. Estilo liburua. 24. or.)

Oro har, bat nator aholku zuhur horiekin, baina, dena dela, kontua ez da aposizioa luzea edo laburra izatea, baizik eta, gorago esan dugun bezala, aposizioak adierazten duen berezitasuna pertsona batena edo gehiagorena izatea. Esaterako: HBren Mahai Nazionala hainbat lagunez osaturik dagoenez gero, aposizioa luzea izanik ere ez dago esaterik *Tasio Erkiziak, HBren Mahai Nazionalako kideak, zera jakinarazi du.*

Kontuak kontu, *Euskaldunon Egunkaria*-ko kazetariak komadunak zein komagabeak erabiltzen dituzte, luzera gorabehera. Ikusi adibide batzuk:

Mikhail Txigir-ek, Bielorrusiako lehen ministroak, dimisioa aurkeztu zuen atzo.

... azaldu zuen atzo Mikel Baztanek, LANE erakunde ekologistako presidentea.

... esan zuen igandean Francisco Vazquezek, Galiziako PSOEko idazkari nagusiak.

... adierazi zuen Benjamin Netanyahu, Israelgo lehen ministroak

... aurkeztu zituen atzo Bilbon Rosina Gomez Baezak, ekimenaren zuzendariak.

... adierazi zuen atzo Rosina Gomez Baeza arte garaikideko azokako zuzendariak.

Rafael Vera Segurtagunerako Estatu Idazkaria.

Jesus Cardenal Estatuko fiskal nagusia.

Roland Dumas Kontseilu Konstituzionaleko presidentearen aurka justizia ekitaldia hasi zen herenegun.

Sadam Hussein Irakeko lehendakariari herenegun Bill Clinton EEBBetako presidenteari ohartarazi zion ...

Beraz, badirudi salbuespentzat hartu behar harko genituzkeela tankera horretakoak, eta, eskuzabal jokatu, zilegitzat jo komarik gabe zein koma artean idaztea. Hala ere, koma artean idazteak hainbat arazo sortzen ditu. Pertsona bat bakarrik aipatzen denean, ez dago eragozpen handirik; baina koma horiek nahaste erabatekoa eragin dezakete hainbat pertsona elkarren segidan aipatzen direnean. Euskaldunon Egunkariatik harturiko bi argazki-oin jarriko ditut horren erakusgarri:

Jose Antonio Ardanza lehendakaria, Jose Luis Larrea Euskalteleko presidentea, Juan Maria Urdangarin Vital Kutzako presidentea eta Euskalteleko aholkularia eta Pedro de Torres Simo Retevisioko presidentea.

Zuzena eta argia da. Baina horrelakoek ere badituzte alde txarrak: bi izen propio elkarren ondoan egonik, batzuetan ez dago jakiterik non amaitzen den bata eta non hasten den bestea (nik behintzat ez dakit Simo hori Pedro de Torres-en bigarren abizena den edo enpresa Simo Retevisioren deitzen den). Irtenbide bakarra bururatzen zait:

Jose Antonio Ardanza lehendakaria, Euskalteleko presidentea Jose Luis Larrea, Vital

Kutzako presidentea eta Euskalteleko aholkularia Juan Maria Urdangarin eta Simo Retevisioko presidentea Pedro de Torres (edo Retevisioko presidentea Pedro de Torres Simo).

Eta hona beste adibidea, komaz josia eta erabat iluna:

Iñaki Uria, Egunkariako kontseilari-ordezkaria, Amagoia Gurrutxaga eta Garbiñe Ubeda -faszikuluen egileetako bi- eta Anjel Olalde, Korrikaren koordinatzailea.

Esaldi hori argazki baten azpian dagoenez, badakigu lau lagun direla guztira, baina, nire ustez, nahasgarria da koma mordo hori. Honela egin genezake:

Iñaki Uria Egunkariako kontseilari-ordezkaria, Amagoia Gurrutxaga eta Garbiñe Ubeda -faszikuluen egileetako bi- eta Anjel Olalde Korrikaren koordinatzailea.

Edo honela:

Egunkariako kontseilari-ordezkaria Iñaki Uria, Amagoia Gurrutxaga eta Garbiñe Ubeda -faszikuluen egileetako bi- eta Korrikaren koordinatzailea Anjel Olalde.

Beste batzuetan, nahasgarriak ez badira ere, enbarazu besterik ez dute egiten, esaldia alferrik eteten baitute behin eta berriro. Komak jarrita, ikusi nola geratuko liritekeen lehen aipatu ditugun esaldietako bi:

Bill Clintonek, EEBBetako lehendakariak, horren berri eman zion John Howardi, Australiako lehen ministroari.

Sadam Husseini, Irakeko lehendakariari, herenegun Bill Clintonek, EEBBetako presidenteari, ohartarazi zion ...



Koma arteko aposizioek, bestetik, arazo larriak sortzen dituzte galdegai direnean. Aditzaren eta galdegaiaren artean ezin da koma arteko aposiziorik sartu, baina, tamalez, oso zabaldurik dago akats hori. Geroxe-ago hitz egingo dut horretaz, baina, auzia hizpidera etorri zaigunez, ezin eutsi adibide- txo bat jartzeko gogoari:

*Hillary Rodhamek, Bill Clinton EEBB-
tako lehendakariaren emazteak, hartu du
bere gain 'Lewinsky aferari' aurre egiteko
ardura. (Euskaldunon Egunkaria).*

Beraz, badirudi zuhurragoa dela horre-
lakoak komarik gabe idaztea, edo, aukeran
—dela bi izen propioen arteko mugak ilun
geratzen direlako edo dela hainbat aposizio
daudelako bata bestearen atzean—, *Errusiako
lehendakari Boris Jeltsin-en tankerakoak era-
biltzea.*

Nolabait esatearren “kargu bakarra” adie-
razten duten horiek salbuespentzat harturik,
gainerako kasuetan zorrotz bete beharko ge-
nituzke arau hauek: aposizio zehaztaileak
komarik gabe; aposizio azaltzaileak koma edo
marratxo artean. Hain zuzen ere, arau hori

urratzea dugu akatsik ohikoenetako bat. Be-
gien bistakoa da honakook erabat okerrak
direla:

Bilbok, hiriak, 368.710 biztanle ditu.

Axular, idazlea, Urdazubin jaio zen.

Jakina, inork ez du horrelakorik egiten.
Baina aposizioan zenbat eta elementu gehia-
go egon, orduan eta handiagoa da akats hori
egiteko joera. Ez da zaila honelakoak entzun-
irakurtzea:

*Xabier Mendigurenek, idazle ospetsuak,
hau eta bestea esan du.*

*Urliari, Lekutako Unibertsitateko irakas-
leari, halako saria eman diote.*

Esan bezala, horrelako esaldiek zentzu
atributiboa dute zehaztailea baino gehiago.
Horregatik, zilegi da komak jartzea, baina ez
horrela, besterik gabe. Koma arteko tarteki
horietan beste zerbait jarri behar dugu artiku-
luak daukan indar “bakartzailea” neutraliza-
tzeko:

*Xabier Mendigurenek, idazle ospetsu ho-
rrek, hau eta bestea esan du.*

Boris Jeltsini, lehendakari vodkazale horri, ...

*Fernando I.a erregeak, (zeina) ausarta bai-
tzen, hau eta bestea egin zuen.*

*Fernando I.a erregeak, ausarta izaki, hau
eta bestea egin zuen.*

*Gabriel Aresti idazleak —emankorra bera—
hainbat liburu idatzi zituen.*

Beraz, nire ustez ez da zuzena *Euskaldu-
non Egunkaria* n irakurritako hau:

*Jose Ramos-Horta, Bakeraren Nobel sari-
duna, New Yorken izan da.*

Esaldi hori honela itzuli beharko genuke gaztelaniara:

José Ramos-Horta, el premio nobel de la paz, ha estado en Nueva York.

Baina, inondik ere, kazetariak beste esaldi hau zeukan buruan:

El premio nobel de la paz José Ramos-Horta ha estado en Nueva York.

Eta horrek, jakina, honela behar du euskaraz:

Jose Ramos-Horta Bakeraren Nobel sariduna New Yorken izan da.

Euskaldunon Egunkariara mordoka hel-tzen zaizkie aposizioak teletipoetatik, eta airtortu beharra dago gehienetan ondo ekartzen dituztela euskarara. Baina akatsen bat edo beste lerratzen zaie noizean behin, eta nago ez didatela kargu hartuko hanka-sartze bakan horietaz baliatzeagatik nolako okerrak egin ohi diren erakusteko. Hona hemen, bada, jokabide zuzenaren adibide batzuk:

Baltasar Garzon Entzutegi Nazionaleko epaileak ...

Jesus Cela Seoane GRAPOko kidearen bahiketa ...

Jerzy Semkow maisu poloniarrek ...

Luzeak izanik ere, ulertze-arazorik gabe irakurtzen dira gehienetan. Hona adibide bat:

Anjel Figueroa euskal preso eta Bizkaiko Batzar Nagusietako partaide ohiaren senitartekoek ... (Euskaldunon Egunkaria).

Hona beste bi, lehena zuzena eta bigarrena okerra, biak *Euskaldunon Egunkaria* tik hartuak:

Jose Luis Santos 37 urteko ustezko igerleak ...

Fernando Elejalde Tapia, 28 urteko donostiarra, ...

Eta aposizio zehaztaileak koma artean jartzea bezain okerra da aposizio azaltzaileak komarik gabe ipintzea.

Elurra egin du Mosku Errusiako hiriburuan.

Oiz Bizkaiko mendirik altuena 1.029 m garai da.

Egia esan, gutxitan ikusten dira horrelakoak, baina hara zer idatzi zuten orain dela gutxi *Euskaldunon Egunkaria*ko argazki baten azpian:

Tasio Ardanaz gaur epaituko duten intsumiso-desertore iruindarra. (Izan ere, intsumiso-desertore iruindar bakarra epaitu baitzuten egun horretan).

Honakoa, ostera, zuzena da:

Bi urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra ezarri dio Coruñaeko Auzitegi Militarrek Iñaki Ardanaz 'Tasio' intsumiso-desertore iruindarrari. (Izan ere, Tasio ez bide baita intsumiso-desertore iruindar bakarra).

Oso zabaldurik dagoen beste akats bat da erlatibo zehaztailea erabiltzea aposizioen ordez.

Nilo ibaiak, Egipton dagoenak, ...

Horrela, dislokaturik, disimuluan pasatzen da. Okerra are nabarmenago geratzen da honela:

Egipton dagoen Nilo ibaiak ...

Errusiako lehendakari(a) den Boris Jeltsin ...

Halako saria irabazi duen Berendia ...

Esan bezala, izugarri zabaldurik dago erlatibo zehaztailearen erabilpen oker hori, idazkera behar adinako ganoraz jagoten ez duten ez duten hedabide eta liburuetan batez ere.

Nazio Batuetako Errefuxiatuentzako Komisariatu Nagusiko (UNHCR) bulegoko burua den Vincet Cohetel babitu zuten atzo Ipar Osetian. (Egin).

Kanpo Arazoetarako Ministerioko bozemailea den Yves Doutriauxek adierazi zuenez. (Egin).

PSOEko Politika Autonomikoko idazkaria den Ramon Jauregik atzo jakinarazi zuenez. (Egin).

Dena dela, hemen ez dugu erlatibozko esladien arloa jorratuko, beste batzuek hartu baitute horretaz luze eta sakon hitz egiteko nekea. Besteak beste, biziki gomendatzen dizuet Juan Garziaren *Joskera lantegi* liburu mardul bezain argigarria irakurtzea.

Komunztaduraren auzia

Aposizio zehaztaileetan, komarik ez dagoenez, kasu-marka bakarria ipintzen da, izen-sintagma osoaren amaieran. Baina zer egin aposizio azaltzaileetan? Kasu-marka errepikatu beharra dago? Nire ustez, bai. Baina bestelako aukerak ere ba omen daude. Azter ditzagun.

a) “Gehienetan badirudi aski dela kasu marka behin bakarrik ezartzea, izen sintagma osoaren azkenean”. (EGLU I, 208. or.).

Campion, euskaltzale fin hark, sarritan esaten zuen... (EGLU I, 208. or.).

Andoni, nire lehengusuari, gauzak gaizki atera zaizkio. (EGLU I, 208. or.).

Niri, egia esan, bitxi samarrak iruditzen zaizkit horrelakoak. Ergatiboan ez dira oso nabarmen geratzen, baina gainerako kasuetan bai, honelakoak egingo baikenituzke:

Oiz, Bizkaiko mendirik altuenean, txori asko dago.

Koldo, zure aitarekin, ondo moldatzen naiz.

Eta ordena aldatuz gero, are bitxiago geratzen dira:

Gauzak gaizki atera zaizkio Andoni, nire lehengusuari.

Txori asko dago Oiz, Bizkaiko mendirik altuenean.

Ondo moldatzen naiz Koldo, zure aitarekin.

b) “Arazo horien aurrean, gaur egun, indarra hartzen ari da corpus honetan atzeman dugun prozedura bat: hots, aposizioa bere hartan uztea, baina atzizkia ezabatuz edo, bestela esanda, aposizioko sintagma nominatiboan jarritz”. (“Erdarazko erlatiboen itzulpenaz”, Koldo Biguri, in *SENEZ*, 15. zbk.).

Villasantek ere hala egin daitekeela dio. Bi aukera ematen ditu: kasu-marka errepikatzea edo aposizioa nominatiboan (edo absolutuan, kasu-markarik gabe) uztea (ez du aipatzen EGLUK “hobesten” duen aukera.).

“Hay otro tipo de aposición en que el determinante es libre. El caso del sintagma en aposición es el caso del núcleo, o bien, es el nominativo. El lugar de la aposición es relativamente libre: puede seguir inmediatamente al núcleo o bien estar separada de él por otros sintagmas”. (*Estudios de sintaxis vasca*, 142-143).

Sinesten dut Jainko Aita Ahalguztiduna baitan, zeru-lurren egilea. (Op. cit.).

Jakin genuen karteroengandik, herriko gizonik jakintsuena. (Op. cit.).

Txori asko dago Oizen, Bizkaiko mendirik altuena.

Gauzak gaizki atera zaizkio Andoniri, nire lehengusua.

Ondo moldatzen naiz Koldorekin, zure aita.

Niri, egia esan, bitxi samarrak iruditzen zaizkit horiek ere. Eta ordena aldaturik, are bitxiagoak:

Andoniri, nire lehengusua, gauzak gaizki atera zaizkio.

Oizen, Bizkaiko mendirik altuena, txori asko dago.

Koldorekin, zure aita, ondo moldatzen naiz.

Egokiena, nire ustez, kasu-marka errepikatzea da. Nik behintzat hala egiten dut. Ez diot inolako eragozpenik ikusten eta, gainera, badirudi hori dela joerarik zabalduena. Hona, berriro, *Euskaldunon Egunkariatik* hartutako batzuk:

... azaldu zuen atzo Mikel Baztanek, LANE erakunde ekologistako presidenteak.

... esan zuen igandean Francisco Vazquezek, Galiziako PSOEko idazkari nagusiak.

... adierazi zuen Benjamin Netanyahu, Israelgo lehen ministroak.

Eta hona, berriz, *Urrezko Astoa* liburutik hartutako hauek:

Horregatik, jakin nuenean gazta berri gozozoa saltzen zutela Hipata-n, Tesaliako hiri nagusian, (...). (21. or.).

(...); izan ere, bezperan, Lupok, neurri handiko sal-erosketak egiten dituen batek, eroskitzun osoa bereganatu baitzuen. (21. or.).

Emakume on hori eta zorigaiztoa izan dituk lehentxeago nengoan egoerara, hik heuk ikusitakora, eraman nindutenak. (23. or.).

Hain ederra omen zen, non Hadesi, lurrazpiko munduetako agintariari, berealdiko grina piztu baitzion. (80. or.).

Edipok, horien aitak, intzestua egiten du (...). (288. or.).

Galdegia eta aposizioa

Aditzaren aurrean dagoen sintagma batek oso nekez eraman dezake aposizio bat. Galdegia baldin bada, erabat ezinezkoa da. Galdegaiaren definizioan dago bera eta aditzaren artean pausarik egin ezina. Zer egin, bada, galdegaiak aposizio bat daramanean? Argi dago ezin dela galdegaiaren arau nagusia besterik gabe urratu aposizioa koma eta guzti hor jarrita. Honelakoak, esaterako, ez dira onargarriak:

Ozeano Pazifikokoaren hegoaldean, Txileko Pascua uhartearen parean, erori ziren espazio-zundaren zatiak.

Profeta faltsuez ere, hau da, Jaunak bidaliak izan gabe haren izenean herriari hitz egiten diotenez, mintzatzen da Biblia.

Burua nekatu beharra dago irtenbide egokien bila, egon badaude eta. Hona hemen banaka batzuk.

a) Aditza aurreatzea (ahal izanez gero, jakina).

Sinesten dut Jainko Aita Guztiahaltsua baitan, zeru-lurren Egilea. (Villasante. Estudios de sintaxis vasca. 143).

Jakin nuen karteroengandik, herriko gizonik jakintsuena. (Villasante. Estudios de sintaxis vasca. 143).

b) Aposizioa aditzaren atzean jartzea.

Espazio-zundaren zatiak Ozeano Pazifikokoaren hegoaldean erori ziren, Txileko Pascua uhartearen parean.

Biblia profeta faltsuez ere mintzatzen da, Jaunak bidaliak izan gabe haren izenean herriari hitz egiten diotenez alegia.

Bere errainarekin bizi zen, Sadik-en emaztearekin. ("Alegia" jar genezake amaieran).

Aizkolari asko bildu dira Tolosan, herrialde guztietatik etorriak. ("Galdegai arrunta eta aposizioak" Juan Garzia, in Administrazioa euskaraz, 14. zbk.).

Gizon bat ikusi nuen geltokian, antzinako arropa dotorez jantzia. ("Galdegai arrunta eta aposizioak" Juan Garzia, in Administrazioa euskaraz, 14. zbk.).

c) Aposizioa marratxo artean jartzea.

Marratxo arteko akotazioa ez da etentzat jotzen eta, beraz, zilegi da aditzaren aurrean, baita galdegai bada ere.

d) Aposizioaren eta aditzaren arteko koma ezabatzea.

Nik behin baino gehiagotan egin dut hori.

Horren ondorioz, Mikhailovskoiera, amak Pskov probintzian zeukan etxaguntzara bidali zuten. (Kapitainaren alaba. 11. or.).

1830eko abuztuaren Bolodinora, aitaren herrira joan zen. (Kapitainaren alaba. 12. or.).

1831n Natalia Gontxarovarekin, San Petersburgeko emakumerik ederrenetako batekin ezkondu zen. (Kapitainaren alaba. 12. or.).

Harrezkero bere herrian bizi izan zen, Simbirs eskualdean, eta Avdotia Vasilievna Juska gaztearekin, bertako aitonen seme behartsu baten alabarekin ezkondu zen. (Kapitainaren alaba. 21. or.).

Egia esan, zalantzak izan nituen, zilegi ote den koma hori ezabatzea. Dena dela, bilatzen hasita, tankera horretako hainbat esaldi aurkitu ditut han-hemenka.

(...) lotu zion txamarra burniari zatar-lokarrari aien bidez, eta gero oera, len zegoan tokira itzuli zan. (Santa Kruz apaiza. 36. or.).

Jose Barrionuevok, Garraio, Turismo eta Telekomunikabideetako ministroak hitz egin du Kongresuan. (Egunkariaren estilo liburua. 1. edizioa. 74. or.).

Iasser Arafat, Palestinaren Askapenerako Erakundearen presidentea esan duenez. (EITB. Euskarazko albistegietarako esku-liburua. 60. or.).

Hori guztia don David Freire Angulok, Badajozeko kartzelako oraingo kapeilauak bidaltzen dit. ("Erdarazko erlatiboan itzulpenaz", Koldo Biguri, in SENEZ, 15. zbk.).

Zeusen seme, jainko horrek Alkemenarekin, Anfritrionen emaztearekin izandako harremanetatik. (Urrezko astoa. 88. or.).

Medikuntzako testuetako zenbait okerbide eta balizko aje

ROBERTO MANJÓN

Artikulu honek hiru helburu ditu: lehenengoz, ahaleginduko naiz ingelesetik erdaratutako testuetatik euskarara itzultzeak sortzen dituen okerbide batzuk agertzen eta, ahal dudan neurrian, konponbideak proposatzen; bigarrenez, iruzkinak egingo ditut gaiarekin zerikusi duten eta boladan dauden iritzi eta "aje" batzuei buruz, eratzen ari garen euskal hizkera berri samar honen kalterako edo mesederako gertatzen direlako; azkenik, per-paus barruko osagaien ordenari buruzko arazoa aztertuko dut, nire ustez, eragozpenen gunea zein den erakustearren, eta, halaber, oztopoak gainditzeko hartu behar den jarraera egoki bat defendatzeko asmoarekin. Azken gai horri loturik, lagungarri batzuk azalduko ditut, ezagunak izan arren, adibide praktikoak baitira, aukeratu ditugunak pres-tatzen ari garen oinarrizko hiztegirako.

Beti ere kontuan har bedi medikuntzako edo Administrazio Sanitarioko hizkera maila formalaren gainean ari naizela, teknolektoa edo Administrazio barrukoa hizpide hartuta beraz, ezen medikuntzari buruz inguru desberdinetan jardun dezakegu, hala familian nola lagunartean, alegia, medikuen bilera klinikoetatik landa.¹ Nolanahi ere, gauza jakina da eremuon artean loturak, bideak, erlazioak eta trukeak daudena.

1. Medikuntzaren nazioarteko hizkuntza eta itzultzailearen katramilak: gaztelaniazko testuetako okerrak

1.1. Medikuntzaren nazioarteko hizkuntzen eragina

Aldizkari honetan lehengo batean nioenez,² grekoa izan zen antzinatean medikun-

1. UGARTEBURU, Iñaki, "Medikuntzako euskara ereduak" I, II, UZEI, *Berba*, 21 (1996) eta 22 (1997).

2. MANJÓN, Roberto, «Administrazio sanitarioko euskara: egoera, itzulpena eta arazo terminologikoak», *Senez*, 17, 1996

tzaren lehenengo hizkuntza, Mendebalean bederen. Erdi Aroan, latinak hartu zuen lema mendebaleko Europan eta arabierak islamiar munduan. Gure esparruan, latina izan zen medikuntzaren guztiontzako hizkuntza XIX. mendea arte. Ondoren, hizkuntza nazionalak ordezkatu zuten.

Ordezkapen hori, ordea, ez da inoiz askotarikoa izan, zeren, nahiz eta tokian tokiko hizkuntzetan aritu, beti egon baita nazioarteko hizkuntza bat, medikuen bigarren lanmintzamolde izan dena, lehenengoa izan ez denean.

Frantsesak hartu zuen lehendabizi latina-
ren leku hori.³ Ondoren, alemaniera egin zen nagusi,⁴ eta, gaur egun, ingelesa da duda bari-
rik.

Frantsesak Espainiako medikuen gaztelan-
ian galizismo ugari sartu badu ere, batez ere *-aje* amaieradun elkarketan gailentzen da haren eragina, galizismo asko ingelesaren bidez ailegatu dira eta.

Alemanieratik interferentziak gutxiago dira. Gaztelaniaren eta hizkuntza germanikoaren arteko aldea handiagoa izateak lagundu du horretan, eta, gainera, hizkuntza bien arteko harremana txikiagoa eta laburra-
goa izan da beti. Azkenik, bada funtsezko

beste arrazoi bat: itzultzaileen kalitatea. Izan ere, alemanieratik itzuli izan dutenek pres-
takuntza linguistiko sendoagoa izan dute.

Hori horrela, gogoan izan behar dugu badagoela alemanieraren zeharkako eragina, biziki garrantzitsua baina hautemateko gaitza, ez baita alemaniar hitzekin gorputzen: germaniar zientifikoek neologismoak latin eta grekozko hitzekin eratzeko jokabide nabarmena izan zuten («alergia» kasurako), Alemanian latina unibertsitateko hizkuntza izan baitzen XIX. mendea ondo aurreratua egon arte. Horren ondorioz, medikuntzako termino askok hizkuntza klasikoan itxura badute ere, ez daude hizkuntza horien lege morfologikoekin eraturik, alemanieraren ahotik baino.

Begi bistan da gaztelaniak ez duela egin-
kizun nabarmenik izan medikuntzako nazio-
arteko kontzeptuen erabidean; aitzitik, hiz-
kuntza hartzailea izan da beti, eta hortik etorri
zaizkio ohiko hizkuntz eta itzulpen-arazoak,
hartzaile hutsak garenok ederto ezagutzen
ditugunak.

Baina gaztelaniaren gorabeherak okerbi-
de izaten dira Administrazio Sanitarioan edo,
oro har, gai horietaz euskarara itzultzen du-
ten guztientzat, zeren, gehiena ingelesetik

3. FRANTSESA: XVIII. mendearen amaieran antzematen du frantsesak hizkuntz zientifiko nagusiaren maila. medikuntzaren alorrean, ekarpen handiak egin ziren frantsesez, batez ere Fisiologian (Bichat-ek eta Magendie-k, Claude Bernard-ek), Neurologian (Charcot-ek, Broca, Pierre Mariek, Brouhard-ek, Babinskik) Mikrobiologian (Pasteurrek, Calmettet-ek, Metchnikoff-ek, Nicolle-k, Roux-ek, Yersin-ek), Anatomian (Testut-ek eta Rouvière-k).

4. Alemanera da Europan hitzuen gehien duen hizkuntza (ama-hizkuntza 85.000 herritarrentzat), eta, erdian kokaturik, giltzarri gertatzen da Europa erdiko eta ekialdeko estatuekiko harremanetarako. Bestalde, germaniarrak dira nederlandera, flandoesera, daniera eta Eskandinaviako hizkuntzak, Finlandiako suomiera izan ezik.

XIX. mendearen amaiera nazioarteko hizkuntza nagusia zen Filosofian, Linguistikan, Kimikan eta medikuntzan. 1850.etik Lehenengo Mundu Gerrara bitartean medikuntzaren hiru atal nagusietan egin ziren funtsezko ekarpenak alemanieraz adierazi ziren, alegia, zientzia morfologikoetan (Anatomia, Enbriologia, Histologia eta Anatomia Patologikoa), Fisiologian eta Biokimikan, eta, azkenik, Mikrobiologian. Eta nola ahaztu Psikologiari alemanieraz egindako ekarpenak, Freuden psikoanalisi eta haren oinarriak, berebiziko eragina izan dutenak gaur egungo psikoterapiari.

itzulpen bidez eskuratzen dugularik, ia beti gaztelanian zehar heltzen baita gurera.

Bekatu larria egingo nuke, ordea, salbuespen aipagarriarik ez dela falta ostenduko banu, ezinbestez azpimarratu behar baitut gaurkoz medikuntzan dugun lan nagusietariko bat, *Gaixotasunen eta horiekin lotutako osasun-arazoan nazioarteko sailkapen estetikoa, GNS-10* (aurrerantzean, GNS-10),⁵ UZEIk, Osasun Sailaren aginduz, ez duela gaztelaniatik ekarri euskarara —ezin egin zezakeena bestalde— ingelesetik baizik. Esan behar da gaztelaniaraz bederatzigarren berrikuspena baino ez dela ezagutzen.

1.1.1. Ingelesaren eraginez, gaztelaniako testuetan euskal itzultzaileek aurki dezaketen zenbait arazo eta okerbide

Esan bezala, ingelesa da Espainiako eta bertoko medikuen nazioarteko hizkuntza, eta hainbestean non, gaztelaniaraz idazten diren medikuntzako testu gehienetan jatorrian, alde edo moldez, ingeleseko testuak baitaude. Bestela esanda: ingelesaren bitarteko testu-artekotasun baten barruan dihardugu, konturatu gabe sarritan.

Itxaron daitekeenez, asko dira horrela sortutako itzulpen gaiztoak, sasilagunak, alfer-kalkoak eta kontzeptu okerrak. Bestalde, gaztelaniako hizkuntz zaindariantzat onartezina den kalkoa, batzuetan, onargarria edo hobestekoa izan daiteke guretzat.

Esan gabe doa zaindari horiek, ahaleginak ahalegin, galduta dutela gudua,⁶ me-

dikuek halako anglizismoren bat bereganatu ondoren, hizkuntz erabiltzaileena baita eta ez zaindariena, eta erabiltzaileak —medikuak, kasurako— funtzionarioak izan zein ez izan, ez dira errege-akademia batetik letorkeen larderiagatik erraz kikilduko, soldata galtzeko arrisku guztiak gorabehera. Aitzitik, halako zaindariak, tematuz gero, barregarri geratzeko arriskuan daude. Azken batez, egoera hori aski normala da, gizarte normal batean bederen.

Hurrengo lerroetan gaztelaniarazko testuetan azaltzen diren interferentzia izan daitezkeen batzuk azalduko ditut, Fernando A. Navarrori jarraiki.⁷ Ez ditut autore horrek erakusten dituen kasu guztiak ekarriko orri hauetara, neure esperientziaren arabera maiztasun gehienekotzat jotzen ditudunak baino.

Euskarazko baliokideen arloan gehien erabiltzen direnak aipatuko ditut.

Admisión (admission).— Ingeleseztan eta frantseseztan hitz bera erabiltzen dute, Espainiar Sanitateko *ingreso*-ren baliokideekin. Horrekin zerikusia du, ziur aski, gure ospitaleetako eta zenbait osasun-zentrotako *Admisión/Onarpena* errotulu ohikoak.

Osakidetzan eta Osasun Sailean *ingresu* eta *ingresatu* erabiltzen ditugu *ingreso* eta *ingresar* adierazteko, ez, bada, *onartu/onarpena*. Ez dakit nolako ñabardurak eta konnotazioak dituen ingeles-frantses hitzak, ez eta herri horietan sanitateari nola begiratzen dioten ere, baina, gurean, behintzat, *admitiri/onartu* ez datoz bat gure kultura sanitario-

5. World Health Organization, Geneva, 1992—Osasun Saila, Vitoria-Gasteiz, 1996

6. Ikusi bestela medikuntzan jaun eta jabe den “detectar” egunerokoarekin, gehienetan “txarto” edo erabilia, “observar”, “percibir”, “encontrar”, “localizar”... eta beste aditz batzuen hondamendia.

7. NAVARRO, A. Fernando, *Traducción y lenguaje en Medicina*, Fundación Dr. Antonio Esteve, Barcelona 1996

arekin, are gutxiago erakundeek bultzatu nahi omen dutenarekin.

Dena dela, errotuluek beren arazoak dituzte. Osakidetzako ospitale guztietan agertzen da *admisión* hori, baita zenbait osasun-zentrotan ere. Hala da; testu okerra bada ere, ospitaleetako agintariek pozik daude egin duten aukerarekin, pazienteak onartu edo ez onartzeko ahalbideak liluraturik nonbait.


Autólogo (autologous).- Geuk *autotransplante* eta *autotransfusioa* erabiltzen ditugu, baina *transplante autologo* eta *transfusio autologo* ere bai, nahiz eta *autologo* hori, arrazoi etimologikoengatik, gaztelanian gaitzesten duten.

Bimensual (bimonthly).- Gaztelaniaz *bimensual* eta *bimestral* izan daitekeenez, sarritan ez dute ingelesez kasu bakoitzean har dezakeen balorearekin ematen. Erne, beraz: euskaraz, kasuan kasuko, "hilean bitan" edo "bi hiletik behin" izan liteke.

Canal, canal respiratorio... (*channel*).- Gaztelaniaz, "kanal" okerraz itzultzen dute batzuetan. Zuzena *conducto*, *tubo*, *tracto* da. Euskaraz ohiko baliokidea *bide* da, ez *kanal*: *gernubide*, *arnasbide*. Hala ere, *GNS-10*ean *traktu* darabilte gaztelaniaren *tracto* adierazteko, eta aukera hori sistematikoa da OERen *Anatomia hiztegian*.⁸ Hor badago, bada, bateratu beharreko beste puntu bat.

Cerviz (cervix).- *Cancer cervical* euskaraz *umontziaren lepoko minbizia* da. *Lepoko minbizia* itzultzen da askotan; ondo da, baina itzultzaile berriak ulertu behar du "umontziaren" elipsian dagoela.

Desorden (disorder).- Euskaraz, *alterazio*, *nahasketa*, *nahaste*, *asaldura*, zenbaitetan *gaixotasun* besterik gabe.



Discapacidad (disability).- Dirudienez, *discapacidad* berri samar hori ingelesaren kalkoa da. Zer alde hartzen dio *minusvalta-ri*? Dena dela, susmoa dut, hitzaren konnotazioagatik (gutxiago balio?), azpian ez ote dagoen *minusvalia*-ren ordezeko txukun bat bilatzeko xedea. Txukunago nahi izanez gero, *desgaitu* ere eskueran daukagu.

Estandar (standard).- Kasuen arabera, *eredu*, *mota*, *erreferentzia*, *araua*.

Evidencia (evidence).- Ingelesez sarritan ez da *nabaria*, *begi bistakoa*, *nabarmena*, hauek baino: *zantzuak*, *frogak* edo zerbait adierazten duten datuak.

Eyección (ejection).- Euskaraz, *jaurtikiltze*, *botal-tze* erabil daitezke, baina *ejekzio* ere erabili izan da.

Emergencia (emergency).- Gaztelaniaz, normalean, *urgencia* behar luke (*Servicio de urgencias*). Euskaraz, *emergentzia*, *urgentzia* eta *larrialdi* erabili izan dira, azkena batez ere

8. OE-Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea, *Anatomia Hiztegia*, Erein, Donostia, 1995

jendaurreko errotuluetan. Dena den, urgentziako eta emergentziako zerbitzuak bereizi behar ditugu ezinbestean, Osakidetzan desberdinak direlako. Lehenengoak zeinahi kasu atenditzen du, normalean larriak⁹ ez direnak, baina orduagatik edo kasu motagatik edo presaka asistitu behar direlako zerbitzu arruntetan hartzerik ez dagoenean. Bigarrenak usategabeko kasu larriak asistitzen ditu, medikua, erizaina eta tresneria bertara eramanda, larri daudenek ezin baitute, normalean, urgentziako zerbitzuetara joan. Horregatik, bizi-euskarri aurreratuz¹⁰ hornituta egoten dira emergentzietako zerbitzuak.

Kontutan harturik *urgentzia* euskaldun gehienok erabiltzen dugula, Bizkaian hasi eta Zuberoaraino, horixe erabil dezakegu gaztelaniaren *urgencia* eta frantsesaren *urgence* hitzen baliokide legez. Gainera, mailegu horrek, denontzat ohikoa izanik, ez gaitu Iparraldekoak eta Hegoaldekoak bereizten.

Osasun Sailean eta Osakidetzan ere horixe erabiltzen dugu barruko dokumentuetan —nahiz eta jendearentzako errotuluetan ohikoa den *Larrialdiak* aldatzen ez dugun— eta *Emergentziak* eta *Emergentzietako lurralde-unitateak* baliatzen ditugu unitate berezi horietarako.

Agian, benetako larrialdiak asistitzen dituen gero, *Larrialdiak* har genezake *Servicio de emergencia* adierazteko, baina herritarrek larrialdiak umeak hanka apurtu eta atenditzen duen ospitaleko zerbitzuarekin identifikatzen dutelarik, ez dirudi konponbide ona. Jakina, medikuek abenikoz erabaki le-

zakete *larrialdi* esatea gaztelaniaren eta frantsesaren *urgencia-urgence* adierazteko, eta, orobat, abenikoz xedatu lezakete *larri* (hots, bizitza arriskuan egotea) ez lotzea *larrialdi* hitzari, *urgencia* esangura duenean. Baina, zertarako sartu nahasbide hori?

Gauza jakina da hizkuntzan ez dagoena sortzetiko bekaturik, alegia, zeinahi arrazoi dela kausa txarto eraturako edo txarto hautatutako hitzik, dabilen errekarriak ez baitu batzen goroldiorik. Ordea, nola sortu hitza okerreko bidetik dihardugula ohartuki?

Espiración (expiration).— Kontu handiz ibili behar dugu erdal hitz hori agertzen denean, sarriegi nahasten baitituzte *espiración* (arnasa botatzea) eta *expiración* (hiltzea). Tesuinguruak ez du beti aldea argitzen.

Gabinete (cabinet, frantsesez).— Sanitatean, *konsultategi* edo *konsulta* da. *Bulego* izan daiteke beste arlo batzuetan. Ezin da erdeinatu gaztelaniaz hartu duen beste esangura bat: talde-lanean diharduten profesionalen multzoa, edo agintari baten aholkulari-taldea. Kasu horietarako *kabinete* mailegua balia dezakegu.

Global (global).— Eskuarki, *mundu*- edo *munduko* izaten da.

Gripe (gripe).— Batzuetan *koliko* izaten da, ez *gripe*.

Huesped (host).— Mikrobiologian bizkarroiari ostatu ematen diona, pairatzen duena alegia. Gaztelaniaz, ingelesaren antzera, *huesped* ostatu ematen eta hartzen duena izan daiteke, eta, halaber, baita euskaraz ere, *ostalari* hitza esangura horrekin gutxi erabiltzen

9. "larri" adjetiboak bizitza galtzeko arriskua mailakatzen duela onartuz gero.

10. "soporte vital avanzado", heriotzatik hurrean daudenei bizirik iraunarazteko.

bada ere. Nolanahi ere den, arretaz ibili halako testu batean *huesped* agertzen denean, txarto ulerturik egon ez dadin.

Infante (*infant* ingelesez, *enfant* frantsesez).- Ingelesez “bularretako umeak” izaten dira, alegia, urte bitik beherakoak. Frantsesez *enfant* nerabazarora heldu ez den umea da. Espainiako *infantill/pediátrico* hurbilago dago frantsesen ikuspegitik anglosaxoniarretik baino; hala ere, bereizketa hori ez da finkoa eta ez bakarra. Erne ibili, baina ez itzuli *infantil* hitza *Pediatriako* emanez.

Medicina comunitaria (*community medicine*).- Bikote honekin badaezpadako anabasa dago. Ingelesaren *Community Medicine* erdaraz *Medicina Familiar*-en parekoa omen da. Baina gure osasun-sisteman biak erabiltzen dira, eta argitzen saiatu naizen arren, ohartu naiz medikuek —neuk galdetutakoek— ez dituztela argi bereizten. *Familiako medikua* eta *Komunitate medikuntzako*a bat bera izaten da. Familiako medikuak bere zerrendako pazienteak atenditzen ditu, eta medikuntza prebentiboa ere egiten ei du. Hori horrela izanik, famili eta komunitate medikuntza dugu Osakidetzan. Desberdinak ote? Ez dakit. Errotuluak alde batera utzirik, erne ibili beharko da termino irristagarri honekin testuetan topo egiten dugunean.

Soplo (*murmur*).- Erderaz *murmullo* gaitzestzen dutenez, *soplo* aurkituko dugu askotan. Geuk, ordea, *murmurio* baliatzen dugu, ingelesari jarraiki.

Randomización (*randomization*).- Ausazko banaketa, banaketa aleatorioa.

Ranking.- Euskaraz ere *ranking*, edo, bestela, *sailkapena*, *zerrenda*, *kategoria*, *mota*, *maila*...

Scanner.- Kontuz ibili behar da hitz honekin, zeren eskaner hitza OTA (TAC), eko-grafia eta gammagrafia ere izan baitaiteke.

Screening.- Esangura desberdinak izan ditzake: detekzio sistematikoa, diagnostiko goiztiarra, aurrekariak aztertzea, azterketa. Dena den, haren frantses baliokidea usuago aurkituko dugu: *despistaje* (*dépistage*).

Severo (*severe*).- Hau da, “gaixotasun edo egoera larria” (bizitza arriskuan baitago), “min handia, zorrotza”...

Stress.- Kasuen arabera, *estresa*, tentsio psikikoa denean, baina *urduritasun*, *larritasun*, *esfortzu* edo *ahalegin*, *eraso*... bestelakoe-tan.

Tableta (*tablet*).- Medikiak hartzeko agintzen duen konprimatua da.

1.1.2. Frantsesak eragindakoak

Bigarren idazpuru honetakoak frantsesetik datoz eta, komeni da gure testuetan maiz agertzen direnak aipatzea:

Enervar (*énerver*).- Gaztelaniaren berezko esanguran, *ahuldu*, *makaldu* da, baina frantsesaren eraginez, *urduritu* izaten da.

Ganglión (*ganglion*).- Gaztelaniaz *ganglión* eta *ganglio linfático* edo *nervioso* nahasten dituzte. Hortaz, ez da *ganglioi*, *gongoil linfático* edo *gongoil nerbioso* baino.

Garrote (*garrot*).- *Tornikete*, *konprimagari*, *konprimagailu*.

2. Ajeak. Eztabaidan jarri dituzten hitz batzuen gaineko iruzkinak

Badirudi azken bolada honetan berri-berri direla euskararen zuzentasunaren eta Iparraldeko euskaldunetikiko batasunaren gaineko kezka, halako moldez non irudi baitu ezen, zenbait tokitan eta mundutan hil hurran dagoelarik ere, euskararen eritasunik handiena horixe dela eta eleen aferetan iritzi baten-

dako baizik ez dela tokirik egokitu eta geratu.

Bide murrizketen aldeko oldarrak, Aitorren hizkuntza zaharra Babelgo Dorretik irten zenean bezain garbi utzi beharrez, ezagun zaharrak ditugu Euskal Herrian, aldizka jotzen gaituztelarik, eta, halaber, egiazatuak haien pentsamolde antzueren fruitu erkinak.

Gure gaiari gagozkiolarik, uste dut Ibon Sarasolak bere azken saioan¹¹ egiten dituen proposamen batzuek gogoeta txiki bat eskatzen dutela, batzuetan, ohar egokiak egiten baditu ere.

Zain edo odol-zain (bena ordezkatzeko).- Medikuntzaren euskal hizkeran ez dago se-guru eta finkatutzat jo dezakegun hitz eta esamolde asko, *bena*, ordea, hedaturik dago, eta ez dago, nik dakidanez, kontrakarra nabarmenik.

Ezin gaitzke egunero oinarri bila hasi, Sarasolak dakienez, ez eta erabiltzen dena, testu jasoetan noski, arrazoi sendo-sendorik gabe bazterrera bota, egingo genukeen balizko aurrerapenak nekez berdindu bailezake pairatuko genukeen kaltearen handia.

Gogora ekarri nahi dut arlo honetan dihardugunok badugula arau-emailetzat hartu behar genukeen oinarri bat, lehen aipatu dudan gaixotasunen nazioarteko sailkapena, aurrera egin nahi badugu, behintzat.

Bestalde, oker dabil Sarasola *vena-ek* alemanieran seinik ez duela uste badu: *vene, blutader*.¹² Erabilera teknikoan *vene* da nagusi, *hohlvene (kaba bena)* terminoak erakusten digunez.

Litekeena da, nazioartekotasuna erabakitzean bakoitzak nahi duen tokira begiratzen duen bezala, kasu honetan ere hiztegi desberdinak erabiltzea. Neuk behintzat, alemanieraren adiskidetasunarekin, ondo beterik sentitzen dut hitz bati eskatzen diodan nazioartekotasunaren bide-saria.

Gauza jakina da *zain*, *vena* ez ezik, *nerbio*, *tendón*, eta gure interesgunetik at dauden *ratz*, *fundamento*, *principio*, *veta*... ere badena. Testuinguru askotan ez dagoke esangura bereizteko arazorik, baina baliteke batzuetan egotea, eta perifrasiatar jotzea ez da bide luze baterako lagun ona, ezin baita ahaztu hitzek, sintagmak osatzen dituztenez, elkarriz lotzeko malguak behar dutela izan, eta medikuntzan sintagma luze eta erreferentziez beteak eraikitzeko joera dagoela.

Agian Sarasolak ez dio zehaztasunari beste batzuek ematen dioten garrantzia aitortzen. Arrazoiak dauka dioenean ezen zientzien eta tekniken munduan uste dugun baino zehaztugabetasun handiagoa dagoela. Hala ere, horrek ez du esan nahi teknolektoak egiten dituzten adituak ez zaizkionik zehaztasunaren idealari lotu behar, hutsak eta ezinak gorabehera, eta zer esanik ez medikuntzan; beharrik!

Normala denez, anatomiako hiztegi bat egin behar duenak zehaztasuna bilatzen du.

Hitzak hizpidea ekarri dit, darabilgun arazoari lotutako beste gogoeta batzuk egiteko. *Bena* terminoaren nazioartekotasuna eztabaida daiteke, noski, zeinahi ikuspegi bezala, beti ere gizabidez. Izan ere, araudietan

11. SARASOLA, I., *Euskara batuaren ajeak*, Alberdania, Donostia, 1997

12. MULLER, HEINZ, HAENSCH, Günter, *Langenscheidts handwörterbuch spanish*, Langenscheidt KG, Berlin und München Druck: C.H. Beck'sche Buchdruckerei, Nördlingen, 1978

ez dago jasota hitz baten haurrideak zenbat hizkuntzatan erabili behar diren nazioarteko umetzat jotzeko. Besterik ezean, bat etorriko gara meritu hori aitortzeko ez diegula munduko hizkuntza guztietan agertzea eskatuko, ezta Europako mintzaira orotan ere.

Gauzak horrela, aitor dezagun, ezen, irizpide neurgaitz baten aurrean gaudenez, bakoitzak baduela *bere* neurriarekin jokatzeko modurik, muturretara jotzen ez badu behinik behin..

Neuk nahikoa deritzat hitz jakin bat erromantzeetan eta ingelesean erabiltzeari, inguratzeko eta zeharkatzeko gaituen nazioartekotasuna horixe delako. Eta nazioartekotasun hori bete-betea hautematen dut alemaniera-

raino hedatzen denean, ingelesa, alemaniera eta, neurri apalago batean, frantsesa, eurak izan baitira gure inguruan zientzia-teknikak landu dituzten hizkuntzak.¹³

Azpimarratu nahi dut ez nabilela *zain* baztertzearen alde, bulgarismoa edo lagunartekoa delakoan, Iñaki Ugarteburuk dioenez,¹⁴ erregistroak baitaude jokoan, baita Administrazio honetan ere.

Ospitaleratu (ingresatu ordezkatzeko).- Arazo honetaz mintzatu gara *Osasun errotilazioa. Testuen zerrenda* liburuaren sarreran¹⁵ baita aldizkari honetan bertan ere.¹⁶

Osasun Sailan eta Osakidetzan egin dugun aukerak –*ingresu* eta *ingresatu*– ez omen die Iparraldeko euskaltzale batzuei graziazik

13. Hasieran esan dudana bezala, ingelesa da medikuntzaren nazioarteko hizkuntza bakarra, eta, iruditzen zait egoera berdin samarra ezagutzen dutela gainerako jakintzetan ere.

Arrenkuraz ikusten dut alemanieraren baztertzeko hori, arrazoi batzuegatik. Ez dut aipatu gabe utzi nahi alemaniar jakintsuek nolako eragina izan duten, erabakiorra guztiz, euskaltasunari buruzko kontzientziaren sorreran, Euskal Herria munduan ezagutarazteko eta balioesteko lanean eta euskal kulturaren bultzadan.

Funtsezkoagoa da alemaniar kulturak, Erromantizismotik hasita, nazio eta hizkuntza txikiei bizirauteko eman dien sostengua, frantsesez eruditik urrun kokatzen baitu modernitatearen bidea, bestela, Jakobinismoaren markarretan amilduko bailirateke eta betirako galdu.

Baina horrelaxe dago mundua, Internetek bere lehiotik erakusten duen legez. Badute tokirik eslabiar hizkuntzek nazioartekotasunean? Iruditzen zait, denok berdinak ez garen bezala, hizkuntzak ere diferente direla indar, onespenez, hedadura eta bizitasunari bagazozkio.

14. "medikuntzako euskara ereduak" op. cit.

Murrizketa gaizto hori dela eta, Iñaki Ugarteburuk berak egin didan oharra azalduko dut, haren hitzak argibiderik onena dira eta:

"...ados nago hiztun arruntak *zain* esan arren zilegi dela esparru jakin batzuetan *bona* esan daitekeela (uste dut oso ongi esaten duzula: hiztunak dira beren lexikoa erabaki behar dutenak, ez beste inor), baina guk medikuntzan (ez dakit medikuntzan esan behar dudana, horixe da nire zalantza; anatomian bai behintzat, klinikan? bezeroei eskaintzen zaizkien dibulgazio-tankerako orrialde xumeetan?) *bona* erabiltzeak ez dut uste bidea eman behar lukeenik Eusenoirek *zain* hitza «bulgarismoa» eta baztertzeko moduko delako esateko. Azken hori da Seguroiak salatzen zuena eta ni horretan bai nator haiekin bat, *bona*: jasoa eta *zain*: arrunta onar badezakete ere, nekez onartuko nukeelako *bona*: arrunta eta *zain*: baztertzeko «bulgarismoa» edo lagunartekoa, hizkera zainduan lekuri ez duena (horixe da Eusenoirek Herri. laburdurarekin adierazten omen duena -ikusi bertan laburduren azalpena)."

15. Osakidetza-Osasun Sailak, Gasteiz, 1996

16. op. cit.

egiten. Bestalde, pentsa liteke *ospitaleratu* horrek gure *ingreso* eta haien *admission* hitzen arazoa saihesten duela. Saihestu baino ihesi dabil.

Nolanahi ere den, geuk jarri behar ditugu euskaraz, behin eta berriz jarri ere, makina bat txosten, estatistika, inprimaki, errotulu... ez Iparraldekoek —tamalez noski, ez baitute administrazio frantsesa baino—. Halabarrez, gure antolamenduari begiratzen diogu, espainolaren eradura hezur-mamitua bada ere.

Ospitaleratu (da/dute), *elizaratu*, *etxeratu* eta horien senitartekoa da, noski, eta, horrela, *ingreso*, *ingresar*, nire irudiko, ez dira *ospitaleratu* hitzaren baliokideak, administrazio-egintza arautu bat den aldetik: norbait ospitale-asistentzia jasotzeko administrazio-egoeran jartzea. Administrazio-egintzak, hain zuzen, hasiera, izapidetza eta burutzapena arautuak ditu, orobat, bere xedeak, baita bere sujetuak eta objektuak ere. Objektua ez dira ospitaleratzaren direnak, ez norbait ospitaleratzaren dutenak ez eta ospitaleratzaren dituztenak ere.

Apika, hedapen semantikoaz joka genetzake, baina uste dut ezen, irabazi baino, galdu egingo genukeela.

Gauza jakina da Osakidetzak, gaur egun, etxean ospitalizatzen dituela gaixo asko, ez ospitalean, hau da, ingresatutako asko etxeratu egiten dituela.



Gainerakoan, urte batzuk barru Iparraldekoek administrazio autonomikoa badute, pozik hartuko dute geuk neke handiz finkatzen ari garena, zeren, eredu bat izango dute, eta geure katramilak eta eragozpenak pairatu behar barik.

Operazio-gela (*kirofono* ordezkatzeko).- Sarasolak honetan arrazoi oso dauka, *quirofono* ez baita espainolaz baizik erabiltzen. Geuk *operazio* nazioarteko hitzaren alde aspaldi egin dugunez, eta proposatzen duen *operazio-gela* argi-argia eta naturala denez, ez dut oztoporik al-

daketa onartu eta gure lankideei nahiz mediku euskaldunei proposatzeko.

Gihar (*muskulu* ordezkatzeko).- Sarasolak dioenez, *muscle* esaten dute frantsesez. Hori horrela, nekez sinestuko dut Iparraldekoek ez dutela *muskulu* haurridea ulertzen, jakina, etxeko eta lagunarteko hizkeraz beste erregistro formalago batez baliatu behar direnek behinik behin.

Gainerakoan, Sarasolak ez du esaten, berriro ere, ingelesez *muscle* esaten dutela, eta alemanieraz *muskel* (eta *musculös* erreferentziala, gaztelaniaren *musculoso* esateko). Nazioartekotasun horri nahikoa deritzat, berriki esan dudanez.

Nolanahi ere den, pentsa liteke euskaraz nahikoa dugula *gihar* hitzarekin, erregistro bereizketarik gabe. Aukera bat da. Ez da, ordea, gure mediku eta erizainek egiten du-

tena, eskuarki, bereiztea hobetsi dute eta, GNS-10ean¹⁷ ikus dezakegun bezala, baita *Anatomia hiztegia*¹⁸ eta *Ihardunaldi medikoetako hiztegia*¹⁹ ere, nahiz eta testu horien kalitatea eta balio arau-emailea desberdina izan.

Gazur (suero ordezkatzeko).- Arrazoiak dauka Ibon Sarasolak dioelarik inguruko hizkuntzetan *serum* erabiltzen dutela, goi medikuntzan, odolekoa adierazteko. Izan ere, gaztelaniak *suero* latin arrunteko *sorum*-dik jaso du *serum* klasikotik hartu ordez.

Dena dela, kontutan hartu behar da *serum*-ek grafia antifonologikoa duela euskararako: *Seru* litzateke errazena, eta ez dugu ahaztu behar gure tradizio eskasak libre egiten gaituela gauzak ahalik eta errazen egiteko. Hala ere, gauzak bere neurritik ateratzen ez baditugu, onartu beharko dugu ezen, *serum* idatzi arren, [m]ren ordez [n] ahoskatuko dugunez, ez dugula arazo handirik izango. Dena dela, zenbat eta grafia antifonologikoa gutxiago hobea: maileguak horrexegatik ere egokitzen ditugu.

Bestelako arazoa da ebatzi behar duguentz gure medikuek eta erizainek baliatzen duten *suero* espainola aienaraztea. Hizkuntzaren jabe bakarra sentitzen ez naizenez, eta, zinez, medikuntzaren kasuan laguntzaile gonbidatua soilki, argi daukat ekimena eta hitza ez direla nireak, ez eta ni bezalakoentzat²⁰ gordeak ere.

Normalean, medikuak, erizainak..., jende pragmatiko samarra izaki, alegia, filologo, euskara-zaintzaile eta abarrei jarraituzera ez oso emanak, goganbehartzen naiz ez ote duten orain arteko ildotik jarraituko.

Erregistroaren arazoak den bezanbatean, espainolaren antzera jo dezakegu, gaztagintza eta goi medikuntza estekatuz, *gazur* hitzari bide berriak emanez. Sarasolak espainolaren bidea proposatzen digu oraingoan. Hala da; ingelesez *whhey* da esnearena, *petit lait* frantsesez, *serum de lait* ere, beste erregistro batean, esan arren, eta *molke* da alemaneraz.

Gazur bakarrik erabiltzeko eskatzen digu. Zertarako ordea? Iparraldekoak eta Hegoaldekoak elkarrengana hurbiltzeko ez noski, batasuna ez baita zelai honetan jokutzen. Nazioarteko familiaratik *-(serum, suero)-*urruntzeko apika?

Banako (unitate ordezkatzeko).- *Unitate* hitzak nazioartekotasun nahikoa duela iruditzen zait, ingelesaren *intensive care unit* horren erakusgarri (frantsesez *unité*).

Ez dirudi hitz horrek Iparraldekoen eta Hegoaldekoen arteko komunikazioa galarratziko duenik.

Ezin uka dezakegu, abenikoz, anatomia patologikoko banakoa esatea badaukagula, eta, orobat, erabaki horrek gehienoi sortuko ligukeen bihotzerrea jasatea ere bai. Baina hizkuntza ez dago sufriarazteko, ez eta apektak asetzeko ere.

17. op.cit. 74 or.

18. op.cit.

19. OE-Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea, *Ihardunaldi medikoetako hiztegia*, 1995

20. Itzultzaileak, normalizazioko-teknikariak, Unibertsitateko irakasleak, euskaltzainak, filologoak, euskaltzailleak, politikoak...

Garuntxo (zerebelo ordezkatzeko) eta burmuin (zerebro-ren orde).– Sarasolarentzat ingelesaren *cerebellum* ez da aski, daki-gunez, ez eta alemanieraren *cerebellum* ere.²¹ Bestalde, tradizioa, literatura, garaia eta autorea bere gogara aukeratzen dituenek, J. Etxepareren lekukotasun xumea –*garuntxo*– ederresten du, medikuntzako literaturan gehienek darabilten aukeraren kaltetan. Zergatik? Frantsesek *cervelet* erabiltzen dutelako.

Dena dela, begi bistakoa da, *garuntxo* gorabehera, *cerebellum*, *cervelet*, *cerebelo*... hitzak, eta inguruko hizkuntza gehienetan baliatzen dituztenak, erro berekoak direla. Hor, beraz, badugu nazioarteko aukera nabarmen bat. Bestalde, ezin ukatu dezakegu euskararen sistema foniko eta fonologikoa –Zuberoko /ÿ/ gorabehera– gaztelaniatik hurbilago dagoela frantsesetik baino. Iparraldeko artzain askori entzutea baino ez dago hori belarriaz ere egiaztatzeko. Hori horrela, zein da *zerebelo* onartzeko benetako eragozpena? Euskararen literatura ezin txiroagoan erabili ez izana?

Ez dirudi bekatu larria oraingo gure erabilera teknikoari eusteak, aitzitik, hobena da oinarri bila musu truk berriro hasteak, dakar-kigukeen abantaila bakarra espainoletik –eta ingurutik– urruntzea izanik.

Harrigarri deritzat hitzak aukeratzeko arrazoi horrek hain indartsu irauteari, beste garai batekotzat jotzen bainuen, uste izanez gaurko euskaltzaleak, euskararen benetako larriaz jabeturik eta zentzu hobeaz jantzirik, erabilera sortu –Hegoaldean jakina, ahal

dugun tokian– eta dagoen apurra sendotzeari lehentasuna eman nahi ziotela, arazo hutsalak asmatzen eta filologiakerietan ibili beharrean.

Zerebro hitzari bagagozkio, ematen dit ez dagoela eragozpen handirik *burmuin/entzefalo*, kasuan kasukoa, bultzatzeko, ez, noski, Sarasolak proposatu duelako, medikuntzako euskal testu espezializatuetan ohiko aukerak direlako baino. Hala ere, baliteke *zerebro* hitz elkarketan, eta izen horretatik eratorritako adjetibo erreferentzialak ezin baztertuzkoak izatea. Izan ere, horrelakoak erabiltzen dituzte inguruko hizkuntzetan, tradizio zientifikotekniko sendoa dituztenetan bederen, nahiz eta alemanierak germaniar sorburuko hitzez ere baliatzen den *burmuin* esateko. Horra hor

–Ingelesaren *cerebrum*, *cerebral*, *cerebritis*, *cerebrohepatorenal syndrome*, *cerebromalacia*, *cerebroside lipidosi*, *cerebropasticity congenital*, *cerebrospinal*²²,

–edo alemaneraren *zerebral* eta *zerebrospinal*.²³

Zesartar (zesarea-ren orde)

Ez dut eragozpenik ikusten proposamen hori onartzeko, ez eta aldaketa bultzatzeko ere. Azken epaia, orde, ez da nirea ez Sarasolarena, erabiltzaileena baino.

Jakintza (zientzia ordezkatzeko)

Lehengo guztiak esanak esanda, ez dut uste iruzkin gehiago merezi duenik: bakoitzaren gustuak eta grinak begirune guztia merezi dute, edo, bestela esanda, bakoitza bere zoroak bizi du.

21. "kleinhirn" ere badute, lehenengo aukeratzat ziur aski. *Langenscheidts handwörterbuch spanish*, op.cit.

22. ICD-10, *International statistical classification of diseases and related health problems*, World Health Organization, Geneva, 1994.

23. *Langenscheidts handwörterbuch spanish*, op.cit., eta *Vox*, Bibliograf, Barcelona, 1995

3. Euskara idatzia, kultur komunikaziorako gaitu gabeko hizkuntza

Oraindik ez dugu lortu oztopo handirik gabe irakur daitekeen literatura. Bestela esanda, gure artean ez dago, baldintza bere-tan –ondo idatzitako testua eta dagokion irakurlea izanik–, testua gaztelaniaz bezain erraz edo errazago irakur dezakeenik, ume-entzakoia ez bada, behintzat.

Izan ere, ia testu guztietan –edozein mota izan arren– aurkitzen ditugu bi edo hiru bider irakurri behar ditugun esaldiak; gehiegitan eten behar izaten dugu irakurketaren haria; ondoren, aurrera egiten dugu kasurik onenean, baina atzera gehienetan. Zorioneko salbuespena izateko bidean datoz *Euskaldunon Egunkaria*, *Elhuyar* eta herriko zenbait aldizkari; halere, onartu behar dugu ezen testu horiek ez dituztela munduan diren mota guztiak besarkatzen –ezta urrik eman ere–, eta testu bakoitzak bere idaztanka eskatzen duela.

Horregatik, ez dute funtsezko ezer konpontzen Pello Esnaletan eta Zubimendiren proposamenek eta arauak, zenbait aholku on eman arren. Euskal arimaren bila ibiltzeak, XIX. mendeko erromantikoek eta mende honen hasierako espaniar “regeneracionistek” egiten zuten erara, ez du ezertan laguntzen, zeren irtenbideak nekez aurkituko baititugu bertsolaritzan edo Oteizaren jentilbarazetan eta huts-zuloetan; Mitxelena-ren estilo sarritan korapilotsu, ilun eta bitxizalea ere ez da eredugarria, euskaltasun guztien santutegi bihurtu bazaigu ere.

Errua ezin diegu beti leporatu irakurlearen antze-faltari eta idazlearen trebetasun eskasari. Agian, bestelako arazoak ere egon litezke hor: funtzionatzen ez duten arauak,

noizbait, hizkuntzan eta komunikazio-premietan oinarritu gabe, garai bateko euskaltzale handiren batek aberria salbatzeko emandakoak; gure euskara txikiaren egiturazko korapiloak.

Zeinahi gisaz, onartu beharko dugu ezen, euskarak testuetan behar bezain ondo funtzionatzen ez badu, alor horretan ibiltzeko moduko hizkuntza sortu ez dugulako dela.

Korapilo eta oztoparri horiek agertzen dira landako euskara bere ohiko bizi-lekutik kalera ateratzen dugunean, eta horrexek erakusten du euskararen idazketa heldu gabea dela, euskara bera txikia dela, jaioberria, atzo arratsaldekoa, koxkorra, hazi eta lumatu gabeko txoria. Euskara ez dago oraindik kultur hizkuntza izateko prestatu-rik.

Hizkuntzak, zeinahi izaki bezala, ez dira betiko ez betirako, ez daude eginak: erabiliz egiten ari dira. Aitzitik, erabiltzen ez direnean egin gabe geratzen dira. Euskarak erabilera jakin batzuk izan ditu, beste batzuk oso gutxitan, hobeto esanda, maiztasun eskasaz. Baserritar eta arrantzaleen euskara komunikazio mota batek sortu zuen, eta erabilpen horrek ekarri ditu mundura euskara horren lexikoa, morfologia eta sintaxia, baita estilo-ezaugarri batzuk ere.

Hortik landa ia ez da deus izan. Landako euskara handia izan zen euskaldun gehienentzat, baina txikia beste premia batzuk zituztenentzat. Arazoa ez du konpontzen sistema batean funtzionatzen duten arauak eta joerak (galdegaia-mintzagaia, perpaus arteko lotura positiboak) besterik gabe eremu berrian txertatzeak, zeren esparru bakoitzean funtzionatu behar duen sistemak bere betekizunak baititu: batean komunikazioa bideratzeko dena komunikazioaren kontrakoa izan daiteke beste batean.

Euskarak ez ditu garatu kultur hizkuntza izateko behar dituen tresnak, besteak beste, joskerakoak eta estilokoak, zailenak azken batez, bide luzea jorratu ondoren gorpuzten direlako.²⁴

Villasantek esan duenez, XVIII. eta XIX. mendeko literaturak euskara kultur hizkuntza bihurtzeko lehenengo ahalegin sendoa egin zuen, baina ahaleginak huts egin zuen XX. mendearen hasierako purismoak literatura harekiko leizea zabaldun zuenean.²⁵ Horren ondorioz, mende honerako testu gehienak –haien maila berekoak behintzat– nekezago irakurtzen dira.

Batasun handia egon zen gainera, Iparraldekoek eta Hegoaldekoek prosa sistema bera erabiltzen zuten-eta, mendebaleko hizkuntza landu guztiak erabili dutena, bakoitzak, zenbait xehetasunetan, bere berezitasunetara ekaririk.

Idaztanka komun hori Grezian sortu zen, eta latinak hedatu zuen. Ondoren, Mendebaleko hizkuntza guztiak, nazio eta, hortaz, kultur hizkuntza bihurtzeko jautsian, imitatu eta bereganatu zuten. Ahalegin berean saiatu ziren gure idazle zaharrak, eta aurrerapauso handiak egin zituzten komunikazioan.

Latinetik ez datozen hizkuntzek ere –ingelesak eta alemanierak esate baterako– latin eta grekoaren subordinazio eta koordinazio-sistemak onartu dituzte, bakoitzak bere berezitasunekin. Idazketa garatzeko modu horrek eraman zituen lotura prepositiboen sistema sortzera eta indartzera.²⁶

Izatez, ez da batere errentagarria esanguraren ardatzak –aditza eta esaldien arteko loturak, subordinaziokoak edo koordinaziokoak direla– atzera botatzea, zeren ezin baita horiek gabe aurrekoa ulertu, eta, habeak hel-

24. Oraingoan ere ezin dut jaso gabe utzi I–aki Ugarteburuk egin didan oharra, arazoaren funtsezko alderdi bat erakusten baitigu: «Baserritar eta arrantzaleen euskara komunikazio mota batek sortu zuen». Beraz, beste komunikazio mota batek, beste erreferente eta, batez ere, beste erabiltzaile batzuek sortuko lukete gaurko osasun arloko euskara eredu. Primeran, baina badira batetik bestera alde nabarmenak:

a) baserritar eta arrantzaleen hizkuntz sistema hura egituratua zen, gaurkoan begien bistakoa da «desegituraketa soziala». Han ez zen zaila esaten zer zegoen eta zer ez zegoen hizkuntz sistemaren barruan; gaur, ordea, hainbat «maila»tako hiztun edo erabiltzaileak ditugu eta horrek erabat aldatzen ditu gauzak. Abiapuntu modura hizkuntzaren aldaketan aurrean batere aurreiritzirik jokatu behar badugu ere (edozer baita zilegi, erabiltzaileek hala onartuz gero), ulertzekoa da hiztun batzuek aurre egitea inguru soziolinguistiko jakin batetik etor litekeen oldarrari. Maila eta arlo guztietan nabari den hizkuntz gatazkaren adierazlea baino ez dugu hori.

b) baserritar eta arrantzale haien artean sisteman zeuden elementu guztiak ziren -edo izan zitezkeen- sortzaile; gaurkoan ostera, gutxiren eskuetan dago hori: argitaletxeak, komunikabideak, gizartearen eredu-gisa joka dezaketen hizkuntz sortzaileak (idazle eta itzultzaileak, hauek ere maiz argitaletxearen esanetan), hizkuntz eredu inposa dezaketen gizarte-erakundeak (dela akademia, dela administrazioa)... Eta gerta daiteke, esparru jakin batean -osasun zientzietan, kasurako- horien guztien artean bat edo bi izatea eragile nagusi. Hortaz, horrena -horrena bakarrik- den on eta makur guztia jasoko du eredu berriak. Hori arazo gerta daiteke inoiz; badakit hau hobeki zehaztu beharko nukeela baina bego gaurko horretan."

25. *Euskararen auziaz*, 1988, 46 or.

26. Gogoeta hemen baino osoago egiten du Luis Villasantek lehenago aipatu dudana liburuan, 149tik 154ra bitarteko orrialdeetan.

tzen direnerako, aurrekoa joaten baitzaigu, buruan itsatsirik geratzeko euskarrien faltaz. Egia esan, sarritan, benetako irakurketa aditzetik, lokailutik, atzizkitik (*-nean...*) edo urruneko sustantibotik egiten dugu, bigarren bueltan noski, lehenengoan ez baitugu haien aurreko ia ezer ulertu eta gorde.

Iruditzen zait eragile nagusi bi izan direla euskararen behaztopa-harri horiek ez gainditzeko, eta elkar elikatzen dutela:

—gutxi idaztea, erabilpen falta, eta

—euskararekin antihizkuntza bat egiten lehiatzea, alegia, hizkuntza negatibo bat, ingurukoak ez bezalakoak, komunikatzeko asmoari odol-garbitasunari eusteko edo difereente izateko helburua erabat nagusiturik.

Baina landako euskararen bide batzuk komunikazioaren ekonomiaren kontrakoak badira, zer esan, bada, antihizkuntzak sustatuei buruz.

Ez da harritzeko modukoa XX. mendearen aurreko literatura klasikoak bide horiek jorratzea, ez eta literatura horretan Sebero Altuberen legeek hain euskarri gutxi aurkitzea. Orobat, ez da txiripaz gertatzen ezagutzen dugun euskara mintzatuan lege horiek neurri apal batean baino ez betetzea, eta euskaraz bideratzen den ahozko komunikazioa zenbat eta konplexuagoa den hainbat eta gutxiago betetzea, harik eta erabat betezin gertatu arte.

Sebero Altubek ez zuen frogatu bere legeak euskararenak zirenik. Egin zuen lanak ez luke gaur eguneko tesina baterako ere balioko. Toki batzuetako ahozko euskararen joera batzuk hartu eta, haien testuingurutik kanpo, euskararen arau orokor bihurtu zituen, Altubek berak eta haren garaikideek bultzatu nahi zuten antierdera hezurmamtzeko egitasmoarekin bat zetozelako.

Handik, interferentzia horrek baldintzatu du euskal idazketa, gaur arte gainera, euskara kultur hizkuntza bilakatzea oztopatzen duten beste eragile batzuen buruan. Eta, nahi izanez gero, nekeak hartu behar ditugu Altuberen legeak ez betetzeko, ia automatikoki betetzen baititugu gehienok.

Badira, jakina, frantsesetik eta gaztelanitik datozen interferentziak, ezin baitugu ukatu euskara hizkuntza menderatua eta pitzaturua dena. Baina euskara eraberritza eta antzetsu egitera daroaten indar guztiak menperatzailetzat joz gero, balizko Aitorren hizkuntz zaharrarekin geratuko gara, alegia, ezezearekin.


Identitateari ikuspegi dinamiko batetik begiratzen ez badiogu, pentsatuko dugu inguruko hizkuntzen eragin gehienak kalterako direla, eta ez —batzuk bederen— ezinbestekoak eta onuragarriak. Hizkuntzaren autonomia zaindu beharretik hizkuntzaren ukaziora limurtuko gara, zeren hizkuntza komunikazioaren bitartekaria baita. Azken batez, antihizkuntzak ez du autonomiarik; ezin da bere kasa bizi, ukatzen duen hizkuntzaren —espainolaren— negatibo barregarria baino ez da.

Horregatik guztiagatik, mende honetako testuak gutxitan dira eredugarriak idazketa-aren oinarritzko arauak emateko. Alternatibek izen eta aditz sintagmen ardatzak aurreratzera eta elkarretaratzera jo behar dute, kontuan hartuta inguruko hizkuntzetan funtzionatzen duten bide orokorrek euskararen ere funtzionatzen dutela, nola baitira tema (galdegaia) ez dela beti hanpatzen eta hanpatzeko bide nagusietariko bat intonazioa dela eta ez koka-pena.

Gauza jakina da intonazioa ez dela erraz islatzen idazketan, eta adierazi gabe ere gertatzen dena gehienetan. Gaztelanian egoera

beretsua dago, eta, guztiagatik ere, ez da enbazu handirik egoten testuaren mezua antzemateko, irakurleak testu eta testuinguru osoan interpretatzen baitu perpausa.

Idazle trebearen lana ideiak argi adieraztea da. Baliabide eskasekin gauzatu behar du ekintza, zeren idazketak, ahozko jardunak ez bezala, gogoeta antolatzeke aukera hobea ematen badu ere, adierazkortasunean galtzen baitu, hitzez kanpoko komunikazioaren lanabes gehienak galtzearen poderioz.



Diskurtsoaren mezua ulertzeko gune ezinbestekoak aurreratzeko bideak aurkitu behar ditugu beraz, trikimailuak asmatzen ibili gabe, idazketak bide sendoak behar ditu eta. Komunikazioa erraz bideratzeko aurrean jarri beharrekoa aurrean jarri behar dugu, besterik gabe.

Hala ere, tolesgabeak izan ez gaitezten, kontuz ibili behar dugu, gaztelaniak edo

frantsesak bakarrik –eta ez komunikazioak– aurreratzeko eskatzen digutena aitzinean ez jartzeko, behar komunikatibo batzuk faltsu samarrak izan daitezkeelako.

Osakidetza eta Osasun Saileko lexikobatzordean²⁷ bideak aurkitzen saiatu gara izen-sintagmen ardatzak ahalik eta gehien aurreratzeko. Horretaz arituko naiz hurrengo atalean.

4. Proposatutako aukera batzuk administrazio sanitarioaren oinarrizko hiztegia lantzeko

Hiztegi batean muga handiak ditugu ordenaren arazoari heltzeko. Gauza jakina da estilo-liburuak askoz emankorrakoak direna eginkizun horretarako, beraiek aukera ematen baitigute osagarrien eta perpaus-loturen kokapenarekin jokatzeko.

Halarik ere, arazoari bide guztietatik heldu behar diogu, hain da gaitza. Eta hiztegia prestatzeko abagunea baliatu nahi izan dugu hitz andana eta termino konplexuetan egin daitekeena egiteko, helburu jakin batekin: izen-sintagmen ardatzak aurrera ekartzea.

Irizpideak eta egin ditugun aukerak azalduko ditut ondoren, ezagunak izan arren, jorratu nahi dugun bidearen lekukotasuna izan dadin.

a) Hitz elkarketa

Hitz elkarketa ez da lehenengo aukera izan. Lehenengo eta behin, adjetiboaren bidez ematen ahalegindu gara –izen-lagunarekin batera– bera delako izenen hedadura semantikoa murrizteko biderik usuena.

27. Bazordeko kideak: Alfredo Hurtado de Saratxo, Ixabel Zubeltzu, Rafa Egiguren, Jesús Atorragasti, Roberto Manjón

Hitz elkarketaren muina elipsia denez, testu anbiguo samarrak sortzen dira —eta ez oso naturalak—, ugaria denean, eta arras ugarriak izan daitezke medikuntzako testu teknikoetan.

Beraz, azpiko lotura agerian uzten saiatu gara, hitzen arteko erlazioak (-ko, -entzako, -en, eta...) emanez.

Bikoteak (*aurpegi-masailetak*) argiak direnean bakarrik erabili ditugu: *Aurpegi-masailetak kirurgia*, baina, alderantziz jarri behar badugu, *masail eta aurpegiko kirurgia* hobesten dugu.

Izen-lagunen kasuan, -ko erlazio-atzizkia bultzatu lotura horietarako: *Kanpoko paziente*, *errehabilitazioko zerbitzua*, *hezurmuineko transplantea*...

Sarritan, oster, -ren atzizkia baliatu dugu: *Asmaren*, *minaren unitatea*, *hezurmuinaren emailea*, *larruazalaren bankua*.

Dena den, izen-sintagmetan ardatza urreratu beharrez, izen-lagunak adjetibo bihurtzeko aukera present izan dugu beti, eta, horren ondorioz, -ko duten izen-sintagmetan malgutasunez jokatu behar dela uste izanez, hiztegiaren hitzaurrean ohartarazi nahi duzu ezen, idazleak, gehienetan, aukera bat baino gehiago duela eskueran, izen-lagunen kateak ahalik eta gehien murrizteko. Gainera, tradizio literarioan nahiz ahozko euskeran maiz erabili da. Ikus ditzagun adibide batzuk:

(*Bizkaiko barrutiko*) *haurrentzako ospitale egunekoa* nahiz *Haurrentzako eguneko ospitalea* baztertu gabe.

Ospitalez kanpoko atentzio espezializatua nahiz *atentzio espezializatu ospitalez kanpoko*

Era berean, -tako atzizkiez eratutako izen-lagunekin; baina tentuz ibili behar da, zenbaitetan esangura desberdina izan dezake-elako:

Protokolizatutako atentzio nahiz *Atentzio protokolizatua*

Erlazionatutako diagnostiko taldeak nahiz *Diagnostiko-talde erlazionatuak*

Hitzartutako ospitalea eta *Ospitale hitzartua*

Hitzartutako asistentzia eta *Asistentzia hitzartua*

b) Adjetibo erreferentzialak

Adjetibo erreferentzialak arazoan erdigu-nean daude, hizkera teknikoak eratzen ari direnen kezkarri, UZEIk eta IVAPek antolatuz zuten Terminologia Biltzarrean aurkeztutako komunikazioek erakutsi dutenez. Guztiak izan dira azterketa zorrotzak eta onuragarriak.

Kontua, ordea, komunikazioaren pragmatikari lotuago dago morfologiari baino, funtsean ez baita euskarak hitz elkartuak sortzeko biderik duenentz eta nolakoak diren, edo itzultzaileek nolako maiztasunez baliatzen dituzten, baizik eta irakurgarritasunari zertan eta nola laguntzen dioten, lehenago esan dudanez, euskaldunok ez baitugu artean lortu kultur hizkuntza batek behar duen heldutasun komunikatiboa.

Badago uste duenik (eta ez dira gutxi) euskaraz adjetibo erreferentzialak, salbuespen bakanetan izan ezik, ez direla erabili behar. Esan beharrik ez: iritzi horrek ez du adiskide askorik medikuntzaren arloan. Erreferentzialen aldeko joerak, aldiz, adiskide ugari du, literaturak erakusten duenez, medikuntzaz idazten duten gehienek adjetibo haien premia handia sentitzen baitute.

Ez da txirripaz gertatzen: medikuntza erreferentziaz jositako hizkera da; termino konplexu ugari sortzen dira gainera, eta kate-

amendu luzeak eraiki. Horrelako testuetan elkarketa eta izen-lagunak baliatzeak biziki oztopa lezake irakurketa, esangura oker asko eragiteaz gainera. Bestalde, terminologiaren mugak agitz murrizten du testuinguruaren arabera termino bera batean erreferentzialaz eta beste batean elkarketaz ematea, nahiz eta, finkotasun terminologikoari kalte egiten ez dionetan aldakortasun hori ere onartu dugun.

Ingelesa, esate baterako, euskararen antzera, oso malgua eta emana da hitz-elkarketarako. Hala ere, ingeleseko testu medikoak adjetibo erreferentziaz beteta daude —errepara diezaiozun kasuari—. Jaidura bikoitza du ingelesak, larridura handirik gabe.

Bestela jokatu dugu *renal*, *hepático*, *abdominal* erreferentzialak euskaraz ematerakoan, eta arrazoi batetatik: egiaztatu dugunez, medikuntzako testu gehienetan, eta, batez ere, *GNS-10*ean, *sabel-*, *gibel-*, *giltzurrun-* erabiltzen dituztelako.

Izan ere, ahalegin guztiak egiten ditugu euskararen gaineko jarrera patrimonialistak baztertzeko, hizkuntza erabiltzaileena baita.

Gainerakoan, zehatzak dirudite kasu gehienetan. Dena den, ez dirudi *hepatiko* bezalako adjetiboak kasu guztietan ordeztu ditzaketarik, eta *GNS-10*k ez du beti egiten.

Geuk, *GNS-10*eko joera nagusiarri jarraiki,²⁸

* *-ko* erabili dugu erreferentzia tokia denean: *garuneko*, *bihotzeko*, *gibelesko*, *obulutegiko*.

* Erreferentzia tokia ez bada, (*neurosis cardiaca*) adjetibo erreferentzialaz baliatu gara.

* *Abdominal* eta *abdomeneko*,²⁹ biak hartu ditugu.

* Adjetibo erreferentzial bi daudenean, askotan, bata toki gisa eta bestea erreferentzia zehaztugabe gisa itzuli ditugu beti: *garuneko gaixotasun baskularra*.

* Izenlagunen pilaketak eta sintagma ulergaitzak ebitatzeko, batzuetan ez dugu *-ko* izenlaguna erabili, erreferentziala baizik. Adjetibo erreferentzialaren aukera eskueran izan dugu: *renal* adjetibo erreferentzialaren baliokidea *giltzurrun(eko)* ez denean, *renal* esan dugu.

5. Azken hitza

Artikulu honetan gure inguruan dabilen zenbait okerbide argitzen ahalegindu gara; batzuk itzulpenen bidez heltzen zaizkigu gurrera, eta arretaz jarduteko eskatzen digute; besteak, etxean bertan sortuak dira, euskararen gaineko aukerak murrizteko asmoak eranginda, bide batzuetara hedatzen hasi denean hain zuzen.

Euskaldunok eremu berriak aurkitu ditugunean, ondikotzi, gehitu omen dira gure ajeak, deslai-edo gabiltza, eta errieta egin behar digute, zintzotu gaitzen. Gure benetakoa ajea, ordea, euskara-euskaldunen desgituraketa soziala da, bazterrekoak izatea, geure kalean ere lekurik ez edukitzea, eta supazterrean ere gero eta bakanago...

Hori dela kausa, euskararen sustatzaile-arautzaileen munduak eliza txikien hazpegiak edo halako antz edo kutsua izan ditu beti. Aberriaren balizko jatorri garbia salbatzeko

28. Alberto Ugarrizaren txostenak erakutsi duena oinarri hartuta.

29. Euskal termen jasotakoetan, "abdomeneko" da gailentzen dena.

gotorlekua, baina gazteluko jaun-andreek ez diete benetako euskaldunen beharrei buruz buru begiratu, azken batez, beren gatazkez, nahiez eta asmoez arduratu baitira. Agian ezin zitekeen bestela gertatu; alabaina, ezin dugu —ez dugu jada astirik— horma historiko hori gainditu gabe jarraitu.

Gizarterik gabe hizkuntza ez da ezer, horrexegatik, hain zuzen, euskara ezerez bihurtzeko bidean dabil aspalditik. Deus ez den hizkuntza zaletu eta filosofo-filologoen jostagarri da, nork bere grinez, mundu-ikuskeraz eta sentipenez moldeatu dezakeen buztina, eta eztabaida antzuetan atzera eta aurrera atergabe ibiltzeko denbora-pasa, edo lau gixajoren agintari —hizkuntz agintari— bihurtzeko aukera paregabea.


Euskaldunok bideak behar ditugu, denetariakoak, eta gizarte-bideak, estiloak nahiz

hizkuntz aukerak berez ugarituko dira, funtsean, gauza bera direlako. Hala da; erabile-ra-eremu zenbat, euskaldun motak hainbat, eta euskarak ere anitz.

Hizkuntza dabilenean, euskaldunek ez bestek esango dute euskaraz bizitzeko zein aukera diren on eta zein malkartsu, entseiu elkorra bazterrean utziz.

Gora bihotzak! Bozkarioz har ditzakegu azken aldian omen ditugun ajeak, gizartea aurkitu eta berarekin berriro elkartzen hasi garela erakusten badigute.

Bestela ere, ez legoke arrenkuraz egoteko arrazoirik, euskara berbideratzeko egin diren azken saiakerek erakutsiko bailukete euskara honezkero heldua dela hizkuntza batek bere bizitzan ezagutzen duen aldirik ederrenera, poesia bihurtzen den horretara hain justu.



Itzulpenaren teoria Iudologiko baten oinarriak


WILHELM NEINZIG, MARTIN KREUTZER

Hasierako gogoetak

Ikus daiteke nola azaltzen diren esparru guztietan (eta hizkuntza guztietan) itzulpen kopuru handiak (egilearen kalkuluen arabera ehuneko 3'4tik 88'6ra artean, testua nolakoa den kontuan hartuta) molde berari jarraiki eginak diruditenak: ezin argitu daitezkeela gaur egun ditugun itzulpen eskola batzuen kontzeptuetan oinarrituz, ezta itzulpen komunikatzaile-funtzionalaren teoria baten kontzeptuetan (ez baitago asmatuko duenik zer komunikatu nahi duten egileek eta testuek ez dute logikarik batere), ezta traduktologia linguistikoko batean (ez baitituzte

betetzen hizkuntza horrek onartzen dituen arau morfosintaktikoak edo semantikoak). Ezin argitu daiteke egoera hau esanez itzul-tzaileek ez dakitela itzultzen: hipotesi berriak formulatu behar dira teoriaren mailan egunoroko itzulpengintzan ikusten den gertakari hau argitzeko. Modelo honek ez du izan nahi (oraingoz) itzulpengintzaren teoria orokor bat (ikus: W. Wilß, *Übersetzungswissenschaft*, 1997), bai aldiz teoria berezi bat "Text type-restricted, Partial, Theoretical and Pure Translation Studies"-en barruan, J. Holmes-ek definitzen dituen bezala bere *The Nature of Translation Studies*-en, in *Translated*, 1988.

Translation Studies



Erreferentzia teorikoa: itzulpengintza eta testu moten arazoa

Katharina Reiß-i (*Der operative Text*, 1979) eta Roda P. Roberts-i ("The Concept of Function on Translation and Its Application on Literary Texts", *Target* 4:1, 1992, 1-16 or.) jarraiki, hiru testu mota daude itzulpenaren estrategia zertzen dutenak:

testu *informatiboa* (dokumentu, txosten, dibulgazioko liburu, komentario) itzultzailearen aldetik informazio mailan aldaketa-eza eta emozio aldetik *urruntasuna* eskatzen duena,

testu *adierazlea* (eleberri, biografia, antzerki, poesia) itzultzailearen aldetik arte mailan analogia eta *identifikazioa* eskatzen duena,

testu *operatiboa* –K. Reißen hitzetan– edo aginduzkoa –R. Robertsen arabera– (publizitate, hitzaldi politiko, satira) itzultzailearen aldetik mezuari dagokionez identitatea eta *egokitze* prozesuak eskatzen dituena.

Baina badira zeregin informatiboa luke-tela diruditen testuak (egiaz ezertaz informatzen ez badute ere) edo zeregin operatiboa (ezertarako balio ez badute ere) edo adierazlea (egileek beren buruak poetatzat hartu bai baina ezer esaten ez badute ere). Beste testu batzuk badirudi edozer gauza idazteko ezinbesteko premia duten buru nahastu batek idatzi dituela. Saillkapen berri bat eskatzen du gure artean oso ugari dabilen testu mota honek:

testu *puztua*: turismo, folklore, enpresa baten aurkezpen, biografia, publizitate, informe ofizial, e.a.), beren zeregina orrialdeak betetzea baita eta hitzen mailan aldaketarik eza (ehuneko 2 +/-) eta itzultzailearen aldetik *zurburtasuna* eta *teknologiaren* erabilera eskatzen baitute.

Testu puztua: adibideak

1. adibidea: enpresa baten publizitatea

PRINCIPIOS DE NUESTRA POLÍTICA DE CALIDAD - Nuestros CLIENTES son nuestro objetivo. Nuestro EQUIPO HUMANO está comprometido en superar todas las cotas. Nuestra ORGANIZACIÓN se adecúa a las situaciones futuras. La excelente CALIDAD constituye una suma y no una diferencia...¹

2. adibidea: Alkate jaun agurgarri baten hitzaurrea hiri-gidaliburu baterako

Els espais buits són molts, els moments "sense guia" o només-am-una-guia –o només-amb-una-guia-general-o-provincial-queda-dedica-escasses-pàgines-a-la-nostra-ciutat– són els més freqüents. Aquesta intermitència brutal i els buits enormes ens obliguen a recapacitar i a prendre el compromís que quan aquesta guia s'exhaurixi se'n fa una nova.²

1. GURE KALITATE POLITIKAREN PRINTZIBIOAK - Gure BEZEROAK ditugu helburu. Gure GIZATALDEA maila guztiak gainditzera hitzema-na dago. Etorkizuneko egoerataro egokiturik dago gure ANTOLAKETA. KALITATE bikaina gaineraketa bat da eta ez diferentzia...
2. Hutsuneak ugariak dira, «gidalibururik gabeko» uneak edo gidaliburu bakarrekoak –gure hiriarri oso orrialde gutxi eskaintzen dizkion gidaliburu orokor edo probintzial bakarrekoak– dira usuenak. Aldizkotasan basati hau eta izugarritzko hutsune horiek behartu egiten gaituzte gogoeta egitera eta konpromezua hartzera gidaliburu hau ahitzen denean beste berri bat egiteko.

3. adibidea: Bere lana deskribatzen du artista batek katalogo batean

La Banalidad adquiere escala humana y obliga a guardar distancias, a intentarlo como atracción del Paraíso, del viaje a Arcadia, una Ítaca soñada y deseada, de cantos de sirena que invitan con el canto del «bosque» a colmar en él los setindos... sabiendo que el crepúsculo anuncia la noche cerrada, las umbrías neblinosas, de lechuzas ancestrales.³

4. adibidea: B.P.A. Nobela saria jaso duen idazle batek La Palma deskribatzen du.

La Caldera de Taburiente es el eje y el factor de la morfología palmera y es el recipiente de sus mejores leyendas; símbolo de la patria chica, y patrón particular del mundo; referente orgulloso, motivo folclórico, fusión de paisaje y paisanaje; sostén de tópicos, verdades de Juan Nadie, que penetran a los ámbitos del sentimiento; afirmación y escapada; el país de la infancia, la tierra posible para la utopía o la ilusión de vuelo raso.⁴

Baina ez bakarrik berez orokorrak diren obretan, baita hizkuntza berezietan, hala

nola tekniko-instrumentaletan edo juridiko-administratiboetan, nahikoa sarri aurkitzen ditugu testu puztuak.

5. adibidea: Auzitegi Gorenaren epaia:

Establecido el usufructo universal a favor del cónyuge superviviente y acaecida la preterición no intencional de un heredero forzoso, la legítima de éste se ve perjudicada por el legado universal y vitalicio en favor de la viuda, de donde procede anular la institución de heredero hecha por el testador a favor de dos herederos forzosos, reducir por inoficioso el legado en favor del cónyuge viudo y abrir la sucesión intestada del haber hereditario restante.⁵

6. adibidea: Ingurugiroaren arloko arazo terminologikoei buruzko txosten bat:

Buscando en el mar del medio ambiente se encuentra un apartado escrito en mayúsculas: el RECICLAJE que es la primera en dificultad con la que se tropieza. Hay dos vectores a tener cuenta: tipo y tema. La eterna batalla entre forma y contenido se unen. La ventaja es que ni la forma ni el contenido han de ser inéditos sino su combinación.⁶


3. Banalkeriak giza neurria hartzen du eta urruntasuna gordetzera behartzen du, Paradisuaren, Arkadiarako bidaiaren erakarpen bezala, Itaka amestu eta desiratu bat bezala saiatzera; "oihaneko" kantuz han zentzuak asetzera gonbidatzen duten sirena kanta bezala... jakinik inularrak gau iluna iragartzen duela, aspaldiko hontzen itzalgune lainotsuak.
4. La Caldera de Taburiente da morfologia palmatarreko ardatza eta eragilea eta bere legenda onenen ontzia: aberri txikiaren sinbolo eta munduaren eredu; erreferentzi harro, folklore zio, paisai eta herikidego bateraketa: topikoen euskarri, deusez baten egia, sentimenduaren barrutietara sartzen direnak; baieztapen eta ihes; haurtzaroren lurraldea, utopiarako edo hegaldi laburreko ilusiorako lur posiblea.
5. Finkaturik gozamen orokorra bizirik geldituriko ezkontidearen alde eta gertatu delarik derrigorrezko oinordeko bat nahi gabe ahaztu izana, honen legeondorea kaltetu egin du alargunsaren aldeko ondare orokor eta bizi osorakoak, hartaz testamentugileak derrigorrezko bi oinordekoen alde egindako oinordekotza finkatzea deuseztatzea, ezkontide alargunaren aldeko legeondorea gutxitzea jo behar da bidezko ez delako eta gainerako ondare edukinaren ondorego hilburuko gabea irekitzea.
6. Ingurugiroaren itsasoen murgilduz maiuskulaz idatzirik txatal bat aurkitzen da: ERREZIKLAIA, aurkitzen den lehen zailtasuna. Bi bektore badaude kontuan hartu beharrekoak: tipoa eta tema. Formaren eta edukinaren arteko betiko gatazka elkartzen da. Abantaila da ez formak eta ez edukia ez dutela izan behar argitara gabeak, bai ordea haien konbinaketak.

Itzulpenaren ibilbidea


Itzulpenaren kontzeptu funtzionalistetan, bihurketa bidea deskriba ohi da komunikazio eredu batetik, Reiß-enetik adibidez (K. Reiß eta H. J. Vermeer, *Grundlegung einer Allgemeinen Übersetzungstheorie*, 1992), abiatuz (ikus grafikoa); "itzultzaileaz" hitz egin ordez beste autore batzuek "kode konmutatzaileaz" hitz egiten dute (O. Kade) edo "lekualdaketa faseaz" (E. Nida) edo "black box-az" (H. P. Krings). Eredu guztietan berdin, hasten dira autore/bidaltzaile batekin, itzulzaile bat tartean (delako *black box* hori edo

kutxa beltza) jartzen dute; itzultzaileak eza-gutza prozesu bat egiten du zeinaren kontura hipotesiak formulatu baino egin ezin daitezkeelarik: eta azkenean irakurle/azken hartzaile bat dago. Gure ustez, eredu hauek mugatuak dira oso eta ez dute argitzen lehenago aipaturiko errealitatea. Ezinbesteko da zenbait arazori erantzuna ematea: zergatik idazten du egile batek testu bat? Zer dago *black box* horren barruan? Zergatik irakurtzen du azken hartzaileak testu itzulia? Eta abar. Eta horiei erantzun nahi diegu ondorengo ereduaz.

K. Reiß: Itzulpenean eragina duten faktoreak, 1992



B-bidaltzaile; H-hartzaile; L-lekua; D-denbora; Kes-komunikazio eskaintza
Ke-komunikazio ekintza; Ho-hizkuntza ofiziala; Hh-helburu hizkuntza



Bihurketa egoera (BE)

Ez dago testuingururik gabeko itzulpen prozesurik, bihurketa egoerarik gabea, eta horregatik egoera hori aztertu behar da goian aipaturiko gertakariak argituko dituzten hipotesi egokiak formulatu ahal izateko. Lehenago aipatu den bezala, aurreko puntuan zerturiko testu puztuen itzulpenean oinarritzen da eredu hau (ikus marrazkia).

Irakur: *Jatorrizko hizkuntzaren eragile edo abiarazle (Je)* batek, adibidez, argitaldari batek, bapatean konturatzen delarik turistekin negozio on bat egiteko argitaratzera doan liburuak ez duela testurik batere eta ohiturak esaten duenez turismoko gida batek idatzitako zerbait eduki behar duela, hartzen du telefonoa, kasu honetan komunikazio baliapide dena (Marshall MacLuhanen zentzuan: "The medium is the message") eta *Entzuzko Baliapide (EB)* deitzen duguna, *Testua jatorrizko hizkuntzan idazteko enkargu (TJi)* deituko duguna egiteko, hauxe delarik honen edukia guri interesatzen zaizkigun kasu-

rik gehinetan: "Egingo al dizkidazu azkar-azkar x folio y gaiari buruz?" (galdera erreteriko bezala ulertu behar da).

Abia gaitzke emanez etorkizuneko *Jatorrizko hizkuntza bidaltzaileak (JHb)* onartzen duela TJi hori, ez bailitzake bestela gauzatu *Bihurketa Egoera (BE)*. Christiane Nord-ek *Translating as a Purposeful Activity*-n, (1997) esaten duenez parekotasunak aurkitzen ditugu, esaten baitu (21. or.): *The production of a source text may have been motivated by the need of a text (...) Or by other factors that have nothing to do with translation*".

Bidaltzaile bihurtzeko JHb-k zerbait idazten saiatu behar du eta behin baino gehiagotan gertatzen zaio ez zaiola ezer bururatzen, hau da, *Buruako Hustasun Sindromea (BHS)* pairatzen duela. JHB guztiak BHS azpian badaude, beren izaeraren arabera jokatzeko dute:

a) ideia batean kontzentratzen dira eta bira eta bira emanez katramilatzen dute haririk eta, bapatean, x orri horiek betetzen dituzten arte (ikus 5. adibidea);

b) urduri jartzen dira eta eragilea = bezeroa goresten hasten dira, 1. adibideak erakusten duen bezala;

c) burura datorkien guztia idazten hasten dira (4. adibidea);

d) ez aurrera eta ez atzera geratzen dira eta psikologia freudiarretik, filosofia platonikotik eta literatura klasikotik gogoratzen duten apurra nahasten dute (3. adibidea);

e) Ez buru eta ez oinik ez duten gauzak idazten dituzte gure 2. adibidean ikusten dugun bezala, edo

f) zientifiko itxura izan lezakeen edozer asmatzen hasten dira, 6. adibideak erakusten digun bezala: emaitza beti da *Testu Puztua Jatorrizko Hizkuntzan (TPj)*.

Hala gertatzen da jaun edo andere bati *–Itzulpenaren eragile edo abiarazle (Ie)* bihurtuko da horrela– orrialde batzuk betetzeko testu bat falta zaiola eta aipaturiko testua irakurri eta, nola honek ez dion ezer esaten, erabakitzen du itzultzera bidaliko duela, eta horretarako bidaltzen du *Baliapide Elektronikoko* bat (*BE*, adibidez fax bat) erabiliz *Itzulpena egiteko enkargua (Iee)* emanaz (C. Nord-ek erabiltzen duen zentzuan): “azkar-azkar”.

“*Machine Aided Human Translator*” batek, hau da “BLACK BOX” batek etxeratu eta aurkitzen du enkargua, eta honek komunikazio matxurak eduki baititzake (ezin irakur daiteke faxa, itzultzaileak ezagutzen ez duen koadro edo argazki bati dagokio testua, e.a.) edo ez, baina itzultzaileak testu puztuen artean sartzen du. Orduan “BLACK BOX” horrek pizten ditu *Itzulpeneko Jokamolde Ludologikoak (IJL)*, eta gisa horretan “*JACK in the BOX*” bihurtzen da, ereduak erakusten duen bezala. IJLak desberdinak dira bihurteta tesuinguruaren arabera.

1) Eragileak ordu erdi bat ematen du 20 orrialdeko itzulpena egiteko: itzultzaileak liburuki bereko bere itzulpen bateko fitxategia irekitzen du eta, “bilatu eta aldatu” funtzioaren bidez bi hitz giltza bilatzen ditu eta gai horrekin zerikusirik baduten edo ez duten beste batzuk jartzen ditu orde; modem bidez bidaltzen dio testua bere bezeroari. Itzultzaileak lehen bazegoen testu bat ordezkatu edo aldatzen du,

aldaketa IJLa erabiltzen du, beraz.

2) Ezin irakur daiteke testua: Bere pape-
ren artean bilatzen du itzultzaileak gaztetan idatzi zuen kontakizun surrealista-abstraktu ahalegin hura eta fax bidez bidaltzen dio bezeroari. Lehendik idatzita zegoen testu bat baliatzen du itzultzaileak,

birrerabilketako IJLa erabiltzen du, beraz.

3) Itzultzaileak ezagutzen ez duen koadro bati dagokio testua: bere bulegoko horman zintzilik daukan Tapiesen poster bat libroki deskribatzen du itzultzaileak Helburu hizkuntzaren arau morfosintaktikoak albo batera utziz. Itzultzaileak libroki inprobisatzen du edo bere inguruko zerbaitez hartzen du oinarritzat,

inspirazio edo inprobisazioko IJLa erabiltzen du, beraz.

4) Itzultzaileak premiazkoago zerbaitez dauka egiteko: helburu hizkuntzan idatzitako liburu bat hartzen du, Scanner-etik pasatu, inprimatu eta bidaltzen dio, dagokion disketeaz batera, mezulari bidez, bezeroari. Lehendik bazegoen testu bat kopiatu egiten du itzultzaileak,

erreprodukzioko IJLa erabili du, beraz.

5) Hitz tekniko giltza bat dauka testuak: itzultzaileak Interneten bilatzen du hitz giltza eta web-eko orrialde bat edozein hautatu eta zuzenean bidaltzen dio bezeroari e-mail

bidez. Itzultzaileak informazioa helarazi baino ez du egiten,

bere *helarazpen* IJLa erabiltzen du, beraz.

6) Itzultzaileak badu astia, baina umore txarrez dago: edozer gauza jotzen hasten da bere ordenadorean bere amorrua baretzeko eta, behin baretuago dagoenean, eskatu dizkioten orrialdeak betetzeko behar duen letra neurria hautatzen du, eta inprimatu eta berak *eskura* eramaten dizkio bezeroari osterabat emateko. Bere nahikeriei askatasun osoa ematen die itzultzaileak,

nahikeriazko IJLa erabiltzen du, beraz.

Kasu guztietan, emaitza *Testu puztu bat Helburu Hizkuntzan (TPh)* izango da.

TPh-a erabiliko du *Itzulpenaren Kritikak* edo *Itzulpenaren Teoriak (IK-IT)* hipotesi berriak eta teoria zuhurrak lantzeko. Baina gerta liteke pertsona batek *Buruko Hustasun Sindromea (BHS)* izan dezakeela, adibidez: Mediterraneoko hondartza batean asper-asper eginda dagoen turista bat edo "komuneko irakurle" bat has daiteke Itzulitako Testua irakurtzen, horrela bilakatzen delarik *Helburu Hizkuntzako Hartzaile (HHH)* eta onartzen du, ez baitzaio inporta zer irakurtzen duen, horrela amaitzen delarik bihurketa egoera.

Baldin itzulitako testua bihurketa egoerarik arrotz den pertsona baten eskuetan tokatuko balitz, orduan bakarrik azalduko dira itzultzailearen adimen osasunari buruzko zalantzak.

Laburpena

Itzulpenari buruzko ohiko teoriak ez dituzte argitzen lanbide honetan ikus daitezkeen hainbat gertakari. Bihurketa egoera bere lehen hasieratik aztertu dute autoreek eta kaxa beltza –itzultzailearen burua– ireki dute, era horretan bihurketa prozesuaren eredu ludologiko berri bat, testu puztuko motari mugatua, aurkezteko eta Itzulpenaren Jokamolde Ludologiko nagusiak zertu dituzte.

1997ko azaroaren 20an Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Itzulpen eta Interpretaritzako Fakultatean Wilhelm Neunzig fakultate horretako irakasleak eta Martin Kreuzer, Las Palmasko Unibertsitateko Itzulpen eta Interpretaritzako Fakultateko irakasleak irakurritako testua.



Lafontaine euskaraz:

alegia, ez duzula iturri beretik ere
birritan ur bera edanen.

JUAN GARZIA GARMENDIA

Parisko Picasso-ren museo ederrari bisita egin nion batean, hango liburutegia ikustatzeko parada ere izan nuen. Ez zen noski Picassori buruzko liburuz bakarrik osatua, eta hantxe topatu nuen, hain zuzen, SENEZerako apailatu dudan itzulpen sortatxo honetarako bidea eman didana. Liburu bitxia zera zen: La Fontaine-ren alegi batzuk, Chagall-en irudiz. Aitortu behar dut zaletasun berezia dudala aspalditik Chagall-enganako, baina ez nuen liburua etxera ekarriko, baldin eta, irudiak ederrak bezain, inprenta lana ere halako fina izan ez balitz. Nire bidean, beraz, Chagall-en itzulpena etorri zen lehenik. Handik tiraka, La Fontaine-ren jatorrizkoetatik itzulpen saiotxo bat egin nuen neuk ere, eta, azkenik, ni baino lehen lantegi berean jarduniko euskal idazle askotarikoen eskizian hasi nintzen. Ez da uzta makala, alafede, eta hortxe duzu, irakurle, lagintxo bat, entretengarri zein aztergai: zeuk aukeratu (itzultzaileetarako batzuek beren lanaren aurkezpen moduko bat ere egin baitzuten beren liburuen sarreretan, hori ere jaso dut hona, laburturik).

Fableak edo alegiak
LAFONTENENETARIK
BEREXIZ HARTUAK,
ETA
Goyhetche aphezak
FRANTSESETIK ESKOARARA
BERTSUTAN ITZULIAK
(1852)

Duela zenbait denbora erakurtzearekin bi fable multzo, bata Suberotar Jaun batek, bertzea Gipuzkoako Jaun Apez batek bertutan publikatuak: ethorri zitzaian gutizia Laphurdiko hitzkuntzan lan beraren egiteko; ez hek baino hobeki egin beharrez segurki; baina bertzela, eta Laphurdiko mintzoaren arabera. Hala nola ezen, plat bera izan baitaiteke hirur kozinerez diferentki aphaindua, eta gisa bakotzak baidituzke bere zaleak eta jaleak: hala orobat liburu berak hirur eskribatzaille diferentez landuak eta moldatuak, badituzke publikoan erakurtzaile gustu diferentetakoak. Agian hunek ere baturen ditu bereak.

[...]

Baiñan obra bera, lanaren egindura? gramatikako eta neurthitz edo bertsuen errege-la guzien arabera moldatua dea? Ez duta puntu horren gaiñean kontzientziako ausiki zenbait sentitzeko? Eta nik baderrat: Badea gramatikarik gure lenguaiaren mintzoa osoki fixatu duenik? Ez duia suberotarrak berea? Bizkainoak berea? Gipuzkoarrak berea? Eta guk Laphurtarrek geurea? Eta neurthitzen erregela guzietz errezipitu eta berdiñ praktikaturik badea? Eta izan ere badaitekea? Nik ez dut ikhusi holako libururik. Eta iragan poeta edo bertsugillen erakurtzetik ere ez zait gelditu holako pentsamendurik. Ez

dut beraz bihatu baizen bertsuak egitea izarrietan ahalik justuenak, eta buruak ahalik hobekiena parekatuak eta elkar irudienak; haritu naiz emaitera lenguaiarik klarena, liraiñena eta endelgatzeko errexena; entseiatuz sartzera Lafontenen pentsatzeko eta mintzatzeko laiñotasunean: eta badiduritzait hunen tretu ospatuenetarik asko aski uruski itzuli ere ditudala. Ebitatzera haritu naiz frasa modorrotsu eta korapillotsuak leitzalea nekhatzen, khexatzen eta desgustarazten dutenak: beldur ere banaiz batzuek kausi dezaten fabletako nere mintzoa sinplegia edo komunegia. Baiña zer egiñ? Egiña egiñ. Beti atsegin bat da erakurten dena aise konprenitzea: hauk ere badukete bere meritua: bedere nik badakit bazutela bere nekhea era ez xumea: alfer laite gehiago luzatzea.

Zer! Jaun Apeza, ez duzu bada oraiño hitzño bat, azken hitzto bat? hain diferenta othe zare bada egundainoko aphez guziatarik? Ah! publiko estimagarria! erran baniezu lan hau egitean ez nuela bertze xederik, ez gogoan bertze deusik baizen zuri hirri egin araztea, eta azukreztatu pillula zenbait irtesaraztea; gezurra erran niro. Desiratzen dautzut beraz obratto hunen erosteko gutziarik beroena, eta axalaz hirriz zaudelarik, mamiaz probetxatzeko zoriona.

Herbia eta igelak

Herbi bat bere xiloan
Zagon behin pentsaketan:
(Ezen zer egiñ zeldetan
Ez badago gogoetan!)
Gaixoa bazagon beraz
Hartua melankoliaz.
Animale hau triste da,
Eta lotsak hiran dauka:
Jende iziperak, hark dio,
Zoin diren urrikaltzeko!

Jaten dutenek ere onik egin ez dezokete,
Plazer garbi bat nihoiz ez: bethi trantzean daude.

Horral nola naizen bizi
Lotsa ondikoakoak niri
Loa ere daut ebakitzen:
Niholere nihoiz ezen
Har ez dezaket pausurik
Begiak zabalik baizik.

Korreji zaitte derrake kasko zenbait zenbait zuhurrek:

Helas! izipertasuna khen dezakeia deusek?
Are, lainoki derradan, sinhetsia daukat nik
Gizek ere badutela nik dudan gitz huntarik.

Horla zerasala herbi beldurtiak,
Erne alde orotara zauzkan beharriak.


Osto bat, haize bat, ez deus, itzal sinplea bera,
Aski zen hari betbetan emaiteko sukarra.

Amets horietan zagola sarthua,
Gure azinda triste, melankoliatua,
Hots ariñ bat zaio beharritaratzen,
Eta fite zaio ihesari lotzen.

Intzura baten hegitik zoalarik laurenka,
Igelak ikhusten ditu jauzten urera osteka:

Ah! dio, nere beldurra bada norbait duenik.
Bertzek nola niri, bertzer hala egiten daiet nik.
Naizeneko agertu, oro lotsa dire,
Kampak ere ikharan daude.
Zer! animaleak detzadan nik izi!
Gerlako ozpiña bat izango naiz naski?

Alabaiña segur ez da nehor hain pultrun denik,
Kausi ez dukenik bera baino pultrunagorik:
Jaunari esker munduan, bada guzietarik;
Hautarik ez gutienik.



LA FONTAINAREN
ALEGIA BERHEZIAK
NEURT-HITZEZ
FRANTZESETIK USKARARA ITZULIAK,
J. B. ARTSU
eskolazaliak.
(1848)

Zertako uskarara itzul La Fontainaren alegia berheziak? galdegin zautaden ene lana hasten nuelarik. Beharbada oraino ere ber galdoa eginen daute, ni irakurtu baino lehen. Hau da beraz ene errapostia, bardin ez duket horren egiteko tenorerik irakurtua nizate-nian.

La Fontainaren alegia zenbaiten uskarara itzultzian, ene lehen atsia izan da Frantzia guziak altxatzen duen gizon horren o'hizpenaren altxatzia Uskal-herriaren erdian; bigarrena, aldiz, ene herritarren gogoaren deitzea alegiatsu paregabeko horren lanetara, lan hoiien zentzu eta zuhurtze handiaren her honkierazitea, holaxet frantzes mintzajia ikhas dezeten aisago.

Hortako zerbitzatu niz La Fontainaren lanaz. Hau da obra honen iruzkibegia. Honen itzalian ezarri ditut ene uskarazko neurt-hitzak.

Frantzes eta uskara begiz begi ezarrier jarraikitzen zaie hitztegi uskalduna, aitzindari joaiten zerelarik uskaldun mintzo gainen hatsarre bat.

Hatsarre hau egina da uskara ez dakienentzat.

Frantzian nahi bada sorthurik diren, badi-re hanitz Bortu iphar aldeko izkerrian, zaoinek bere anaien, bere aitzindarien mintzajia

enthelegatzen ez dutenak (sic). Nolaz hori? Zeren ez duten bi mintzajetan izkribaturik diren libururik (sic).

Erranen daute, arauz, Errearoaren 1833 eta 28ko legeak zabaldu duela muga berri bat ikhastarzunari, eta Uskal-herriko ikhaserazlek behar dutela bere eskolierer frantzes erakutsi. Beharbada bai. Bainan nola erakhuts ahal di'ote? Ez dute uskaldun eta frantzes gramatikarik, ez dute uskaldun eta frantzes hitztegirik.

Egia da edireiten direla Uskal-herriko eskoletan hitz batzu uskaraz eta frantzesez, Frantziako *konjugazioniareki*. Hatu hoieki dute oariatino ikhasi behar ukhen frantzes Etcheparen, Oihenarten, Spondaren, Belaren, Garaten, Harizperen, Dassanzen herritarrek. Oi zoin hurrun den hitz bakant batzuen jakintarzunetik hitzen mintzatzeko behar bezala jostiala!

Uskal-herriko haurrek behar lukete, hola da ja ene ustea, *habilenekinko* bat, gramatika bat, zoinekin ikhas ahal dezen berek frantzes hitzkuntza. Gramatika hori haur hoiien eskuetara hel artino uste dut alegia igorten deitzedan hoiek aisaeraziren dereiela frantzesaren ikhastia. Hola uste dute ere ene lana ikhusi duten guziek. Hanbat hobe ez balin bagi'a enganatzen!

Erbia eta igelak

Erbi bat bere ohian ametsetan zen
(zer egin ohian amets baizik?).

Hanitz zen erbi debeiatzen,
triste beitzen, lotsak eiharturik.

“Jente lotsorrak

—zioen— ez ti'a dohatsiak;

ez di'ote jan poxirik gizentzeko;
bethi plazerik gabe, bethi lasterka,
holaxet niz ni bizitzeko:

eta lotsaz (Gainkoak deidala pharka!)

ez di'ot egin lo'ik,

begiak zabalik baizik.

Etzazula lots'ik ukhen, erranen deit kasko hon batek.

Lotsa ahal deia uzten?

Egiazki, uste dut gizonek
nik bezain dutela lotsa handia.”

Hola mintzo zen erbia,

beha zelarik egoiten.

Ez zakien zer egin, antsia zen;
osto baten itzalak edo herotsak
emaiten zeitson helgaitzak.

Gaiza hoietan zielarik gogoa,
azantza bat du entzuten;

bere xiloaren ondoa

lasterrez du atzamaiten.

Igaraiten zelarik

putzu baten ondotik,

igelak uren barna dira jausten

eta bere xiloetan gordatzen.

“O! o! —dio— nik ere bester duta lotsa egiten?

Ene ikhustiaz jentia direia izitzen?

Zer dute animale hoiek?

Gerlari handia niza arren?

Orai ikhusten dut lotsorrek

Lotsor handiagoak di'oztela ediren.”

ALEGIA DEUS EZ

(LEON LEON apezak itzuliak)

(1951tik aurrera GURE HERRIAN argitaratuak)

Zerk nuen huntaratu? Ez baita egia beza-lakorik, huna: ene ardurazko lanen artetik hats-handiaren hartzerat joana zonbeit egunentzat, uria merke eta nasai izan baitut, eta futxo, orenak nolazpeit hil behar, gogorat jin zait haurrean ikasi erdarazko alegia bat edo bertze behar nituela euskararat itzuli, ez hala-hula, bainan ahal bezenbatean hitzez-hitz eta erdarari jarraikiz. Egin dugun lana ez da ne-

hon ez dena: itzultze hortan alabainan alegia hoiek galdu dukete beren pollit hura, uriak ere utzi diote beharbada bere zurpaila eta lanaren egileak halaber bere antzearen laburra. Doatzila, halarik ere, GURE HERRIAren hegal zabaletan! Eta kitzikatzale mihi-zorrotzak orroituko dira, agian, gizonen artean jaunak balin badira, eta jaunen jaunak, badirela ere jaunen mutilak.

Erbia eta igelak

*Bere erbitegi zolan, andere Erbi,
kurruxkan janik aza-hosto bat edo bi,
gogoetaka zagon, bihotza trixterik.
Zilo ilun batean zer egin besterik?
Sortzez eta jitez izialdurak jana,
hortaz narda bat bazuen sartua barna.*

*—Putrunak zoin diren urrikalgarri!—
zion egun hartan, bere buruari.*

*Beti ikaretan,
beti dardaretan!*

*Sekulan ez plazer oso garbi bat!
Etsaiak non-nahi, bai, eta zonbat!*

*Jana ere ez gozatzen!
Horra nola bizi naizen!*

Ene putrunkeriahorren gatik,
ez dut behinere, sortuz geroztik,
 egin lo ihitzik
 begi batez baizik!

Kasko-zuri zuhur batek, hemen,
badakit zertsu dautan erranen:
—Putrunkeria hortarik senda zite!
—Hori aise errana da eta fite!
—dio ihardesten, kasko-zuriari —.
Gaitz hori uste duzu den sendagarri?
Hala zagon bada erbia gogoetaka!

Zilotik noizbait jalgi zen, orotara behaka,
barnea ttipi, ikaretan eta grinatua,
hots, itzal... ez deus batentzat sukarrak hartua.
Bada, hantxe zagolarik dardaretan,
harrabots bat egin zen bazter heietan,
baitzuen hor aski, aski eta sobera,
putinka joaiteko xendra bati behera!
Xendra haren buruan inta bat baitzen,
ikusirik “pluf, pluf, pluf” urean sartzen
inta hegi hartan zauden igelak...
—Ho! Ho! zuen egin erbi ergelak.
Nor niz ni? Zer? Bertzeak ni bezala?
Nik ere norbait izitzen dutala?
Ha! Zer ihizia haatik ni! Zer soldadoa!
Ni ikusi orduko, etsaia urpera doa!
Oraikoan ikusten dut nik
nehor ez dela hain putrunik
non ez duen egun batez, han edo hemen,
bera baino putrunago bat hatxemaiten!

LAFONTAINE-REN ZENBAIT ALEGIA

JUAN GARZIAk emanak

(1996, argitaratzeke)

Erbia eta igelak

*Erbia zuloan pentsuz
(ezen zer besterik egin liteke han?);
piztia bizi zen gogaituran, izuz,
gaixoa ikarak janik zeren zeukan.*

*« Izuti diren jendeak,
zeinen —zioen— tristeak;
poxinik ez zaie inoiz profitatzen.
atseginak beldur, asalduz taupati;
hau bizimodua: izuak ez uzten
egiten lo onik; begi-zabal beti.
Alda zaitetz, inork azti du esango:
aldatuz beldurra jango?
Uste baitut sortzez lotsor
munduan badela inor. »
Hala erbiak hausnarra,
beti ere zut, zer gerta,
susmati, urduri baita:
susmur bat, itzal bat: hutsez hark sukarra.
Malenkoniatsu, bada,
hala atzarrik ametsez,
hots fits bat hor dantzu: bizkor dagi, hara,
habia-zulotik ihes.*

*Hala iragan zen aintzira ertzetik.
Igel aldrak betan klink-klunk uretara,
uretara eta osin sakonera.
« Hara —zioen—, badut nik
izutzekorik! Ni nerau
maiz nola, beldur da jende hau nigatik!
Nondik niri ahalmen hau?
Zer da hau! piztiak nigatik ikaran!
Gudu-tximist bat naiz, edo?
Ez da, garbi dago, koldarrik lurtean
Non ez den beste bat are koldarrago. »*

IPUIN ONAK BIZKAIKO EUSKARAZ
(Juan Mateo ZABALAk 1840 aurretik paratuak)

Zeinbat gauza egiten dituzan gizonak asko-asko uste ez ebazanak! Nok esango eustan neurri ipuingiñan egingo nebala? Nik beintzat ez neuntsan sinistuko asko, niretzat nengoalako eze ez zala ori ez ene bururako, ez ene bizimodurako. Alan da guzti, makalaldi baten, beste gauzatarako ez nintzanean prestu, eta oëan besteetan baño astiroago egon bear izaten nebanean, ene atsegingarri-rako uste ez neban eginen oneri eutsi ta ekin neuntsan, eta neureak geienak orduantxe eginak dira.

Behin nagusia egin ezkeru, eta, esan daroagun legez, lanari zaia kendu ezkeru, erraz izaten da zerbait geiago aziten: eta gero eginai esku-aldi batzuk emotea zorral legez artu doa. Bada nik bere besteak erabili oi daben bidetik ez dot urten eta bigun-aldia ezkeru bat edo beste egin dot, eta oneek eta legoak leundu, ta apaindu, eta eskuak emon deustezan iñorenak Bizkai-koratu: baita onenbestegaz osotu ta biribildu dira orain argitara ateraten dadazan ipuin mamintsu on onek.

[...]

Baakit nik geure euskaldunak ipuinzaleak direala. Gogoan dot oraindo zelan umetan entzun geroaguzan aoa zabalik, eta adurra erigula, Peru ta Mariaren ipuin sutraiba-akoak. Oraingo oneek dira sustrai andikoak, mamin ederrekoak, eta on eta onura zabalekoak. Alan balira geiago.

Nik gura neunkeana da ze, oneetatik bi-dea artuta, edo ainbagakoan, nik baño buru, gatz, asti eta gogo obea daukanen batek gei-ago ta ederragoak egin balegiz. Baita, zer dakigu izango bada? Au baño gatxagorik ikusi da mundu zabalean.

[...]

Bitartean barriz irakurri egizuz ta egike-zuz ipuin on oneek: eta alan baderitzazu buruz artu; eta zeuretzat eta besteentzat asko ikasiko dozu zelan egin bear dan. Eurak dagoz berba neurtuetan, eta naurri labur-luze, ta gera-aldi era askotakoetan: eta onelangoak izan daroe berezko gatza, gazigarria ta uia, gogoa joteko, begizkoa egiteko ta erreago oratu ta erantsiteko.

Erbi bizitzeaz gogaituak ta ugaraxioak

Erbi batzuk baten
egiñik batzarra
"ai bada, ziñoen,
geure zori txarra.
Geu beti bildurrez
beti geu ikara;
bein ez gaituk bake onez."
"Orrelan, nor bizi
onen bake galduz?
Gizonak bateti
lakioz eta suz:
txakurrak ausika
atzean jarraituz.
Otso, lukiak geu ilka.
Alan ibilteko
oba joägu il
t'azken emoteko
neke ain ugaril,
ta ain gogor ganera
jatorkuanari
geu ta lanak uretara."

Esan ta egin; doaz
urari emoten,
buruak itoaz
nekeak itoten.
Munera aik eldu
t'ugaraxioak
an, plast, zirean muxatu.
Auxe ikusirik
diño: "gazteak
ez gozak bakarrik
gu nekepekoak.
Goiazan alon,
atzera: ta lanik
bajoagu, egon, egon.
Nekepean danak
obeto danari
aitu, eta lanak
eiten jakoz azi;
barriz begiratu
txartoagoari,
damuak dira laburtu.

ALEGIAK SUDUR GAINEAN BEGIAK

JEAN DE LA FONTAINE

Jesusmari Mendizabalek

libreki euskaratuak

(1985)

Erbia eta igelak

Bazen behin, bere kobazuloan sartua, erbi izuti bat. Urduria zen, artega; geldi, ezin ego-na, dena keinu. Eta honela zioen bere artean:

—Ez ote naiz ba, geldirik egongo? Hainbeste zirti-zartakin, jaten dudanak ez dit onik egingo. Beldurrak, berriz, ez nau pakean uzten. Loa ere, begi bat irekia eta beste itxia-rekin darama. Nire akats eta okerrok zuzendu nahi nituzke, baina ezin! Beste animaliek, bestalde, nik hainbat ez bada ere, bildurrak ibiliko dira, nik uste.

Tupustean, hots bat entzun eta bihotz ondoko bat izan zuen. Itzalen bat, haizearen txistua, zuhaitzetako zotz baten erorketa aski zuen airean jartzeko. Inoiz ez zegoen lasai gure erbia.

Hots hau entzutean, estu eta larri zulotik atera, basoa zeharkatu eta zenbait bide ere, eta azkenean garbi batetara iritsi zen. Nekatutrik geratu eta honela erasiatzen zion bere buruari:

—Ez nuke horren beldurti izan behar. Ergel xamarra naiz. Entzun dudana, agian, ez zen hosto batena besterik eta ni izuturik hara noraino atera naizen.

Bere kabuz jarraitzen zuen erbiak putzu batetako urei so:

—Ea zentzutzen naizen, zere ziur bait nago ez dela munduan ni baino beldurtiagorik. Ez gizonek, ez hegaztiek, ez piztiek eta ez untziek ere ez dute zertan beldur izanik.

Poliki-poliki erbia geroz eta gehiago hurbildu zen putzura. Igel batzuk zeuden han kantari. Erbia bertan somatu zutenean, beldurtu ziren eta uretara murgildu.

Erbiak orduan:

—Arranopola! Igelak beldurti nire aurrean? Nik ere beraz, besteek niri bezalatsu, beldurra eragiten dut. Agidenez, izutu egin dira aberetxo hauek ikusi nautenean. Eta nik ez nien inolako kalterik egin nahi!

Honela kontsideratuz hala zioen erbiak azkenean:

Bistan dago beldurti batek nonahi aurki dezakeela beste bat bera baino beldurtiago.

“Erbi hau ero duzu” aitortuz
oker legoke hastea,
antzeko bait da, esan gabe ere,
jende gehienon ustea:
izutiena norbera dela
ez dago ondo sinestea,
hemen bat beldur baldin badabil
beldurtiago bestea.

Laurece Sterneren Bidaia Sentimentala

JOSU BARAMBONES

Laurence Sterneren izena aipatzen dugunean, literatur orijinaltasuna ez ezik idazteko askatasun erabatekoa ere datorkigu burura. Ez da harritzekoa, beraz, Nietzschek berak garai guztietako idazlerik libreena deitu izana. Izan ere, inoiz idazlan orijinalik izan bada, hura *Tristram Shandy* da, inolako zalantzarik gabe. Sternek aitortzen duenez, ustekabetasuna edo oharkabetasuna zen idazteko orduan jarraitzen zuen printzipio artistikoa:

“(…), gaur egun mundu guztian zehar liburu bat hasteko dauden bide guztien artean, seguru nago nirea onena dela, ezen lehenengo esaldia idazten hasten bainaiz eta ahalguztidun Jainkoaren esku uzten baitut bigarrena”. (*Tristram Shandy*, VIII, 2)

Literatur kritikoez lehen idazle modernizatzaletzat jotzen dute Sterne, Virginia Woolf, James Joyce edo Samuel Beckett-en aurretikotzat. Aitzindari izan zituen idazleek (hala nola Richardson, Fielding edo Smollet) jarraitzen zuten ereduarekin guztiz hausten du Sternek bere lehenbiziko liburuan. XVIIIga-

rren mendean nobelak idazteko kanonari ez dio inola ere jarraituko: Sternerekin ez argumentoa ez estiloa ere ez dira gehiago linealak izango (horren adibiderik garbiena Tristram dugu, Tristram Shandy-ko protagonista, zeina hirugarren liburukira arte ez baita jaiotzen). Dibagazioei ekingo die behin eta berri, berbaldi amaigabeetan galduko da eta digresioak nonahi eta noiznahi aurkituko ditugu. Cervantesen tradizioari jarraiki eta Rabelais eta Jonathan Swiften eraginaren ondorioz, Sternek bere garaiko nobelaren moldeak alde guztiz irauli zituen, eta gauzak kontatzeko eta narratzeko era guztiz berri bat sortu zuen.

Tipografian ere hainbat berrikuntza eka-ri zituen: marrak barra-barra erabiltzen ditu, izartxoak, letra gotikoak, orri beltzak nahiz zuriak, egileak berak egindako marrazkiak, e.a., e.a. Bitxikeria horiek guztiak *Bidaia sentimental*-n ere aurkitzen ditugu, neurri apalagoan bada ere.

Bidaia sentimental-n Sternek irri egiten du ohiko bidai liburuez eta bidai liburu mota

erabat berria idazten du: hemen irakurleak ez du izango aurkikuntza ospetsu batzuen deskripziorik edo eszena pintoreskorik, bai-zik protagonistak bidean zehar topatzen duen jendearen izaera eta barne zirrarak arakutzen dituzten begirada barnekoiak. Virginia Woolf-ek ingeles edizioan egin hitzaurrean adierazten duenez, ikuspuntuaren aldaketa hau berrikuntza ausarta izan zen. Ordura arte, bidaiariak perspektiba eta lege jakin batzuk bete izan zituzten. Katedrala beti izan zen eraikuntza zabalegia edozein bidai liburutuan eta gizona, berriz, figura ttiki bat haren aldean (hauxe da, hein handi batean, Jean Etcheparek oraindik ere XXgarren mendean jarraitzen duen bidea Beribilez liburuan). Baina Sterne erabat gai izan zen katedrala alde guztiz saihesteko. Saten berdezko poltsa bat daraman neska bat Notre-Dame baino askoz inportanteagoa izan daiteke. Sterneri ez zaio interesatzen irakurlea nekatzea ibai, mendi eta arkeologi hondakinei buruzko aipamen amaigabeekin. Sternerentzat bidaiatzaren helburu nagusia bizitza bera da. Sternek airtortzen duenez, "izaki ondradu guztiak hartzen ditut tenplutzat". (*Bidaia sentimental*, 143. or.).

Horrela bada, Sterne bidaiari sentimental izango da, edo nahiago baduzue, bidaiari sentibera. *Bidaia sentimental*-n sentimenduek norberaren barne zirrarei eta sentiberatasunaren adierazpena baino gehiago esan nahi dute: norbera beste norbaiten egoeran murgildu eta lagun hurkoak sentitzen duena sentitzeko gaitasuna da; are gehiago esango nuke: lagun hurkoaren barne zirrarak lagun hurkoak baino indar handiagoz eta sakonago sentitzeko ahalmena.

Bidaia sentimental idazleak Frantzian eta Italian zehar zalgurdi batean egiten duen

bidaiari buruzko kontakizunarekin hasten da; liburuan zehar, ordea, zirriborro dramatiko, gertaera patetiko eta ironiko, gogoeta filosofiko eta oroitzapenez beteriko mosaiko baten aurrean aurkituko da irakurlea. Agian horregatik, liburu hau inoiz idatzi izan diren nobeletan egiturarik edo argumenturik gabekoena da. Objekturik txikienarekin, gertaerarik hutsalenarekin hasi eta bere luma-ren hegoei eragiten die, ez dakielarik noraino eramango duten.

Valverde irakasle eta itzultzailearen ustez, Sterneren estiloa XVIIIgarren mendeko estilo narratiborik onena da. Estilo horren ezagarririk nabarmenena hau da: bizkortasuna, bai estiloari dagokionez, bai pentsamenduari dagokionez ere. Estilo eta pentsamenduren bizkortasun horrek zalutasuna, mugikortasuna eta trebetasuna ematen ditu aditzera, hau da, digresioak eginez gai batetik bestera jauzi eginez eta ehundaka aldiz haria galduz, eta beste ehundaka itzuli eta jirabira emanaz idaztearekin ondo doazen bereizgarriak. Italo Calvinoren iritziz, Laurence Sterneren amazioarik handiena digresioz mukurru beterik dagoen nobela da. Digresioa amaiera geroratzeko estrategia bat baino ez da, denbora multiplikatzeko obraren barruan, betiereko ihesa edo hegaldia. Eta nondik ihes egiteko? Heriotzatik, jakina, Carlo Levi idazle italiarrak iradokitzen duenez.

Liburua itzultzeko jarraitu dudan metodoa Sternek jarraitu zuen berbera da, hots, lehenengo esaldia itzultzen hasten nintzen eta ahalguztidun Jainkoaren esku uzten nuen bigarrena. Nire kasuan, ordea, laguntzera etorri zaizkidan ahalguztidun bakarrak haue-tzek izan dira: beharra, eroapena eta bakardadea. Lehenengo lekuan, beharra: itzultzaile edo idazlea izateko ezin konta ahala ordu

sartzeko prest egon behar du norberak. Jaki-na, ordu horiek ez dago zerekin ordaindurik obrari zaion itzal eta maitasunarekin izan ezik. Bigarrenik, eroapena: hitzik egokienaren bila hiztegiak eta testu orotarikoak arakatzeko, berba egokia bilatzen ez denean, hitz hori jarri gabe uzteko eta garai hobeen aiduru geratzeko; esaldiak behin eta berriz eta berriz ere hamaika aldiz berridazteko, begitangoena aurkitzen dugun arte. Eta azkenik, bakardadea: mundutik denboraldi batez bakartu eta itzulpenean erabat murgiltzeko gaitasuna. Azken batean, Sternek dienez, hartzen ditugun nekeen aldera bakarrik erdiesten dugu bizigaita. Bideari ekiten zaionean, saiatzeak ematen duen oinazea bide malkar eta oztopoz betearen amaierara iristen denean hartzen den gozatuak sariztatzen du.

Itzultzeko orduan, Sternek erabiltzen duen puntuazioari atxikitzen saiatu naiz, uste baitut puntuazioa Sterneren estiloaren bereiz-

garririk nabarmenenetakoa dela. Eta horixe da, hain zuzen ere, euskal irakurleak arrotzen bilatuko duena: puntuazioa eta batez ere marren erabilera bitxia. Kontuan har bezala irakurleak Sterne predikaria zela eta marren erabilera bitxi horrek ikusteko handia duela oratoriarekin. Sterneren marrek ez dituzte narrazioaren gertakariak isolatzen parentesiek bezala: noiz etenaldi erretorikoak egiteko balio dute, noiz akzioaren erritmoa markatzeko, noiz hitz bat edo esaldi bat azpimarratzeko. Marren luze-laburra aldera daiteke musikako isilune ezberdinen iraupenarekin. Estilo hain bitxi eta partikular honen aitzinean harri eta zur geratuko da gaur egungo irakurlea, XVIIIgarren mendeko irakurle ingelesak geratu ziren moduan. Ordea uste dut ezen, irakurlea prest badago ahalegin txiki bat egiteko, berehala ohituko dela Sterneren estilora; eta nik itzultzean sufritu dudana bezainbat gozatuko dela liburua irakurtzean.



— *ETA* hau, esan zuen ogi-koskor baten hondarrak bere zakutoan sartuz — eta hau zure zatia izango zen, zioen, nirekin banatzeko bizirik egon bazina. Azentuagatik pentsatu nuen bere umeari egiten zion apostrofe bat zela; baina bere astoari zuzentzen zion; eta, hain zuzen ere, bidean hilda ikusi genuen asto berari, *La Fleur*ren zoritxarreko abentura eragin zuenari. Bazirudien gizonak biziki deitoratzen zuela bere astoaren heriotza; eta berehala ekarri zidan gogora Santxok bereagatik egindako auhena; baina Santxok benetako eta bere-berezko ukitu gehiagorekin egin zuen.

Lantu-jotzailea ate ondoan eserita zegoen harrizko eserleku batean, alde batean asto basta eta brida zituela, noizik behin hartzen zituenak — gero lurrean uzten — haiei begira jartzen, eta burua astintzen zuen. Gero, berriz ere hartu zuen bere ogi koskorra bere zakutotik, jatera balihoa bezala; une batez eskuan eduki — gero utzi bere astoaren bridaren ahoko ondoan — egin zuen prestaketari etsipenez begiratu — eta orduan hasperen egin zuen.

Gizonaren atsekabearen lañotasunak lagun aldra izugarria erakarri zuen haren ingurura, eta gaine-rako guztien artean *La Fleur* ere, zaldiak gertatzen zituzten bitartean; postako kotxean eserita jarraitzen nuen ez gero, haien buru gainetik ikus eta entzun nezakeen guztia.

— Espainiatik etorri berria zela esan zuen, nora joan baitzen Frankoniako mugarik urrutienetatik; eta ostera ere etxera bueltan zetorrelarik, honaino iritsia zela astoa hil zitzaionean. Bazirudien guztiak irrikaz zeudela jakiteko zer aferak eraman ote zuen halako gizon zahar eta gaixo bat bere etxea utzi, eta hain bide luzeari lotzera.

Zeruak nahi izan zuen, esan zuen gizonak, hiru semerekin dohaindu, Alemania guztian parerik ez zutenak; baina aste batean baztangak bi zaharrenak kendu zizkiolarik, eta gazteena ere gaixotasun berak jorik geratu zelarik, seme guztiak galduko zituen beldur zen; eta zin egin zuen ezen, zeruak beste semea eramaten ez bazion, Espainiako Donejakuera joango zela bere esker ona agertzera.

Lantu-jotzailea bere istorioarekin horraino iritsi zenean, gelditu egin zen naturalezari bere ordaina ematearren — eta negar egin zuen saminki.

Gizonak esan zuen zeruak baldintzak onartu zizkiola, eta txabola utzi eta bideari ekin ziola animalia koitadu hau lagun hartuta, zeina eroaten handiko bidelaguna izan baitzen — bide guztian zehar ogi beretik jan zutela biek, eta adiskide mina izan zuela.

Inguruan zeuden guztiek jakinmin handiarekin entzuten zioten gaixoari — *La Fleur*rek dirua eskaini zion. — Lantu-jotzaileak esan zuen ez zuela dirurik nahi — ez zela astoaren balioa — haren galera baizik. — Ziur zegoen, esan zuen gizonak, astoak maite zuela — eta orduan istorio luze bat kontatu zion Pirinioetatik igarotzean gertatu zitzaizen istripu baten gainean, elkarrengandik hiru egunez bananduta utzi zituen; denbora horretan astoa ibili zela haren bila, bera astoaren bila ibili zen bezainbat, eta ez zutela kasik jan, ez edan ere, harik eta berriz elkartu ziren arte.

Bederen baduzu kontsolamendu bat, adiskidea, esan nion, zure abere koitadua galduta ere; ziur naiz jabe errukiorra izan zaituela. — Ai ene!, egin zuen lantu-jotzaileak, halaxe uste nuen nik ere bizirik zegoenean — baina orain hilda dagoenean, bestela uste dut. — Beldur naiz ni eta nire atsekabeak dena batera ez ote zaizkion pisutsuegi gertatu — nire nahigabeek laburrago egin dituzte koitaduaren egunak, eta beldur naiz ez ote dudan horregatik erantzun beharko. — Munduaren lotsaizuna!, esan nion neure buruari — Guk ere elkar maite bagenu arima gaixo honek bere astoa maite zuen bezainbat — ez litzateke gutxi izango.

— AND this, said he, putting the remains of a crust into his wallet — and this should have been thy portion, said he, hadst thou been alive to have shared it with me. I thought by the accent, it had been an apostrophe to his child; but 'twas to his ass, and to the very ass we had seen dead in the road, which had occasioned La Fleur's misadventure. The man seemed to lament it much; and it instantly brought into my mind Sancho's lamentation for his; but he did it with more true touches of nature.

The mourner was sitting upon a stone bench at the door, with the ass's pannel and its bridle on one side, which he took up from time to time — then laid them down — looked at them and shook his head. He then took his crust of bread out of his wallet again, as if to eat it; held it some time in his hand — then laid it upon the bit of his ass's bridle — looked wistfully at the little arrangement he had made — and then gave a sigh.

The simplicity of his grief drew numbers about him, and La Fleur amongst the rest, whilst the horses were getting ready; as I continued sitting in the post-chaise, I could see and hear over their heads.

— He said he had come from Spain, where he had been from the furthest borders of Franconia; and had got so far on his return home, when his ass died. Every one seemed desirous to know what business could have taken so old and poor a man so far a journey from his own home.

It had pleased Heaven, he said, to bless him with three sons, the finest lads in all Germany; but having in one week lost two of the eldest of them by the small-pox, and the youngest falling ill of the same distemper, he was afraid of being bereft of them all; and made a vow, if Heaven would not take him from him also, he would go in gratitude to St Iago in Spain.

When the mourner got thus far on his story, he stopp'd to pay nature his tribute — and wept bitterly.

He said, Heaven had accepted the conditions, and that he had set out from his cottage with this poor creature, who had been a patient partner of his journey — that it had eat the same bread with him all the way, and was unto him as a friend.

Every body who stood about, heard the poor fellow with concern — La Fleur offered him money. — The mourner said, he did not want it — it was not the value of the ass — but the loss of him. — The ass, he said, he was assured loved him; and upon this told them a long story of a mischance upon their passage over the Pyrenean mountains, which had separated them from each other three days; during which time the ass had sought him as much as he had sought the ass, and that they had neither scarce eat or drank till they met.

Thou hast one comfort, friend, said I, at least, in the loss of thy poor beast; I'm sure thou hast been a merciful master to him. — Alas! said the mourner, I thought so, when he was alive, but now that he is dead I think otherwise. — I fear the weight of myself and my afflictions together have been too much for him — they have shortened the poor creature's days, and I fear I have them to answer for. — Shame on the world! said I to myself — Did we love each other, as this poor soul but loved his ass — 'twould be something.—

Harpidetza Txartela

SENEZ aldizkariaren harpidedun egin nahi dut:

Izena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____ P.K.: _____ Tlf: _____

Banku edo Aurrezki Kutxa: _____

Entitatea	Bulegoa	K.D.	Kontu-zenbakia
<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>

Kontuaren jabea: _____


NAN edo IFK zbk.: _____

Helbidea: _____

- Entitate horretako kontuan zordun itzazue nire izenean aurkez diezazkizuen ordainagiriak.
- Ordainketa faktura bidez egingo dut.

Data: _____

- Hemendik aurrera harpidetza nahi dut
- SENEZ aldizkariaren zenbaki zahar guztiak nahi ditut
- Honako zenbaki hauek nahi ditut: _____



EIZIE

